



KARDABERAZ BILDUMA - 31

LEKUONATAR MANUEL

IDAZ-LAN GUZTIAK

10.

GABON ETA ELIZ-KANTA

HIMNO EUCARISTICO DE ALAVA

Gurtu zagun / Aldareko Errege,
 gu maite naiez / maite gaituana;
 ogi ta ardo / itxuran datorkigu,
 dan ta duan / guztia eman. digu...
 Emaio gun / gure maitasuna.

Zeruko Ogi / txuri, bizi-bizia,
 gizoriaren / bizi ta osasuna...
 Zuri, Jauna, / aintza ta esker ona,
 Zuri maitasuna.

HIMNO MISIONAL

Zeruko Berrion-argi ederra
 munduan zabaldu dezagun!
 kristauak bezelaxe jentillak
 Jesus gurutzean dezan ezagun.

1. Argi bat piztu zan bein Belen'en
 eta kokatu Jerusalen'en
 mundu danari argitzeko.
 Ogei gizaldi / igaro dira,
 eta oraindik mundu guztira
 Jesus'en Argia or da eltzeko.
2. Iturriari ura dario...
 Jesusi ere Ura j'ario
 gizon guztiak garbitzeko.
 Ogei gizaldi / igaro dira,
 bañan, kristauok, lotsaz begira
 orrenbeste gizon bataiatzeko.

PARA EL HIMNO PONTIFICIO DE GOUNOD

I

Entzun dezagun,
 Goiko Berri Ona,
 Jesus berak
 Pedro'ri eman ziona :
 "Pedro zera; eta arri orren gañean
 sortuko det nerje Eliza lur zabalean.
 Etsai gaitzto guztiak, alperrik dabiltza;
 zutik dagoke nere Eliza
 mundurik dan artean".

Maite dezagun, ba,
 Errroma'ko Artzai ona
 Errroma'n dagona
 gaur Pedro'ren oñordeko.
 Gauden Artzai onekin;
 gauden beti bere mendeko!
 Pedro'rekin dagona
 Jesus'ek bait-du ondo gordeko.

II

Entzun dezagun,
 Goiko Berri Ona,
 Jesus berak
 Pedro'ri eman ziona:
 "Artzai zera, Pedro, zeruko larrean,
 Ardiak bazkatzeko nere belarrean.
 Otso gaitzto danak alperrik ari dira;
 sartuko ez dira Artegira
 Pedro zera artean".

Maite degazun, ba,
 Erroma'ko Artzai Ona,
 Erroma'n dagona
 San Pedro'ren oñordeko.
 Gauden Artzai onekin,
 gauden beti bere mendeko!
 Pedro'rekin dagona
 Jesus'ek bait-du ondo gordeko.

1950-11-26

AMARIK GABE MUNDUAN

Amarik gabe mundua
 illun da aurrarentzat;
 Zu gabe, Zeruko Izarra,
 artzen nau illun beltzak;
 amarik onena zera
 Zeruan Zu neretzat.

Berez du joan bearra
 umeak amagana;
 guk ere Zugana bear
 gure Ama laztana;
 ondo da, Ama maitea,
 zurekin bizi dana.

Kristauak erbestea du
 bizitza, bai, munduan;
 bañan Aberri bat ere
 ortxe du, or, zeruan;
 iltzean artu gaitzatzu
 Ama, zure onduan.

1946-San Juan aurreguna

KRISTO ERREGE

(CGoikoetxea)

Errege zera Zu...
 armarik gabe
 Gurutzean egin zera
 biotzen jabe
 Gurejesus! (bis)

Zure Jaiotzetik
 edertasuna
 dariozula zaude, ta
 maitetasuna
 Biotzetik (bis).

Lege bat ba'dezu,
 —ta zer Legea! —
 maitetasunezko gozo,
 berdin-gabea...
 Jesus! Gure Jesus!!
 Errege zaitugu.

Ama maitea dezu, Ama Birjiña;
 Zu Errege bezela Bera Erregiña;
 Dabid'en seme zindun Belen'en sortu,
 ta munduak Errege zaitu aitortu,
 gure Jesus! gure Jesus!

ARDIENTE SOL DE GRACIA

Animaren Eguzki,
biotzaren uiana!
Argi ta gozo, guri
Zeruak emana!
Jesus zeruetatik
etorri gugana
ta aldarean or beti
ta izan gure Jana...
Zer da, baña, oh Jesus,
entzuten dedana?
Arria da Zurekin
zoratzen ez dana...
animaren Eguzki,
biotzaren Mana!

Ogiaren gozoa
guk jaten deguna!
Argiaren argia
ematen dezuna!
Bizitz-artean indar
eta osasuna;•
eriotzean, berriz,
bideko laguna;
Golgotaren berritze,
Zeruko oiartzuna;
Jainkoaren erruki
ta maitetasuna...
animaren Eguzki,
biotzaren Mana!...

OH VICTIMA INCRUENTA

Elizan bizi zera
maitatzalle ixilla,
Gurutzeán baño len
ogipean illa...
betí gure galdez, ta
beti gure billa:
gure maitetasuna
Zuretzat dedilla!

Pekatuak urruti
ninduan Zugandik,
eta Zu Aldarean
ezin laztandu nik!
Bañan Zurekin nai det
bizi nik gaurtandik...
Jesus, geiago ez det
nik nai pekaturik.

Ondotasun guztien
iturri garbia!
animaren janari
eta edaria!
Aldarean or zaude
guretzat jarria.
Bai zerala atsegiaña!
bai maitagarria!

POR QUE, POBRE ALMA MIA...

Biotza det egarri,
 egarri biotza:
 Jaungoikoarentzat det
 egarri zorrotza...
 Jaunaz beste guztia
 neretzat bai otza!

Zerua det nik etxe,
 nere etxe jatorra;
 zeruaz beste dana
 erbeste gogorra...
 Noiz iritxiko ote-naiz
 betiko an gora!...

ESTRELLA PURA...

Izar ederra, zeruko Izarra,
 Andre Maria, Zu zaitugu.
 Zure begien argi ederrez
 Zuk, Ama, argitzen ba-gaituzu,
 zeruko bide zuzen-zuzenez
 Jesus'engana joko degu.

Jesus bait-degu zorionaren
 iturri eta sustrai bera,
 Berarengana jotzen ba-degu,
 zorionaren jabe gera.
 Lagun eiguzu Jesusengana;
 Aren ta gure Ama zera.

OtJEDATE, BUEN JESUS..

Gaba da-ta, Jesus, geldi zaitez,
ementxe, gurekin;
pozik igaroko degu gaba,
Jesus, Zurekin.
Etzuazela, arren! geldi zaitez;
Argia zera Zu,
ta argi gabe munduko illunbetan
galdu gera gu. (bis)

Geldi zaitez, Jesus maite ori!
bai, etzuazela!
Ber-esango degu Emausko
biak bezela:
"Gaba da-ta, Jesus, geldi zaitez;
zaude gaur, gurekin;
pozik igaroko degu gaba
Jesus, Zurekin". (bis)

—Ementxe gelditzen naiz, betiko
zuen artean;
aldarean maitez jan nazazuten (bis)
ogi-antzean.

ANTE TI POSTRADOS

Amaren ondoan
ez det bildurrik.
Zaitzalle oberik
nun arkitu nik?

Zuk zaitu nazazu,
zeruko Ama;
pozik joko det nik
beti Zugana.

Jesus ba-da asarre
nere txarkeriz,
adiskidetzeko
ba'det biderik.

Zu zaitut bidea,
Zeruko Ama;
pozik joko det nik
beti Zugana.

Lotsa naiz eskatzen
ezer Jesus'i
—ain naiz ezer-ez ta
ain naiz itsusi—.

Zuk eska zaiozu,
Zeruko Ama;
pozik joko det nik
beti Zugana.

DIOS TE SALVE.

Ama, zure edertasuna
nork lezakean gora!
Egin zindun Jauna bera
Zuk bait-zenduan txora...
Noiz eramango gaituzu,
Ama, zure ondora?
Noiz eramango gaituzu,
Ama, zure ondora?

Zure ondoan bageunde,
nolako atsegíña!
Jaungoikoaren Ama, ta
Zeruko Erregiña,
ai! zure oñetarako
bederen gai bagiña!
ai! zure oñetarako
bederen gai bagiña!

Bañan, Jesus'en bezela,
gure Ama bait-zera,
—biotzak ez uzten nimbait
iñor uzten atzera—,
lurretik artzen gaituzu
ta sartzen Biotzera:
lurretik artzen gaituzu
ta sartzen Biotzera.

NAASI-ANTZEAN

AZKENEKO OLA-GIZONA

Tiriki-tauki-tauki,

malluaren otsa...
Gaur gora nai nukela
nik Gabi-arotza,
bai burni-arotza
malluaren otsa.

Tirikirtauki-tauki,
Olaren durunda
gure ibar-zelaietan.
noiztandik entzun da?
noiztandik entzun da
Olaren durunda?

Lenen mallukaria,
omen, Tubalkain;
lenengo Ola-gizona,
antziñako Matxin.

Orduan nundikan-nai
mendiak meatza;
mendiak meatza ta,
basoak ikatza.

Basoak ikatza, ta
beso-zañak gatza
kintaleko mallua
ccmatxin« batek dantza.

Beti—tiriki-tauki—
eztarrian kanta
ardoz ondo bustita,
etzedin marranta.

Dantza-sokarik ba-zan,
an Gabi-arotza;
tobera-jotzen, berriz,
ez bait-zan arrotza...

...gaberdi gaberdian,
eztairikan ba-zan,
gure Ola-gizona
antxen izango zan.

Erriko pesta-zurri
zezenikan al-zan?
eskuan kapa gorri,
buruz bera plazan.

Onean jostallu, ta
lertzean eztanda....
obeto adituko
bi bertsoz esanda.

«Esku» itzetikan bezain
zuzen «eskukada»,
«Matxin» itzetik dator
zuzen «matxinada».

«Matxinoak» Azpeitin
Jesus-zigortzaile,
aurpegia beltz-gorri
beti ikus bait-zaie.

Azpeiti dala Azpeiti,
Riojan San Millan...
an bai, euskal-amarren,
burni-barrak pillan!

Bañan, besterik beste,
Matxinoen poza
beti, *tiriki-tauki*
malluaren otsa.

Mendian Zear-ola,
errekan Gabia...
Gabi-olaetako
taukaren aundia

Tiriki-daunga-daunga
onen oiartzuna
Euskalerri guzian,
nork ez dun entzuna!

Ots onixi eskerrak
«Bizkaitik, burnia»;
an labratuz mundua
txoil bai-dago ornia.

Ez Bizkaia bakarrik;
Euskalerri dana :
dam guztia Ola-zar
len bait-degu izana.

«Izana» diot, eta
ala da izan ere...
antziñako «Ola-zarrak»
gaur «orma-zar» daude.

Urrestilla'n amairu
ziran, bai galantik!
Banan-banan geldi, ta
jun bear guk andik

Ni Legazpira nintzan
gazte ta lerdena
—Bengoleako Olean
neu nintzan gaztena.

Au ere gelditu zan...
an zan gure pena!...

Gipuzkoan Bengola
geldi zan azkena.
An zan gure pena!
Oletan azkena.

Ez da geroztik iñon
tirikitau-otsik;
ez du iñork ezagutzen
gaur gabiarotzik...
.. tirikitau-otsik
ez gabiarotzik.

Bañan, mundua-mundu
nik Martin izena...
Lenena Matxin bazan
Matxin bait da azkena.

AURRAK LO, ETA AMAK AMETS

Gela txukun ta polit, alaia.
 Seaska txoko batean;
 seaskan ume musu-gorri bat,
 amatxo, berriz, aldean...
 Orra nolako ikuskaria
 nere begien aurrean
 jarri oi zaidan, egun gozo au
 urteak dakarrenean.

Begiak ori... Bañan zer da? zer?
 gela artan entzuten dana?
 Kanta gozo bat, kanta ehti bat
 berdiñikan ez duana:
 bere aingeru txikiarentzat
 amak len sortu zuana,
 eta amak bestek, iñortxok ere
 kantatzen ez dakiana.

*Ttunku-runku, ttunku-ttunku
 ttunku-runku, ttunm;
 runku-ttunku, ttunku-ttunku,
 runku-ttunku, ttuna.*

Nere seme txiki, maite,
 aingeru kuttuna,
 lo egizu, lo betea,
 lo igozo biguna...
*Ttunku-runku, ttunku- ttunku,
 ttunku-runku, ttuna.*

Legarre'tik Elizara
 aldapa-ondoan,
 abuztuko ogeita-seia
 daukat nik gogoan.
 orduantxe jaio ziñan
 guztien kuttuna,
 orduantxe jaio ziñan
timku-rrunku-ttuna.

Eliz-tellatutik egan
 usoak lurréa;
 zerutik zu jetxi ziñan
 nere magalera...
 Bañan lo egizu, maite,
 egin, lo,kuttuna,
 lo egizu, lo betea...
ttunku-rrunku-ttuna.

Zeru goian, gau beltzean
 dizdiz artizarra;
 an bean, ibai-ertzean,
 txutikan lizarra;
 zu zerade, Zeferino,
 lizar bat lerdena,
 ta etxeko zeruan dan
 izar ederrena...
 Bañan, maite, lo egizu...
ttunku-rrunku-ttuna
 seaskatxo biguñean
 lo egin kuttuna.

Erletxoak loraditik
 zuzen eultzera,
 ezti gorri gozo-gozo
 antxen egitera;
 zure arreba guztiak,
 erletxo antzera,
 ama negarrez utzi-ta
 Kobentu batera;
 bañan zuk ez nauzu utzik
 ez, zuk ez, kuttuna...
ttunku-rrunku, ttunku-rrunku
ttunku-rrunku-rrunku.

Penadai'ko errekaldean
 uso bat laztana,
 Konbenturako bideak;
 ez dakizkiana;
 arek eta zuk, ^Anork daki?
ttunku-rrunku-rrunku,
 (Jaunari nai dakiola
 danok nai deguna)
 eingoa ez ote-dezuten
 kabi bat txukuna?

Kabi artan, gaurko amak,
 —ordurako amona—
 magalean lokartzeko
 illoba kuttuna,
 ari kantatuko dio
 gaur zuri dizuna :
^A*Ttunku-rrunku-rrunku-rrunku-* *ttunku-rrunku-rrunku-*
ttunku-rrunku-rrunku-rrunku-
ttunku-rrunku-rrunku-rrunku-
Looaooo...loooooo...
ttunku-rrunku-rrunku-tu,..na.

Seaskatxoa geldirik dago;
 aurra lo bete-betean;
 ama gaxoa ari begira
 muxu bat eman naiean...
 Orra nolako ikuskaria
 nere begien aurrean
 jarri oi zaidan, San Zeferino
 urtero datorrenean.

BIXITARIAK SATURRARAN'EN

Uso zuria, errazu:
oroitzen al zerade zu,
egun batean gure Artzaia
otoitzean oso kartsu
nola ikusi zenduan zuk?

Uso zuria, orduan,
izarraz-gora zeruan
zuk zer ikusi zenduan?
Artzai onaren otoitz ederrak
goi artan zer egin zuan?

Txuri-gorri zeruetan
zenbait illunabarretan :
uso zuria, esan zaiguzu,
illunabartxo aretan
nolako irri-par zoragarria
Bijiñari ezpañetan
jarri zitzaison bet-betan?

Gero, oroitzen al zera,
Erregin baten antzera,
aginte-zigor urrez egiña,
zerbait aginduz bezela,
lurrera makur zuela?

Bañan, usoa, gerora,
esan zaiguzu, zertara
jetxi ziraden aingeru-saillak
zero goitikan Bilbo'ra,
gaizto-artean ainbat aingeru
bizi dan txoko artara?

Pinpilinpauxak ugari,
Birjiñaren mandatari :
Uso txuria, zein ote ziran,
Bilbao'tik egalari
Ondarrurantz etorri ziran
Andra-antzeko Aingeru bi?

Gaurko emengo lurruna,
danok igertzen deguna,
esaten dago "Aingeru biak
ez daude emendik urruna";
ama-(i) alabak Saturrarán'en
daude gaur, uso kuttuna.

Zuazki, bada, aldera
eta belarri-ertzera
esaiezu, goxo, bera,
orduan guri oj^a ziguten
itxasu ori bezela,
berenganako gure esker ona
neurri gabekoa dala,
eta, gurea ezer ez da-ta
Jaunak ordain dezaiela.

MONJA ZAPATARIA

(CSoror Trinidad'i Urrezko Eztaietan)

Bi Monjatxo ikusi
 nitun bein batean,
 laister sartzeko ustez,
 zeruko atean.

Onak zirala, ez da
 esan bearrikan;
 bestela etzeukaten
 an sartzen lanikan.

San Pedro etorri zan,
 libru bat eskuan...
 nere monja gaxoak
 zer trantze estuau!

Librua irakurriz
 or zer esan zuan :
 "Tira, biok barrura
 armoni onean.
 Zu oñutsik; zu, berriz,
 zapatak soñean".

Aingeru txiki batek,
 jakin-nai antzean,
 orla zion Pedro'ri
 belarri-ertzean :
 —Zapatak zertarako
 ditu ba zeruan?...
 Beste iñork zapatarik
 jazten ez bait-zuan...
 —Ori ere gaxo-orrek
 jakin bear uan?
 Esango diat bada
 itz bitan beingoan.

Monja umillagorik
ez uan munduan;
zapataria uan
bere Konbentuan;
eta an jarduten zian,
narru eta ezten,
monjatxoen zapatak
konpon eta josten...
Ta ori zegokiok
Monjen zapatari
Jaungoikoaren riaiez
an izan danari :
"Zapatagiñan jardun
dezu Konbentuan?
*zapatak eta guzti
sar zaite zeru»ni*"...

Orra, Trinidad Aizpa,
San Pedro'ren itza...
ori ez dezu gero
txantxetako ditxa...

Monja aiek bezela zu
etzaitel a estu;
*zapatakin zerua
irabazi dezu.*

SANTA AGEDA

Agur, etxeko jende leiala :
Santa Ageda'ren eskea,
kantuz goi-gora jaso dezagun
gure Martiri maitea :
berak danontzat eska dezala
osasuna ta pakea.

Katanitarrak angoa dala,
Panormikoak berena.
Sizilika'ko lore guzitan
Ageda zan ederrena.

Gorputzez eder Ageda,
biyotzez, ai! ederrago;
Kintziano Buruzai gaztea
dana zoratua dago.

Bañan Ageda kristau izaki;
ta bera jentil gaiztoa :
—Zeñek jentilduko ote-dit neri
nere Ageda gaxoa?

Aprodizi sorgintzarra
alegiñez saiatzen da.
—Nik alegiñak egiñagatik,
len bezin garbi Ageda.

—Aprodizi: zuk ezin badezu,
neronek dakit zer egin :
begi-ondokoz dana uheldu;
urren burni goriakin.

... Atera beso-ezurak,
gero ebaki bularrak.
nexka gaxoak inkikan ez du
bañan bai lotsa gogorrak.

—Olako gogorkeria lotsak
bear lizuke galazi;
aztu al zaizu, aurra ziñala,
amak nola zindun azi?

Alper-alperrik egiñak
liintziano'n alegiñak;
zerutar batek gauez agertu
ta sendatu dizkio miñak.

—Zeruak orla sendatzen duna,
berriz zauritu nai dezu?
Orrenbeste biotz-gabekeriz
lurra ikaraz daukazu.

Len zauriz, orain geiago ;
gaixoa azkenetan dago...
—Jesus maitea : gertu naukazu
gaur zure eztaietarako.

Len. Sizili'ko lore guzitan
zan lorerik ederrena;
orain zeruko izar-soroan
dan izarrik argiena;
berak, iltzean sartu gaitzala
zeruan zuzen-zuzena.

IX SINFONIARAKO ITZAK

«An die freude» CP. Schiller)

Zeruko alaba zera,
 zerutik etorria;
 Jainkoaren arnas bera,
 Jaunaren far-irria.

Poza, poza, poz ederra,
 atoz zerutik azkar,
 zure egopean baturik
 maita dezagun alkar.

Lagun onak pozten gaitu,
 poztutzen emazteak;
 ederrak poztutzen ditu
 zarrak eta gazteak.

Bijoaz gugandik uírun
 itsuz-zale diranak;
 pozari kantari gatoz
 eder-zale geranak.

Bizitzari nundikan-rtai
 poza par-par dario...
 Ardo-txurrut ta laztan bat
 nori ukatzen dio?

Zeruko Aingeru eta
 basoko ipixtio,
 guztiok poztutzen dira,
 poza due g居ztiok.

Poza due oskarbian
 zeru goiko izarrak,
 korrikari azkarrak
 korrika-yoku gai-bian.

Zeruko alaba zera, etb.

Danok laztandu gaitezen
 pozaren egopean...
 Aitaren babesean
 nor ez da pozez betetzen?

Goian degu, zeruetan,
 danok Aita deguna :
 Berari maitasuna
 betiko gizaldietan.

Zeruko alaba zera, etb.

Lagunak!
 urrun illunak!
 Kanta ditzagun
 kanta alai poztunak.
 Gora ALAITASUNA! !

EUSKO-LANGILLE

(Ereserkia) (Saritua)

Eusko-langille :
 iagi adi, iagi!
 Ta Askatasun-Eguzkiak
 egingo dik argi.

Eusko-lurrean, goi
 ta beko nagusi
 egin indun Urtzik;
 gaur nork egin au morroi?

Eusko-langille :
 iagi adi, iagi!
 Ta Askatasun-Eguzkiak
 egingo dik argi.

1. Aita batek sortu gindun,
 Goiko Aita laztanak;
 seaska baten lokartu
 danok Euzkadi Amak.

Ar bezá gure laztana
 anai izan nai duanak;
 azpira ditzagun, morroi
 nai ginduzteken danak.

2. Maite degu itxas zabala,
 maite degu mendia;
 maite ibaia; ola maite;
 maite, bai, baserria;
 samurkiro maite gure
 umetxuen kabia...
 Maiteena Askatasuna,
 euskoen Eguzkia.

ELKANO ANAIA

Median zear ta larrez-larre
 nenbillelerik lenguan,
 artzai jator bat topatu nuan :
 ille zuria buruan,
 ortzikan gutxi abuan,
 okotz etena musuan;
 galtzetegin-ta, galtzetegiten,
 arditxoai so zeguan.

—Begira, artzaitxo, zuek artzaiok
 izar-zale omen zerate;
 ala izango da, ala izan bear,
 guziak ala diote.
 Ain xuxen gai orrettantxe,
 erantzun nai badezute,
 bertsolariak gaur galdetxo bat
 pozik egingo dizute.

Itxuraz geldi egonagatik
 (Jaungoikuaren almena!)
 laister-apustu izugarrian,
 bala bat bezin zuzena,
 luraren biran dabiltza izarrak,
 bat bestearen urrena.
 Lasterka ortan, artzai maitea,
 zein izan da bizkorrena?
 Asieratik nor izandu zan
 bira ematen aurrena?

Galde orri artzaia
erantzun baño len
txapelari bi bider
eragin ojtxdoñen,
beste bitan kopeta
zimur-leundai zuen.
Geró:• —Adiskidea,
bertsolari arren,
artzaia batén galdea
egin dezu emen...
Artzaiaik bertsolariz
dizu erantzunen.

Zeruko izarretan
ez dakit nik zein zen;
bañán itxasoetan
euskaldun bat omen:
ontzi baldar batean
guztietan aurren
munduari itxasoz
bira bi ematen,
Ketari'ko semea :
ELKANO'tar Xaxtien",

Azken-itz onek nik ez dakit zer
egin zidan biotzean :
gizon ospetsu baten izenak
artzaieren ezpañean,
anai zarrago baten izena
besterik etzirudian.

TXINA'KO MIXIOLARIA

Bi amonak : —Orla beraz? —Bai, ortxe,
lengo gelatxoan,
etxeko azken-loa
ortxen egin zuan.
Gau bat opa zioten
amaren ondoan,
Gabon, eta azken-gaba...
Ondo det gogoan :
biaramon-goizean
Txina'ra zijoan.

Amon-illobak : —Gaur Gabon al da, amona?
—Gaur Gabon, bai, Txomin,
—Ta etorriko al da
osaba Joakin,
igaz bezela? esan,
Santu askorekin?
...Mixiolari-amak
zer esan ez jakin,
ta maia jartzeari
bixkor dio ekin.

Afari-aurrean : —Amona : or jarriko
al naiz, zizalluan,
igaz osaba Joakin
egon zan lekuan?
"...Antxe, bai, berak antxe
afaldu bait zuan .".

Amona bakarrik : —Gabeko amabiak...

Eta gure etxe
guztiok lotan daude...
Ni ere pakean
nuan oraixitxe...

Oiera-bidean,
Txina'ko semearen
gelako atean
argia... Ene, bada!
Án zer zitekean?

Anka-punttan, ixilik,
amona an dijoa.
—Semea ote da, ba?
—I Semea? Gaxoa!
Oetxo biguñean
lo Jesus Aurtxoa.

MOZART'EN KANONA

Gaur ollo beltak errun du :
 beltak esiera eman du :
ka-ka-ka-ri\ ka-ka-ka-ratl
 Ama, badugu arrautz bat.

Txuriya ezta atzen izango :
 laister du beria emango :
ka-ka-ka-ra
kaí-ka-ka-ri!
 Ama, orra,
 baditugu arrautz bi.

Nabarrak ere,
 kabiyan ixil,
 aldian du,
 larri-larri dabil:
kaj-ril
ka-ra!
 Orra, irutara
 eldu gara.

Orra denak errun :
 gutxinez berreun :
 uxu! —uxa! — uxu!...
 Jan ditzagun.

LIZARTZAREN ETORKIZUNA

EZTABADA BERTSOTAN

(Aurreskuko «Kontrapasa» bezela)

Fernando : Aizak, Domingo, lagun zarra :
 Lizartza omen diagu berritu-bearra...
 Lengo zarrean, berri-bearrean
 ez al ukana erri bat, munduan bakarra?
 Lengo izaera dana kendu nai diozute?
 lengo antzik gabe dana utziko diguzute...
 Txorakeriok utzirikan,
 jarrai zagun lengo bide zarretatikan.

Domingo : —Ondo diok, ondo, Fernando;
 lengo bide zarrikan guk ez diagu jango.
 Baiñan, lengoak, eta oraingoak,
 euskal-kutsu danak laister zaizkiguk juango,
 Gazteak, dpnbora, zarrak jabetzen ez bagera,
 gure izakerak laister dituk errekan-bera.
 Ori dek, guk nai gendukena :
 euskal-kutsua gorde alik osoena.

Fernando : —Domingo, biotz-biotzeko :
 pentsa ditzagun gauzak, or lanean asteko,
 asita gero, ero eta bero,
 gerta éz gaitezen "ez zeru^ ez lurreko".
 Lizartza erriak etzeukak berritu-bearrik;
 nere iritzia garbiki esango diat nik :
 nere biotzeko Domingo :
 frakaso gorri-gorri bat dezute egingo.

Domingo : —rOrain nere txanda, Fernando :
 nik ere iritzia garbi diat esango :
 kultura-gaiak eta bizi-naiak

ez dik iñoz iñun frakasorik emango.
 Luzatu lezakek, baiñan azkenean garaitza
 erriarena dek, naiz igaro bear ekaitza...
 Fernando biotz-biotzeko :
 gauzak pentsatuak zeudek lan au asteko.

Fernando : •—Kultura aipatzen dek, Domingo...
 Kultura zer dan, Lizartzan nork ziguk jakingo?
 Itz goituegi, guretzat geiegi
 ez ote diagu ori Lizartzarako?
 Alper-lanik, gero, ez diagu egin bearrik;
 Kultura ez diat uste guretzako dagonik;
 "konpittiak ez daudelako
 ikulluko asto zarraren aorako».

Domingo : —Eskerrik asko, lagun zarra!
 astoak gaituk zuentzako gaur lizartzarrak;
 zuen bototik, ikulloan beti
 asto zar bezela ortxe bizi bearrok.
 Baiñan gaurko oiturak ez dik olakorik agintzen;
 erri txikienak ari dituk buru-argitzen...
 Ez dek, nere lagun Fernando,
 Lizarta Kultur-gaietan azken izango.

Fernando : —Ametsetan bizi zerate,
 olako gauzarik emen uste badezute.
Domingo lagun : aztu ez dezagun
 "Usteak, erdia ustela" dek esate.
 Zuen amets oiek ez dizkik iñork ikusiko
 Lizarta batean egi egiñikan betiko...
 Gauden lengo bide zarretan,
 bestela galduko gaituk alper-lanetan.

Domingo : —Ametsetan bizi gerala?
 zuek, berriz, betiko lotan bizi zerate.
 Ameslariak zerbait egiten dik;
 lotan dagonak, loa beretzat dik kalte.

Gaur dan egunean etzegok lotan egoterik;
 erne ez dagonak emen puntu asko galtzen dik.
 Utziguzute ametsetan,
 zuek lo zaudeten ordu alper oietan.

Fernamdo : —Arrazoi dek, lagun Domingo :
 nik ere bide orri gaur zioat ekingo.
 Oitura zarrak, guk zaitu bearrok,
 nola zaitu gazteok diagu jakingo.

Domingo: —Ondo zegok ori, Lizartzaren on aundirako;
 oso ondo zegok, danon pake on baterako...

Biotk : —Bota, bada, bosteko ori!
 Danok jarrai dezaigun, bai, bide orri!

MAITE

(euskeraz)

(Sorozabal)

Zure izen polita
 entzun nuanetik bis
 biotzian josita
 daramat beti nik.

Maite : il nadin arte
 etzaduzkat nik zu azturik;
 beti maiteko zaitut
 gazte gerala, naiz zarturik.
 Zoritxar batez ilko
 banintza zugandik urruti,
 zuregana berriro
 laister nintzake ni zerutik.
 Maite! Maite! !

BIZIA, MAITE-IRRIA

(Irukote)

I

Joan da negu;
 jaio da lore
 —txuri ta gorri bait-du kolore—;
 Joan da negu.
 Etorria da
 Udaberria
 —illikan zegon Izadiaren bizigarria;
 Jaunak zerutik lurraldi opa dion irria—.
 Udaberria
 or etorria!...

II

Maite:
 leiora zaite
 ikus zaitzadan,
 nere lorea, nere txoria,
 Jainkoak neri opa-irria.
 Maite,
 nere usoak :
 zakit leiora;
 gero atera,
 ta, gero, ondora...
 Atozkit laister aldamenera,
 biok batera
 kanta dezagun
 Bizitzearen kanta ezzia,
 loratu dedin gugan bizia...

m

Joan zan negu;
joan zan, baita, Udaberria.
Len irri-murritz Egun-sentia;
gaur irri-bete goi zabalean ditzizaria
Jaun Eguzkia...
Udaberriko sagar-lorea,
Uztan alea
—muxu-gorri bait-du kolorea—
Alaxe nere, orduko maite, gaur emaztea.
Len bera lore;
orain, besoan lorakumea
—bioen seme maite-maitea—.
Zoragarria!
Amaren ale, aita berria ..

Au da bizia :
Jaunak zerutik opa oi-digun maite-irria.

DANTZA

(Ballet)

—Gazte!
 leyoratu zaite
 lenbaitlen!
 Begira
 zure ikustera
 zenbat lagun gaur geraden.

—Anai
 etorri diranai
 goraintzi!
 Bakarrik
 bizitzeari
 ia diot on-iritzi.

—Maite!
 plazaratu zaite;
 soñua
 astera dua,
 ta dantzari-lerroan
 or da zure lekua.

—Dantza!
 biotza gorantza
 jas baten
 jasotzen
 denan sorgiña!
 Senda al ba-denan nere miña!...

Nere maite kutuna dantzara dijoanean,
 illargia izar-arteau...

Dantza! dantza!
Pennin Enparantza!
Oñetan zuk dezu
aingeruen antza.
Goraintzi zuri!

Ari! ari!
Iñaxio Mari!
Trentzetan ez dezu
berdiñik dantzari.
Zuri goraintzi!

Ola! ola!
Joxe Barriola!
Ikusgarri dezu
zure kabriola.
Goraintzi t'erdi!

—Maite!
etxeratu zaite
lenbaitlen.
Gaxorik
dagoanari
otzak ez dio on egiten.

—Maite!
lasa egon zaite!
eztet nik,
zugana
nere laztana
biotzak nai, beste miñik.

DEBUSI'REN IRUKOTERAKO

I. *Izadia* :

Bai zeratela ikuskarri
 eguzkitan, zera ta itxaso,
 zelai, muño, mendi ta baso,
 ibai, erreka ta iturri
 Nor ezta zuen egarri?
 zuen ederra nork ez jaso?
 bai zeratela ikuskarri!...

Jaunak egiña, ain zar izanik,
 Ama Izadi maitagarri:
 munduan al-da Dama ain apañik,
 zu bezinbat apaintzen danik.
 Beti zar, ta beti berri...
 Oh, bai zerala ikuskarri.

II. *Gaztetasuna* :

Entzun baneza goizean
 kanpai-ots Besta Berriko,
 "zertarako naun yaikiko?"
 nioke nere epelean,
 «Oraindik goiz den' oiean
 goxoago naun arkiko"..."
 entzun baneza goizean
 kanpai-ots Besta Berriko.

Goizago entzun baneza
 erromgsen irrintziña,
 "Nik ere yun bear diñat
 Yondoni'ren Erromesa"..."
 Entzun baneza goizean
 kanpai-ots Besta Berriko,
 "zertarako naun yaikiko?"
 nioke nere epelean.

Negu zarpail, trakest ori:
Udak esku goxogo dik;
arek, bai, larruleun; ez ik;
nundik dek ik soin latz ori?

Udak jaztén dizkit oro
—baso, mendi, zelai, soro—
lore, osto, belar, ofriz
—txuri, urdin, eta gofriz—,

Ik ez, Negu; ik estali
elurrez, txingor, izotzez,
eta txoriak il otzez...

Orla nork au maiteko i?
Negu zarpail, trakets ori!

DOÑOSTIYA'RÍ SAN SEBASTIAN EGUNIAN

*Donosti-egvma zan;
ta egun guztiyan
ba'zan zalapartarik
gure Donostiya'n.*

Danborra jo-ta-juaz
ibilliyak ziran
gizon bibotedunak
gau guztiyan jiran.

Ikuskarri ederra
uraxe benetan!
bañan ez txarragua
egunian bertan
kalerik-kale eman
zutena txikiyak
gizon aundiyengandik
ondo ikasiyak.

Lasalletarrak ziran,
mutiko prestuak
—danborra jo ta jotzen
azkarrak eskuak—.

Jakin nai al-dezute
nola jotzen zuten?
Erne! Iya ondotxo
entzuten dezuten.

Donostiya'k ez du berdiñikan
tan-parran-tan-tan-tan-tan-tan...
Donostiya'k ez du berdiñikan,
tan-parran»tan-tan-tan...

Donosti! Donosti!
tan-parrapatan-tan; tan-parrapatan
Donosti! Donosti!
tan-parrapatapan-tan-tan...

Donostiya'k ez du berdiñikan...
Ez da erri politagorikan,
politagorikan, politagorikan;
ez da erri politagorikan
Europa guztiyan.

Aupa! aupa! gure Donostiya!
aupa! aupa! gure Donostiya!
tan-parran-tan-tan-tan...

Esku-turrak arin, eta
danborra juaz gabiltzen,
Donosti Zar eta Berriya
danbor-soñuaz alaitzen
tan-parran-tan-tan-tan...

Jaunak
jarri zinduan
itxas-onduan
begi pozkarri;
eta jarri zuan
Santu bat zeruan
zuretzat Zaindari on
eta lagungarri. Bai!

Donostiya'k ez du berdiñikan. .

BIZKAYA'REN AREBJYUA

Gorbeya, Anboto, Bizkai'fco mendiyetan
 gaur entzun dogu lekayua :
 "Gazteiz'tikan Burgos'a
 galdu dala, galdu
 Bizkaya'ren areriyua".

1. Areriyo bat dauka Bizkaya'k
 birrindu gure leukena;
 bolu-arriya mendiyan bera :
 Mola dau bere izena.
 Gorbeya...
2. Areriyo bat dauka Bizkaya'k
 triskantza gura leukena;
 otso goseti arkuma-artian :
 Mola dau bere izena.
 Gorbeya...
3. —"Neuk apurtukot Bizkai guztiya
 Mola dodan lez izena" ...
 —"Apurtuik; bañan ur dok eguna
 eu apurtuko azena" .,.
 Gorbeya...
4. Lemu-atxetan odolez gorri
 otatzak eta ezpelak...
 Burgos-bidian autsetan loitu
 Mola'ren azur-okelak.

Gorbeya, Anboto, Bizkaiko mendiyetan
 gaur entzun dogu lekayua :
 "Gazteiz'tikan Burgos'a
 galdu dala, galdu
 Bizkaya'rjen areriyua".

EUN DUKAT

ERESIDUN ANTEZERKIA

BI EKIÑALDJTAN

Bi anai LEKUONA'k egiña

I EKITALDIA

(Ezker-eskubi, basoa. Ezker-aldera, borda zasharra. Eskubiko zuaitz-artean, bestea baño nabarmentxu-ago, piku-zuaitz bat, osto-zabal. Eskubi-aldean, erritik datorren bidea; ezker-aldean, mendira, Aritzulegi'ra dijoan bidea. Borda-atadian, enbor bat, exertzeko).

I AGERRALDIA

Iratze-ebailleak, igitaiak eskuan.

(Goiz-aldea da. Barrengo aldetik irrintziak. Ibillian, datozaela).

DANOK (*Abestuaz*)

Jeupa, jeupa! irrintzika
iratzebailleak erritikan;
jeupa, jeupa! irrintzika,
zatotik ttantta bat egiñikan,

BATEK :

Goizean goiz, aizkaturikan
atso ta agureak leyotikan
galdezka daude arriturikan
zein ote-datorren erritikan,
erritikan.

DANOK : Jeupa, jeupa!..

BATEK : (*Bertsolari-antzera. Besteak entzuten. Kopla bukatzean, danok ondo abestu dualako keñuak egiñaz*)

Sasoi onaren jabeak,
napar beltzaren zaleak,
naiz igitayan,
naiz belagayan
iñun berdiñik gabeak,
ristikiti-rrasta, bristikiti-brasta (igitai-keñuak egiñaz)
gu gera iratzebailleak.

DANOK : Jeupa, jeupa!...

BESTE BATEK : Erale oso garbiak;
 bañan lanera jariak
 ixtanpatean,
 lau egunean
 soiltzen ditugu mendiak
ristiti-rrasta, bristiti-brasta
 mozturik zuztar guztiak.

DANOK : Jeupa, jeupa!...

BESTE BATEK : Goizetikan arratsera
 mendi batetik bestera,
 egi ta kasko,
 bai eta asko
 eluts eta egutera
ristiti-rrasta, bristiti-brasta
 etzaten degu lurrera.

DANOK : Jeupa, jeupa!...

(*Bijoaz mendira*)

II AGERRALDIA

Ramus bakarrik

(*Artzaiz jantzia bordatik irten, eta asi hedi ábesten. Gero exeri bedi, pipa erreazi.*

RAMUS : 1) Zoragarri, ederra
 zitzaidan len menditik
 eguzkiaren sorrera
 egun-sentian...
 Egun-sentiak,
 eguerdiak,
 denak dira neretzat
 gau illun eta beltzak...
 Argia zer dan aztu dute
 nere begiak.

- 2) Txoragarri, polita
 zitzaidan len, baratzan
 krabelin-lore gorri ta
 lili txuria...
 Lili txuriak,
 krabelin gorriak,
 denak gaur zaizkit neri
 utsa bezela iduri...
 Lorea zer dan aztu zuten
 nere begiak.
- 3) Maitagarri benetan
 zitzaidan len aurtxoen
 begi ta ezpain-ertzeten
 maite-irria...
 Maite-irria,
 musu gorria
 asper ta etsigarri
 zaio gaur itsuari...
 Irria zer dan aztu dute
 nere begiak.

(*Izketan*) Egun aundia gaur mendian. Iratze-ebaiteak. Eguna argitu baño len or igo dira goietara baserritar—sail mardulak. Zumea baño biguñagoak aien gerriak... Gazteak izaki... Garoak gorritzen asiak dira nunba.it. Etxango da gaur ederrik! (*Gogartetsú*). Igoko da agian, guretarren bat ere... (*Jaákita*) Lotsagaria! Ez dut oroitu nai ere* (*Azkeneko itz oek esanaz, bijoa mendi-aldera*).

III AGERRALDIA

Ramus ta Austin

- AUSTIN. (*Sar bedi erri-aldetik*). Agur, Ramus! Oraindik ibiltzeko aña ikusten duk, orratik... (*Mendi-aldera joanaz biok*).
 RAMUS. Arraioa! Austin aiz, nere aurtzaroko laguna! Gaur bezelako egunez, urtean bein bestetan ez aut ikusten. Ikusi... oraintxe

nere begi oek ez ditek ia ezer ikusten. Makillaren arrimoan etxe-inguruko lizarretaraño eltzen nauk, eta besterik ez. Bakarrik al-oa?

AUSTIN. Bi seme aurretik joanak ditit. Sailla markatzeko naikoak gaituk.

RAMUS. BO... Kontxo-kontxo, Austin... Ta Urkabe-atzean ongi?

AUSTIN. Urkabe-atzean ongi, Jaunari eskerrak. Bañan zahartu gaituk, Ramus, zahartu gaituk... (*Itzak basoan itzali bitez*).

IV AGERRALDIA

Petri bakarrik. Gero Ramus.

PETKI. (*Gaztea da oraindik. Errietaho langilleajc bezela, urdiñez janitzia*). Eldu nauk oraintxe. (*Bordako ateari*) Eup! (*Barrura sartu-atera bat egiñez*). Etxegok barruan. Alde guztietara ere, ez duk urrutti izango. Nere ojua entzungo ziken. (*Exerita zigarro bat egiñaz*) Ortxe, pikope ortantxe zeuzkak gure osabak eun dukat. Emen bizi nintzanean, ortxe ikusi oi nikana goizero, makur-antzean, osorik ote-zeuden begira. Bigar ez dizkik or idoroko. Eun dukat oiek gabe, ez duk gaur Petri errira jetxiko... Ba'zekiat, Ixteben apaiz-gaia sarritan etortzen dana goi oetara osaba txurikatzena. Eun dukaten billa ibilliko duk. Etziotela onik egin bear. Gaur bertan eramango dizkiat nik pikope ortatik. Orain arrera ona egin bear zioat osabari. (*Jeikitm*) Gaurgero emen duk. (*Bidera begird*) Bai, emen zetorreka. (*Ramus'i*) Agur, osaba.

RAMUS. (*Sartu gabe*) Petri aiz. Itzetik ezagutu aut. Biotzak ematen zidaken gaur mendira azalduko intzala. Osaba zaharra irekin egoteko zaletua zegoken oraintxe. (*Azalduaz*) Petri, nere illobetan maitiena! (*Bizkarrean joaz*) Iratz-ebaitera?

PETRI. Bai; aurten Sarastikoakin noa.

RAMUS. Ederki egiña. Emen joan duk aristian sail ederra. (*Izketa aldatuaz*) Erri-aldean ongi?

- PETRI. Ni ongi, osaba; oso ongi erri-aldean.
- RAMTJS. Izan ere galdera egin diat orixe! Ongi izango ez aiz, ba? (*Besteru*) Exeri adi enbor orretan. Ik ez duk presarik (*Exeri bitez bioh*).
- PETRI. Zigarrotxo auxe erre arte egongo naiz.
- RAMUS. Osaba Ramus'en bordan zerbait artu beaf duk gañera... Go-goan al-duk, Petri, osaba Ramus'en borda zaharra. Bestelakoak dituk kaleko etxeak, *e?*...
- PETRI. Gogoan izango ez dut ba? .
- RAMUS. (*Xamurki*) Arraioa! Ondo gutxitan etortzen aiz ba, orain, Petri, mendira? ba'zirudik aztu zaikela oso osaba zaharra?
- PETRI. EZ, osaba, aztu ez...
- RAMUS. A, bai; ik ez duk maite mendia .. Erriak ostu ziken iri biotza. Gizagaxoa... Zuen aita zetorkidak burura.
- PETRI. Gure aita?
- RAMUS. Entzun akidak aren edestia. Iru anai giñukan gu: zuen aita ni, eta gazteena, Anton. Au Ameriketa'ra joan ukana. Zuen aitak baserrirako gogo gutxitxo zikan. Erria zeukaken ark beti gogoan : erriko lantegiak, basetxetako soroak baño geiago ematen omen-ziteken.
- PETRI. Osaba : buruz ere ba'dakit edesti ori. Milla bider entzun dizut.
- RAMUS. Ikasi zak, ikasi zak ongi... (*Jarraituaz*) II ukana aitona. Andik laister saldu zikan zuen aitak gure baseria. Nik mendira alde egin nikan. Borda zahar au eta eun ardi izan itukan nere seni-parte. Zuen aitak, errian, ainbeste amesten zuan errian egin, zikan bere kabia. Antxen etorri ziñaten mundura i ta Ixteben.
- PETRI. Dcusten duzu, osaba; kaletarra nauzu ni ere.
- RAMUS. Zoritzarrez, bai.

PETRI. Zoritzarrez?...

RAMUS. Ongi ala ere.

PETRI. Zergatik, osaba?

RAMUS. (*EZ dio' jaramonik egiten. Edestiari jarraituaz*)... Bañan arrak joa zegoken zugaitza. Lantegietako kirats gaiztoak ondatu zizkiokan birikak, eta azkar etzan zikan gizagajoa oiean bularrerekakoak. Luzea izan ukanaaren gaitza. Egun batez, gabeklik goizera, illotzik arkitti zitekan oiean. Gizagajoa! (*Ixil-unea*). Zuen ama gaxoak ere etzikan luzaro iraun lurrean. Bearrak eta naigabeak azkar eraman zikan ura ere senarraren ondora. Zuek umezurtz gelditu ziñaten. Ixtебen, Don Jose Antonio Apaizak artu zikan etxeko. I, nere albora bildu intzan. Zortzi urte itukan orduan. Azi intzan. Borda zahar onen itzalean bizi izan aiz orain arte, ementxe osabarekin, eta... (*Ixil bedi Ramus... Petri'k entzun bezaio arretaz*).

PETRI. Bukatu al-duzu?

RAMUS. EZ diat jarraitu nai... (*Ixil-uned*). Asko irabazten **al-duk?**

PETRI. Bai, poliki

RAMUS. Gutxi aski dik gizoTrak bizi izateko. (*Urrutira entzuten asten da Ixtебen'en abestia, "Txoritoa, norat oaV"...*). Aberasteko biderik zuzenena, griñai gogor egitea duk, seme. Jaso eitzak ondarrak gerorako. Noizpait ere bearrean arkitu inteka. (*Bellarria ernetuaz*) Ixo? (*Pixka batean ixillik*) Ixtебen zetorreke.

PETRI. Ixtебen?

RAMUS. Bai, aren kantua duk. Ezagutzen diat. Askotan etortzen duk ura mendira, ni ikustera.

PETRI. (*Jeikiaz*) Ni ba'noa, osaba.

RAMUS. Ba'oala?

PETRI. Bai; berandu dut.

- RAMUS. Anaia etorri arte egon adi, beintzat. Biok alkarrekin joango zerate.
- PETRI. EZ, ez... joan bear dut.
- RAMUS. Bañan ezer artu gabe? Ez, ez aiz joango. Amur emaiok osaba zaharrari.

V AGERRALDIA

Lengoak eta Ixteben

- IXTEBEN. (*Oso alai. Ari bedi beti anaia zirikatzen*) Jaungoikoak egun on, osaba.
- RAMUS. Baita iri ere. Ixteben. Ator, ator.
- IXTEB. (*Petri ikusita*) Oi? i ere emen? Ongi alago, Petri?
- PETRI. (*Legor*) Ongi; ta i?
- IXTEB. Ederki, Jaunari eskerrak. Asko poztutzen natxiok, Petri, i emen ikustea. Alkarrekin joango gaituk.
- PETRI. EZ. Bereala joan bear diat.
- IXTEB. Zer? gaur ei-e laisterka al-gaituk? Arraietxea! Ez duk errez irekin egotea. Iru illabete ba'dituk, Seminariotik etorri nintzala, eta oraindik bein bestetan ez gaituk egon alkarrekin. Nun abil, motell?
- PETRI. Lanean, *ermmno*, lanean. Ez, zuek bezela alperrerian.
- IXTEB. Arraiea! (*Ramus'i*) Lan gogorren batzuek darabilzki, osaba, gure anai onek.
- RAMUS. Ja, ja! "Gau ta egun" ariko duk, nunbait. Zaudete pixka bat. Berelaxe ekarriko dizutet gazta ta ogi pixka bat. (*Bijoia bordara*).
- IXTEB. Xinixta akidak, Petri. Askotan izan nauk Landibar'en igarotako egun oetan, eta pozik egingo nikau berriketaldi on bat

irekin, iñun arkitu izan baindut; bañan nik etzekiat non egoten aizen sartua.

- PETRI. Zer nai duk, ba? Ni ere ezin egon ba beti ire zai.
- IXTEB. Zai? (*Parrez*) Esaidak egia, Petri: zenbat aldiz egin duk iges ni ikusita?.. Izan ere, apaizgai "alperren" artean ez duk ik ongi ematen.
- PETRI. Nere lagun-arte, "langille-arte" duk, *ermano*. Langille dan guztia duk nere adiskide.
- IXTEB. Osaba Ramus, adibidez.
- PETKI. Aizak; osaba Ramus, ik baño maiteago diat gero nik...
- IXTEB. Motell, ez gaituk orregatik aserretuko. Maita zak, maita zak, gizagajoa, ongi merezi dik eta. (*Aldatuaz*) Ederki, Petri, ederki. Eta noiz egin bear diagu *reparto-sociai* edo dalako guzion dirubanaketa ori?
- PETRI. Ik egin zan parra; bañan larri ibilli bearrak zerate laister apaiz-jendeak ere.
- IXTEB. Nik beintzat izango diat laguntzalle ona iregan, ez al-duk ala? Gañerakoak ere izango al-ditek, i bezelako anai onen bat... (*Betor Ramus*).
- PETRI. Gizon guztiok gaituk anai.
- IXTEB. Egi aundia; bañan ama askorenak.
- RAMUS. Eutsi. Egin zugun gosari. (*Gazta ta ogia eskeñiaz*) Artzak, Petri. (*Ixteben'i*) Goiz, arraietxe, gaur mendi-aldera, Ixteben?
- IXTEB. Bai; Penadegi'ko apaizgai lagunak ots egin dit. Egun oek ikusgarriak izaten omen-dira mendian, eta iratzebailleen artean igaro bear omen-dugu gaurkoa.
- RAMUS. Ederki zerizkiot.
- PETRI. A, zer bi langille!

IXTEB. Izan ere : jantzi beltza degunok, ez gaituk ezertarako gauza. Ez al-zenekian ori, osaba?... Bañan nik oraintxe bertan jokatuko nioke olaetaco jantziurdindun edozeñi, zeñek garo-zama audiagoa bizkarrera jaso.

RAMUS. Ja, ja, ja, ja! Arraio, arraioa!

PETRI. Jan-edanean ere jokatuko liguteke ederki, Ixteben' ek eta bere kideak.

IXTEB. Edanean, etzekiat. Olaetako tabernaetan beintzat ikusi izan dizkiat nik moskorrik ugari. Gure apazgaitegian oraindik ez duk tabernarik jarri.

PETRI. Galerazia zegok-eta... Utziko balute, e?

IXTEB. Zuen artean, galerazteko gizonik ere ez, berriz. Lantegi al-dituzute tabernak ere? edo-ta, bestela, zuen txanponen banaketa egitera joango zerate ara...

RAMUS. Ja, ja, ja! Leku onean abil, Petri, apaizgaietan.

PETRI. (*Jxillik, ezin-egonean bezela*).

RAMUS. Ea, ba, Ixteben, iri ei-e atsegin baño naigabe geiago ematen ez ote-diteken, gero, iratzebaiteak?

IXTEB. Zergatik, ba?

RAMUS. Iratze-ebaiteak asten diranean, Sanmielak ere alderatzen baitdira, eta Sanmieletan ba'dakik nora bearrik izaten zeraten apaizgaiok.

IXTEB. Ja, jai! (*Algardz*). Danoi etortzen zaie beren Sanmiel edo San Martin, osaba.

PETRI. Neri ere etorri zait oraintxe. Ba'noa.

IXTEB. Bai al-oa?

RAMUS. Oa, ba, Gaztea aiz, eta oraindik arrapetuko dituk atzetik ire lagunak. Egin lana gogotik; eta illunabarrean ba'dakik, azaldu bordara. Zai egongo nauk.

PETRI. Bai, azalduko naiz.

IXTEB. Etxerakoan alkarrekin joangfio gaituk, Petri

PÉTRI. (*Erantzun gabé*). Agur, osaba.

RAM. IXT. Agur, Petri (*Jarrai bezaiote begira*).

VI AGERRALDIA

Ramus ta Ixteben

(*Argitu du osoro*).

IXTEB. Gizahaxoa!

RAMUS* Ondo ala-re! Aldakuntza ederra egin dik gizahajoak. Iges egin zikan menditik, eta gaiztakeria besterik ez dik ikasí errian. Zorigaiztoan jatxi ukán. Beltza zekusat oren etorkizuna.

IXTEB. Utzi itzatzu gogapen itzal oek. Berea du errua.

RAMUS. Nork zekik ori? Ondorenak beintzat Ramus'ek ere ba'zeramzkik bizkarrean. Zahar eta erdi-itsutua, bakarrik arkitzen nauk mendian. Ain xuxen, iñoren laguntza-bearra nabaitzen asi nintzanean, orduantxe iges egin zidaken albotik. Ingueraetako auzoak egiten zizkidatek artzai-lanak geroztik.

LXTEB. Penagarria da, bai.

RAMUS. "Ardiak saldu", esaten zidatek. Etsiko al-nikek ardirik gabe? Negar ere egingo Mkek Ramus itsuak ardiak saltzean.

IXTEB. Nik al bamí

RAMUS. Ez, seme, I Jaungoikoak autu au beste artzantza baterako. Jarrai akiok bide orri. Osaba baño lenago duk Jaungoikoa.

bTEB. Egia,; (*Ixil-unea*). Goibeldu egin gaitu oroipen onek, osaba. Jo dezagun beste zeozertara.

RAMUS. Bai, seme : "aurpegi argi ekaitzari" : orixe duk onena.

- IXTEB. Eguzkia ere mendi-gañetik agertu da, eta joan bear dut orain-
txe nik ere. Penadegi'ko apaizgai laguna zai edukiko dut
gaurgero.
- RAMUS. Nik ere, eguerdirako baba egosten jarri bear diat... Ator i
ere illunabarrean.
- IXTEB. Bai, orixe. Eta gazta zar bati erasteko ortzak zorrotz ekarriko
ditut gañera. Agur, osaba. Egun ona igaro (*Bijoatz biok*).
- BAMUS. Agur, Ixteben, nere illobetan zintzoena. (*Bijom Ixteben rtven-
di-bidetik. Baita Ramus ere poliki-poliki borda-barura*). Ba-
karrik biziko naiz munduan. Bañan nere dukatak ez dira
Petri'rentzat izango... (*Sar bedi*)

VII AGERRALDIA

Petri bakarrik

- PETRI. (*Zuaitz-artetik irten eta, makur-antzean eta bildur xamar*) Entzun diat dana. "Nere dukatak ez dira Petri'rentzat izango". Laister ikusiko diagu ori... Pikope ortantxe zeudek gor-deak. Poltsa uts auxe utziko zeoat. (*Makur-makur bijoa gor-de-lekura, aldamenatarra begira*) Ez duk ageri iñor. (*Poltsa betea eskuetan artuaz*) Emen zegok. Dana bete-betea! (*Pozez*) Au diruz! (*Joxe'ren abestia entzuten da urrutি*) Ee? norbait zetorrekin. Noan mendi-aldera. Adio, itxua, adio! (*Bijoia las-terka*).

VIII AGERRALDIA

Joxe, ta gero Ramus

- JOXE. ("Arboletan den" abestuaz. Abestia anvaitu ondoren, borda-
ko ateau) Eup! Enerio'ko Joxe naiz.
- RAMUS. (*Azalduaz*) Joxe : nere artzaitxo pixkorra.
- JOXE. Ramus: Errenga-gañean bildua utzi dut zure artaldea.
- RAMUS. Eskerrik asko, Joxe. Arnas-larri eldu aiz?

- JOXE. Bai: iratzebailleen eupetakoz biokak ikaratu egin dira, eta itsututa, iges egin dute.
- RAMUS. Nereak ere joango itukan?
- JOXE. Naparroa'ko aldean arkitu ditut. Guarda basozaia oartu baño len aurrea artu, eta Oyartzun-aldera jiratu ditut. Beko zokoan daude orain. Dulun-otsa entzuten da.
- RAMUS. Gure Txuri baño leialagoa aiz, Joxe.
- JOXE. Ezin duanari lagundu egin bear zaiola, erakutsi ziguten gurasoak.
- RAMUS. Bai, bai. Ongi diok.
- JOXE. Gañera, gureak ere zaitu bear nituan, eta bide batez zureak ere egitea, ez da gauza izugarria.
- RAMUS. Gazta pixka bat artuko duk?
- JOXE. Bidean jaten etorri naiz. Zorroan pixka bat ba'neukan, eta talo-erdi batekin uraxe gosaldu dut. (*Bestera*) Gaur mendian bixitariak ere ba'ditugu?
- RAMUS. Bai; alai zegok basoa egun oetan. Iratzebaille-salla or joan duk aurretik. Nim topo egin dituk?
- JOXE. Goyenetxe'tik gora.
- RAMUS. Aritxulegi'ra zijoazenak izango itukan. Aiekin zijoaken gure illoba Petri ere.
- JOXE. Petri? Ez dut ikusi.
- RAMUS. Bidetxiorrez joana izango duk.
- JOXE. Bai, ongi dakizki arek emengo bidetxiorrak...
- RAMUS. Baba egosten jarrita, oraintzen niaken lizar-ostoa egitera (*Bijoaaz bioh mendi-aldera*).
- JOXE. Gure anaia errira joatekoa da, ta azkar ibilli bearko dut nik ere. Gaurgero zai daukat.
- RAMUS. Sarritan jeisten duk zuen anaia errira... Ik ez al-duk joan bear?
- JOXE. Ez. Ni igandean... (*Ezkutatzen dira*).

IX AGERRALDIA

Bi mutiko

(Iratzebailleen gosariarekin dijoaz mendira. Nekatuta, irudi-tegian ats egiten dute).

- I MUT. (*Saskia buruan dakar*) Au, Ramus itsuaren borda duk. Emen-txen ats egin bear diagu. Gañera txanda ere egin bear didak.
- II MUT. (*Sagar bati ozkaka dator*) Txanda?
- I MUT. Jeixten lagundu eidak beintzat, nekatu nauk eta.
- II MUT. Ustel arraiea! Etxetik Ergoin'eraño ortxe ekarri diat nik, bat ere ats egin gabe...
- I MUT. Ta aldapak zeñek igo dizzik?... (*Bestera*) Orain ere sagarak ostu dituk ik?
- II MUT. Ongi ederrak zeudek...
- I MUT. Jose'k arrapatu baindu...
- II MUT. Jose'k? etziok toki txarrean! Perlesiak jota zegok eta... Zakkurraren bildur geiago nian...
- I MUT. Ekatzak bat.
- II MUT. Auxe besterik etzeukat eta .. (*Patrikara batekoak erákutsiaz*).
- I MUT. Eta bestean ditukanak?
- II MUT. Oek gerorako.
- I MUT. Motel, gero nilc emango diat bestea.
- II MUT. To, ba. Bañan gero eman, gero? (*Eman beziao*).
- I MUT. Bai, motell, bai (*Biok jaten*). Oraindik goiz arritua diagu. Gure amak presa ziken beintzat.
- II MUT. Ongi ala-ere...
- I MUT. Ikusten al-duk an arako baso ura?

- II MUT. Bai.
- I MUT. Ura, dena gaztaña duk.
- II MUT. Jesuuuu! Elduak ote-zeudek?
- I MUT. Bai. Onezkerro batzuek egiñak izango dituk. Onuntzean andik etorriko gaituk.
- II MUT. Aufa! (*Eskuai eragiñaz*). A zer jateak! Saskia beteko diagу, e?
- I MUT. Bai, motell. Bs bildu, ta ni iñor datorren begira egon...
- II MUT. Eta an goian ageri den baserri ura zein, da?
- I MUT. Ura? Goienetxe. An-barrena joan bear diagу. An ere ba'ditek zakur galanta. Lengo> urtean Pilartxo ta biok etorri giñukan... eta asten da zakurra zaungaka, eta Pilartxo negarrez...
- II MUT. (*Ikaratuta*) Ara!... Ikusten al-duk?
- I MUT. Zein? (*Ikaratud*) Ooo! Artxintxar duk eta... Guazemak izkutatzera. (*Biok, saskia iruditegian utzi-ta, zuaitz-artean izkutatu bitez*).

X AGERRALDIA

Aztia bakarrik; gero bi mutikoak

- AZTIA. Jerontxio Artxintxar,
 azti famatue,
 mundu guztiin dago
 oso sonatue
fiufi-fiufe...
 gelditu ere gabe
 dabil jai ta aste,
 errie goiti bera
 dana nastu arte:
 senar ta emazte,
 mutil zar ta gazte,
 maite-eriak tarte,
 mutxurdiñak neste...

fiufi-fiufe...

(*beatzakin zenbatuaz*)
 danak kontsolatzen,
 biotzak ukitzen,
 legenak garbitzen,
 karetxak ziñatzen,
 tropesi-billatzen,
 sorgiñak uxatzen...
 boltxikotxo au txanponez (*keñu egiñaz*)
 ondo bete arte. Amen!
 Jerontxio Artxintxar,
 azti famatue,
 mundu guztiin dago
 oso sonatue...

(*Atea joaz*) Nor da emen? Ardiiri asma sendatzea etorri naiz. Beorrak karetxak ziñatzen ere dizkiet, eta gaizkiñak kendu ere bai; ta sorgiñak uxatu, gañea; eta tropesiik billatu, eroak zurtu, antzuuk ernaldu, zaharrak gaztetu... Eup, Ramus!

I MUT. (*Ezkututik irteni-da saskia artu, ta bijoaz igesi*).

AZTIA. (*Bordaldetik itzuliaz*) Ez da etxean izango. (*Gaztetxoak iges-ka ikusita*) Eli! mutikook! Noa zoazte? (*Eldu bezai o batibetotik. Besteak, saskia utzita bijoa igesi. Saskia bigarren mutikoaren eskuetan*).

II MUT. (*Garraixikat*) Ai, ai, ai!...

AZTIA. Ez dizut ezer egingo, gizona, ez dizut ezer egingo. (*Samurki*) Noa zoazte?

II MUT. Mendira... (*Erdi-negarrez*).

AZTIA. Mendi? Zertaa?

II MUT. Iratzebailleai gosaria eramatera...

AZTIA. Gosarie? (*Berekiko*) Goseak amorrak bearrean, natxeoan-da, auxe suertea! (*Mutikoari*) Ea, etorri onea. (*Eraman beza enbor-gañera*) Nekauko zea, ta ekarri onea saski ori. (*Saskia aurrean daukala, exeri bedi*) Gure Jaungoikook ba'dik, orra-

tio, aztiintzako errukie. (*Saskiari ken bezao zapi zuria*) Amorratue! (*JBarruan dagon danari, eskuan artu ta usai egiñaz*) Padela onetan bakallaoa tomateekin; emen talo bero-berook; emen sagar erreak; gaztaie emen. Onen gaztai gozoa! Ta ardo? nun dek ardoa, mutiko?

- II MUT. Iratzebailleak berak eraman dute...
- AZTIA. Ai, arraiea!... (*Sagar bati ozkaka asten da*).
- II MUT. (*Negarrez, garraxika*) Ai, ai! Matxiiin!
- AZTIA. Ia ixilik, ume! Jum!.. Aiteri esango zeoat, gero... (*Laisteka jaten diarduaia*) Inkaik ateatzten badek, mantekak kenduko dizkiat. (*Talo-erdi bati ozka egin eta gazta eskuan artuaz*) Orain gaztaie. Onen usai gozoa! Pusketa bat geroako gorde bear diat. Aidaneen gero, aste betean gaztairik ez diat ikusiko ta... Tomatesaltxea (*Talo-puska bat tomatetan bustita januz*). Au gosarie! Egundo olakorik...

XI AGERRALDIA

Lengoak, eta Ramus ta I mutikoa

(*I mutikoa ta Ramus sar bitez, itsu-mustuan, joan ziran bidetik*).

- I MUT. Ara nun dagon.
- II MUT. (*Etorritakoak ikustean, bijoa aiengana*) Ramus, Ramus, lagun zaiguzu.
- AZTIA. Ara! emen degu nagusie. (*Ramus'i*) Ate-joka aritu nauzu etxeen, Ramus ta itxoiten, nengoan. Ardkik nola dauzkatzu? Begiik ee pixkan bat argitu zaizkitzu, noski...?
- RAMUS. EZ nao berriketarako. (*Legor*) Aurruk ola mendian ikaratzea, ez da gauza zalla, bañan ezta egokia ere.
- AZTIA. Erak ikaratu die, Ramus.
- II MUT. Gosaria ere jan digu gañera.

- RAMUS. Besteren bizkarretik jateko, bai azkarra zu...! Zoaz emendik, alper audi ori!
- AZTIA. Bañan neretzat lanik ez al-dezu, Ramus? Ezbearren bat izango dezu, ba, noski etxeantzen. bat eo... ernal-ezinen bat eo... moxal errenen bat eo... Tropesiik eo ez al-dezu?
- RAMUS. Likitx, gezur-jario... Alde egizu emendik, edota bestela... (*Makilla dantzatuaz*).
- AZTIA. Gizona; etzaitela asarau beintzat. Joango naiz. Bañan begietarako sendagai bizkor askoa ba'nekarren, ba, nik onako... (*Poltsa erakutsiaz*)
- RAMUS. (*Txistu egiñaz txakurrari*) Ea, Txuri, ator ona. (*Txakurzaunka*).
- AZTIA. (*Azkar asko jeikita*) Ba'noa, ba'noa. Bañan oraindio nere bearreaii. arkitu bear dezu, eta ordun ordainduko diazu dana, Agur, Ramus (*Bijoia*).
- RAMUS. Alper lotsagabea (*Mutikoai*) Nungoak zerate?
- I MUT. Txipi'koak.
- RAMUS. Asko jan al-dizute?
- II MUT. Ez; danean lardaskan ibilli, bai, bañan gutxi jan du.
- RAMUS. (*Xextera jasotzen lagunduaz*) Zoazte, zoazte lenbaitlen, gaxuok. Beranduetsiko dute, bestela, iratzebailleak. Torizute intxaur bana. Eta joan xabarta gabe, xintxo, xintxo.
- I MUT. Bai, bai.
- II MUT. Eskerrik asko, ta agur (*Bijoaz*).
- RAMUS. EZ da zeri. Agur, agur.

XII AGERRALDIA

Ramus bakarrik

(*Jo heza pianoak A. Donostia'ren "Nik ba'ditut mortuetan ar-diak..."*).

- RAMUS. Eun dukat eder dauzkat pikope batean,
 bost kostata egifiak Jauna'n izenean
 bizi al izateko zartzen naizenean...
 Zenbat lan egin dedan nik nere bizian,
 eun dukatok onela biltzeko! zenbat lan!
 Ederrik ikusi det borda xar onetan,
 ekaitz, gau illun-luze ta negu latzeten!
 —Tximist-argi zorrotza leio zabalean;
 trumoi-orroi-burrunda tellatu-gañean;
 elurteak elurte borda-inguruan;
 otso-zaunka izua ate-zirrituan...
 ardi danak *beeka*, gose bait-nituan...—
 Ardiak, bai, gaxoak!... Zein maite ditudan!...
 Negar, negar ere nik det noizean
 bein baño geiagotan, bildotxak saltzean...
 Amaren errapetik —umeak artean;—
 gaxoak, *zupa-zupu*, esnea edatean,
 zenbat aldiz lotuta artu bizkarrean
 ta eraman ditudan marrakaz... zai-tzean
 bizi al izateko... mendian, pakean...
 Bañan, azkenean,
 Jainkoari eskerrak ontau naizenean!
 eun dukatak or daude pikope gordean...
 Ortzen ikusi nitun kontuz bart gabean...
 Oraindikan ez ditut ikusi goizean
 —arrotzik geixko bait-da gaur mendi-aldean—.
 Orain ez dago iñortxo,
 txolarte onetan

(*Pikoperantza*)

noan... Iñork ez daki
nun zaitzen ditudan...
Ementxe... bat... bi . iru..'. lau... (*zenbatuaz*) lau oñen bu-
ruan,
ementxe... (*makurtu bedi*) emen da poltsa;

(*Eskuetan estutuaz*)

..bañan (*negarrez*) utsa!... utsa!... utsa! ! !

(*Eror bedi zerraldo lurrera*).

O I A L A B E H E R A

II EKITALDIA

(*Lengo atadia bera. Illunabarru da. Illuntzen asi du. Aldizka igaro bitez iratzebaiileak kale-aldera.*)

I AGERRALDIA

Aztia.

(*Abesten*)

Jerontxió Artxintxar,
azti famatue,
mundu guztiin dago
oso sonatue...
fifi-fiuſe...

Askok egiten dio
parra eta burle,
baita xaxatu ere
atzeti txakurre...
Ai Ramus maltzurre!
biurri makurre!
Zillar eta urre,
jo bear dek lurre...
fiuifi-fiuſe...

Egin diak parra;
bañan, zorotzarra,
laister ni bearra,
ta ordun negarra...
Neretzat izango dek, bai,
poltxikon. daukean zillarra...

Jerontxio Artxintxar,
azti famatue...

II AGERRALDIA

Aztia ta Ramus

- AZTIA. (Atea joaz) Nor da emen?...
- RAMUS. Nor zaitut? (Etxetik irten bedi).
- AZTIA. Aztie, Ramus, aztie.
- RAMUS. Zu al-ziñan? Jaungoikoak arratsalde on digula.
- AZTIA. Alaxe deigula.
- RAMUS. Orra zertara deitu zaitudan...
- AZTIA. Aztiik beti daki zertaa deitzen diotean.
- RAMUS. Ortarako zerate azaia.
- AZTIA. Etorri nintzeneako igarri nizuan zertaako izango zan : kontsulte eiteko. Ez da ala?
- RAMUS. Noski.
- AZTIA. Bai, alegie! Ta gañea, kuntsultea ba'dakit nik zertaako izango dan. Zea; alegie: andrea artzea zoazela eo etzoazela eo... ez da ala? Ortaako ba'dauket nik aako botil ootan... [Poltsa erakutsiaz].
- RAMUS. Zaude ixillik; ixillik zaude Jaungoikoaren izenean, Jerontxio, olakorik esan, gabe.
- AZTIA. Beaz ez da ala?
- RAMUS. Bai zera...
- AZTIA. Ez da, ba, beti beti lenengoti asmatzea erre izaten-da...
Orik guztiik ola ta, dukat asko daukezu?
- RAMUS. A!.. Len bai... eun pillan-pillan.
- AZTIA. Orain asko dauzketzu?
- RAMUS. Bat ere ez.

- AZTIA. Beaz danak jan ein dituzu?
- RAMUS. EZ, Jerontxio, ez...
- AZTIA. Beaz lapurtu ein dizkitzue?
- RAMUS. Lapurtu, bai; zartzarorako gordeta neuzkan dukatak lapurtu!
- AZTIA. Ikusten dezu nola ásmau dean? Asmau baietz zertaa deitu nauzun ee? Lapurra nor dan asmatzea, ez da ala?
- RAMUS. Bai.
- AZTIA. Gero aztiik au, ta aztiik ue esango due. Aa nik emen asmau guzie.
- RAMUS. Guztia? Ta lapurra?
- AZTIA. Ertengo do orrek ee. Gela illunik ba al-daukezu etxeán?
- RAMUS. Bai. Zertarako duzu gela illuna?
- AZTIA. Ba'akizu. Geon errezu ta gañeako lataniik esan bae aztiik ez deu ezer asmatzen-da...
- RAMUS. Ortarako bear al-duzu?
- AZTIA. Bai, ba; ortaako. (*Ao zabalká*) Jatekorik ba al-dao gelan?
- RAMUS. Bai. Saski bat bete gazta ta lukainkak txíntxilik. Ez al-da komeni an egotea errezuak egiteko?
- AZTIA. Komeni komeni ez; bañan baleozke. Ez diea galeaziko, noski, errezoik. (*Bere baitari*) Gaztai-erdi bati bizie kenduko zeoat, beintzat, ortaako modurik soertatzen bazaku. Aspaldiin ez diat jan asko besteen bizkarretio... Neretio re ez asko asko. (*Sar bedi*).

III AGERRALDIA

Ramus bakarrik.

RAMUS. (*Exerita, gogartí*) Egoera trixtea! Jesus, Jesus! Gañezka egiteraño bete da nere zorigaitza. Korderik gabe utzi aau goizean samintasunak. Nere onera etorri naizenean, Joxe deitu dut. Nere artzai-mutil leiala. Gaxoa, arriturik gelditu da... Billatu bear zan lapurra. Nor izan zitekean? Artzairen bat? Iratzebailleren bat? Diruak, gaur goiza ezkero palta dira. Atzo gabean or zeuden... Aztiai deitzera bidali dut mutikoa, eta baita azkar asko ark nere esana egin ere. (*Izkera aldatuaz*) Itsu zahar bati dirua ostutzeko biotza bear du orratik! Ez da errukirik munduan... Mundu tristea, negarrezko erbestea... laister utziko zaitut... Ezin dut geiago. Au ez da bizitza. (*Ernatuaz*) Bañan ez diote onik egin bear, ez, nere dukatak, ostu dituan biotz-béltzari. Amaika izerdi ta neke kostatakoak dira, ta neke ta negarrak berekin izango dituzte aiek beti. Biotz-gabeak, makurrak, gogorrak...

IV AGERRALDIA

Ramus ta Aztia.

AZTIA. (*Argi bat piztua eskuan. Barrutik*) "Bederatziiik zortzie; zortziik zazpie; zazpiik seie... (*Agertu bedi, ezpañak igurtziaz*) Ok zetuk gaztai goxook!... Seiek bostekoa; bostekoak laukoak.. Nereak balie! Laukoak... Amalau zeuzkean errenkarean ipiñiik. Bat ia jan diat; amairu geatu. Baña bai gozook! Laukoak irukoak; irukoak bie... biik bat. Lapurrek ein dezala *zirt edo zart'*". Ramus; ein ditut errezook.

RAMUS. (*Urduri*) Ta lapurra?

AZTIA. Orain ertengo do. Atoz onuntza. Eutsi argi oni (*Argia emanaz*). Ezkerreko eskuun. Ooola! (*Atera beza boltxikotik kar-*

ta-jmrea) Ia; kartak bota bear ditugu. {Exeri bitez lurrean-edo). Bastook irteten bado, lapurre etxeanean dezu; ezpatak irteten bado, kanpokoa da...

RAMUS. Ai, ene! (*Antsika*). Zer atera bear ote-dut nik saltsa ontatik? (*Aztiasi*) Eta kopa ateratzen bada, zer?

AZTIA. Ez do ertengo.

RAMUS. EZ dela aterako? Nola dakizu?

AZTIA. Nola jakingo det? Aztia izanda .. Ez al-dakizu, ba, ni aztie naizena? (*Bere baitan*) Nola ertengo dik, ba, kopa taurreik baeko karta-parea ekarri diat-eta.

RAMUS, : Eta urea ateratzen bada?

AZTIA; Azkar nai dek ureak ertetea... Geoxeago ori, geoxeago... (*Asi bedi kartak botatzen*) Onek, kanpokoa dala... onek, etxekoa... onek kanpokoa... onek etxekoa... onek kanpokoa... onek etxekoa... Zenbat bota ditugu?

RAMUS. Neri galdetzen ál-didazu?..

AZTIA. (*Aserre*) Nori galdetuko zeoat, ba?

RAMUS. EZ diot, ba, arretarik ipiñi. Bei-riz asi bearko duzu...

AZTIA. Ia, ba, berri. Bañan egori ernai. (*Kasrlak botatzen*) Onek kanpokoa dala... onek etxekoa, , onek kanpokoa... onek etxekoa... onek kanpokoa... onek etxekoa... onek kanpokoa... Zenbat bota ditugu?

RAMUS. Zazpi.

AZTIA. Eon, ba, ernai. Amabi Apostoloen izeneen, amabi karta bota bear ditugu-ta... onek, etxekoa...

RAMUS. Zortzi.

AZTIA. Onek, kanpokoa.

RAMUSJ Bederatzi.

AZTIA. Onek^ etxekoa.

- RAMUS. Amar.
- AZTIA. Onek, kanpokoa.
- RAMUS. Amaika.
- AZTIA. Onek, etxekoa...
- RAMUS. Amabi.
- AZTIA. Amabi esan dezu? Ea, konta itzagun oain. (*Zenbatu bitza*) Etxekoa, etxekoa, etxekoa, etxekoa, etxekoa... Seik, lápurra etxekoa dezula. Kanpokoa, kanpokoa, kanpokoa, kanpokoa, kanpokoa, kanpokoa... Eta beste seik, kanpokoa dala... Lapurrek, erdi-etxekoa eta erdi-kanpokoa izan bear do.
- RAMUS. Erdi-etxekoa eta erdi-kanpokoa? Nola izan diteke ordea ori?
- AZTIA. Ori zeorrek jakingo dezu. Morroirik-edo ez al-dezu?
- RAMUS. Nik? ez, Bañan izan-da ere, befdin izango litzake. Ez al-dakizu Euskaldun-legez, morroiak etxeko izan oi dirana ta ez arrotz?
- AZTIA. Dana dala. Neri bi dukat zor dizkiatzu kontsulteagatik.
- RAMUS. Gero eman bearko dizkitzut, ba, Jerontxio. Orain, ez daukat. Ba'dakizu lapurtu egin dizkidatela...
- AZTIA. Geroooo? A! ez, ez, ez. Bereala, konpañeо, bereala. Bestela nik jakingo det zer egin. (*Bere baitan*) Saski-gaztaia kendu bear zeoat... (*Asarre, alegia*) Bai, jauna, bai. Nik jakingo det zer egm (*Bijoia etxe-barrurá*).
- RAMUS. (*Zei- egingo dion bildurrez*) Nora zoaz, Jerontxio? zer egin bear duzu?
- AZTIA. (*Saski-gaztia besotih zintzillih, igesi*) Zer egin bear dean? Igerriko diozu. (*Ixeka ta siñuak egiñez, bijoa mendi-uldera, laxterlta*).

V AGERRALDIA

Ramus bakarrik; gero Joxe.

- RAMUS. Zerbait ostuko zidan gaiztotzarrak... Baita, gazta-saskia dramala dijoa noski lapur alena... Orra!.. Nora zuaz, Jeron txio? Nora zuaz? (*Abiatu bedi laxterka aziaren atzetik, ba? ñan eziñez geldi bedi*). A! gezurti aundia! Inpernutik irtena aiz bai, i... Ezin aut arrapatu, bañan erori bearra aiz nere eskuetan. (*Txistu luzea joaz*) Joxeee! A, billaua! Itza ta pitza dariokela iñoren bizkarretik jaten abillen alproja aundi ori... (*Ixil-unea*). Bañan zer ari naiz ni? Erra guztiak neronek izan-da... zer ari naiz ni iñori biraoka? zertara deitu dut nik gezur-jario ori? zertara?...
- JOXE. (*Laixterka sartzen da*) Zer duzu, Ramus, garai ontan?
- RAMUS. Aztiaik zerbait ostu zidak, noski.
- JOXE. Artxintxar'ek?
- RAMUS. BaL
- JOXE. Noruntz jo du?
- RAMUS. Goi-aldera.
- JOXE. Ba'noakio atzetik. Egon lasai, Ramus. Iratzebailleai ots egingo diet, eta ez du iges-egingo. Laister gaituzu emen. (*Bijoal aisterka*).

VI AGERRALDIA

Ramus bakarrik; pero Ixteben.

(*Pianoak jo beza zerbait, Ramus'ek olerki au esaten duan artean. Nai izan ezkerro, abestu ere egin dezake, "Oraiipenetan" bezela*).

- RAMUS. 1) Baserriak bizia eman-da,
mendiak ninduan azi.
Borda zar ontan, ardi-artean,

nai nuan mundua utzi...
 Au zori txarra, gaur bertan bear
 ospital batera jetxi!

- 2) Mundu zoroak maite izaten du
 aberats, eder ta gazte;
 bañan zarrari, beartsu bada,
 "ken ortik; zokora zaite"...

(*Sar bedi Ixteben*)

Ai, Ramus zarra! zar ta beartsu,
 iñork ez bear zu maite.

(*Exerita*) Ezer gabe. Jendearen parragarri!. Bakarrik nago
 munduan. Erdi-itsu, beartsu... ez, iñork ez nau maite ..

IXTEBEN. (*Bizkarrean joaz. Oso xaimur*) Bai, osaba, bai, maite zaituzte.

RAMUS. E?..

IXTEB. Ni naiz, osaba; zure illoba Ixteben. Zer duzu orrela min-
 tzatzeko?

RAMUS. A...! Bt Ixteben. maite nauk, bai.

IXTEB. Danok maite zaitugu. Bañan zer dezu?

RAMUS. Eun dukat ostu zizkidatek.

IXTEB. Eun dukat?

RAMUS. Bai, eun dukat. Pikope ontantxe gordeak neuzkaken. Nere
 bizi guzian altxatako diru-pizarrok ituken. Gauza aundirik
 ez, bañan nere zartzorako itxaropena.

IXTEB. Nork, ordea?

RAMUS. Eta orain aztiak etxeан neuzkan gazta ta lukainka danak era-
 man zizkidak, noski.

IXTEB. Aztiak?

RAMUS. Bai, Artxintxar'ek.

IXTEB. Ikusi dut mendian laisterka, Ez nuan jakin bear...

- RAMUS. Joxe bidali zeoat atzetik, iratzebailleai ots egitera.
- IXTEB. Bidali duzu?.. Orduan ez estutu. Arrapatuko dute... Bañan lapurra arkitzeko aztia ekarriko zenduan ba?
- RAMUS. Bai, seme.
- IXTEB. Bañan, osaba : ez al-dakizu Artxintxar, gezurti aundi bat besterik ez dala?
- RAMUS. Ongi egia, ala-are! Bañan naigabeak eragin zidak, seme. Zer egin ez nekiken penaz ta samiñez. Goizean emen zebillela iku-si diat, eta dei egin zeoat.
- IXTEB. (*Gogarti*) Bera ote-duk?
- RAMUS. Bañan ark etzidak lapurrik arkitu. Bai zera! Bera bai, ba'duk ura lapurra galanta. Berak ostu zizkidak nere gazta ederrak. Ez oté-zizkidak gero bérak ostu dukatak ere? (*Ixtaben, gogartetsu, osabaren leloari jaramonik egin gabé*). Ixtaben: ez ote-diagu Artxintxar bera nere dukaten lapurra ere? Esaidak, Ixtaben : zer derizkiok? Ez al-didak erantzuten? Ez al-diok ajolarik osabaren zorigaitzari?
- IXTEB. Bai, osaba, ajola diot. Ez diot, ba, ajolako? (*Gogartetsu. Bere baitan*) Ezin kendu diát burutik. Ortaraño eltzea orratik... bañan etzekiat nik...
- RAMUS. Emen izan duk gaur goizean bordako atadian. Orduan era-mango zizkidaken. ark nere dukatak. Ah, billaua! Bera duk, bai, bera duk lapurra. (*Ixtaben gero ta gogartetsuago*). Ixtaben : oa, joan adi azkar aren atzetik, deitu eitzak iratzebailleak, eta arrapa ezazue azkar lapur aundi ori. Petri ere laister emen duk onezkerro, eta danon artean ez egiozute iges egiten utzi.
- IXTEB. Petri? bai laister einen da. Ikusi dut mendian behera onuntz-aldera artzen. (*Bere baitan*) Joan ere nere atzetik egin duk ura, eta ni baño lenago irtena ukan bordatik, Zer egin ote-dik ark bitartean?
- RAMUS. Bi anaiok naikoa zerate Artxintxar arrapatzeko. Oa, Ixtaben, oa gaxori, laister, iges egin dezan baño lenago.

- IXTEB. Ez, osaba. Artxintxar arrapatuko dute. Nik zure ondoan egon bear dut.
- RAMUS. Eta zer egin bear duk ba, emen? Ik ez duk nere esana egin nai, Ixteben.
- IXTEB. Bai, osaba, bai. Bañan utzi nazazu pakean orain... Bai al-dakizu dukatak noiz ostu dizkitzuten?
- RAMUS. Bai, gaur goizaldean. Bart gabean or zeudeken.
- IXTEB. (*Erabaki aundiz*) Ederki. Goazemazu orain bordara.
- RAMUS. (*Urduri*) Bordara? zertara ordea?
- IXTEB. Goazen bereala. Azkar ibilli bearra daukagu.
- RAMUS. (*Bordara bideari*) Goazemak, goazemak. Bañan zer asmo darabilik buru ortan?
- IXTEB. Laister ikusiko dezu. Ibili gaitezen azkar, laister emen degu-ta.
- RAMUS. Laister? zein? (*Sar bedi bordan*).
- IXTEB. (*Bere baitari*) Bera baldin bada, orratik, emen erori bear dik. Ori ez; osaba zaharraren diruak lapurretan eramatzen etzioat utziko, anaia badiat ere... (*Sur bedi bera ere barrura*).

VII AGERRALDIA

Austin; gero Ixteben, Ramus eta bi iratzebaille.

- AUSTIN. Ats egin dezadan pixka bat ementxe, nere lagun zahar Ramus'ekin. (*Exeri bedi*) Semeak ebaiten utzi, eta, illunabarria baño len irten nauk menditik; eta illunak ia arrapatu niok bide-erdian. Zer ote-da zahartzea! Ariñago ibilli izan dizkiat bide oetxek... Ontazkero semeak ere laister dizkiat emen, eta , aien ondoan obeki joango nauk; illunabarrean ez bait-dituk ongi ikusten bideetako arri kankarrak. Muturkatu ezkero, berriz, ez uke paltako, Austin mendian moskortu egin dala esango lukean mingain gaiztorik. Eta oraindik ez gaudek

orrenbestean, mendian bestetan oitu baño geixeago edaten bada ere. Ementxe itxoingo ziotet, beaz, gure bi mutillai. Sartu nadin Ramus'ean. Ea zer dion gure adiskide zahar onek. (*Jeiki ta bijoa bordara. Ontan ideki bedi atea, eta azaldu bitez Ixteben ta Ranvas atean izketan*).

- IXTEB. Zuk ez aztu nik esandakoa. Nik xixtu egingo dizut, eta nere xixtua entzutean, nik agindutako guztia ta nik agindu bezela egin bear duzu. Or uzten dizut ortarako poltsa arri-koxkourrez betea.
- RAMUS. Bai, bai; ik esan bezela egingo diat dana.
- IXTEB. Eta egon erne.
- RAMUS. Bai, bai...
- AUSTIN. Jaungoikoak gabon dizuela.
- IXTEB. Austin! Zu al-ziñan?
- RAMUS. Atorkit, Austin, atorkit ordu onean lagun zar ori.
- IXTEB. Sar zaite, Austin, sartu barrura zu ere.
- RAMUS. I bezelako lagunen bear aundia diat oraintxe...
- AUSTIN. Okerrik al-duzute? (*Sar bitez barruan Ramus eta Austin, eta itxi bezate atea*).
- IXTEB. Eratu zioat zepoa. Emen eroriko duk, bera baldin bada. Eta bera dala esaten zidak biotzak. Ba'diat nik gure anai orren berri, eta ba'zekiat Petri gurea ortaroko ta geiagorako ere gai egiña dagola aspaldi ontan. Ez diat nik anaia gorroto, bañan maite diat, etá asko maite diat osaba gizagajoa. Eta aren diruak orrela eramatzen etzioat utzik, ezin utzi, errukirik gabeko biotz-beltz orri. Emen utzi bearko dizkik ostutakoak... Emen duk norbait. Ezkuta nadin. (*Ezkutatu baño len, sartu bitez iruditegian bi iratzebaille, Austin'en semeak*).
- IRATZ. (*Sartzean, Ixteben'i*) Tira, tira. Goazen be-aldera, illuna duk era.
- IXTEB. Zuek al-ziñaten? Aita barruan duzute gure osabarekin izketan.

- IRATZ. Oraindik emen al-da? Ordu bete ba'duk irten zala menditik,
eta oraindik emen?
- II IR. Ixteben, esaiok etortzeko; berandu dugula.
- IXTEB. Itxoizute pixka bat, zuen bearra diat-eta.
- IRATZ. Gure bearra?
- IXTEB. Bai; ikusi al-duzute gure anaia?
- IRATZ. Petri? Gure atzetik zetorrekin. Emen duk gaurgero.
- IXTEB. Atozte, ba, nerekin bereala. Zaitu bear diagu. Ezkutatu gai-
tean (*Belarrira zerbait esaivaz eraman bitza eskubi-aldeko
zuaitz-artera*).

VIII AGERRALDIA

Petri, ta gero lengoak.

- PETRI. (*Sartutakoan*) Ez duk ageri. Barruan negarrez egongo duk.
A, ja, ja, ja! Gizaagaxoa! Etxerakoan etoriko naizela agindu
zioat, eta poztutzena sartu egin bear diat. (*Entzun bedi txistu
luze bat*). Ixo!... Zer zan ori?.. Iratzebailleren bat izango
ukan... edo artzairen bat bestela. (*Asi bedi Ramus borda-ba-
rruan abesten*). Ixo ..! Kantari ari duk gure osaba...
- RAMUS. (*Barru>uri*) Eun dukat eder dauzkat
pikope batean;
beste eun jartzera noa
lengoен gañean (*bis*).
- PETRI. (*Adi-adi egon ondoren*) Oraindik etzekik ezer. "Beste eun
jartzera noa lengoen gañean". Bai ote?.. Ixo? ixo?... emen
zetorrekin. (*Azaldu bedi Ramus, eresi au bigarren aldiz ubes-
ten; eskuan poltsa bat arri-koxkorrez betea. Iruditegian ager-
tuta bereala, ezkutatu bedi ezkerreko ariztian. Illuna da. Ra-
mus kantari dijoan artean, Petri makurka-makurka*) Mendi-
aldera artu dik. Enbor baten gañean exeri duk ...Bañan nun-
dik dizkik orrek beste eun dukat? Ixo! ixo?..

RAMUSÍ

(Lengo ahapaldia bukuitu ta bereala abestuaz)

Anai indiano bat
 ba'dut Amerikan;
 eun dukat ark bidaldu
 dizkit gaur andikan. (bis).

(Eta itzuli bedi berriz ere bordara, lenengo ahapaldia abestuaz)

Eun. dukat eder...

PETRI.

(Ramus bigarren aldiz "Eun dukat eder" abesten datorrela)
 To... ta egia dik. Beste osaba bat ere ba'diagu guk, an Ameriketan: Anton, osaba Anton... Ark bidalduak, beraz?...
(Etortzen ikusi-ta) Ba'zetorrekin, ba'zeturrek... eta eskuan zekarrak boltsatxo berria... Egia dik nimbait... Sartu duk berriz ere bordara... Lengoan. gañean jarri bear dituala esan dik beste eunak. Jarri ditzala, jarri; ez dituk gaizki etorriko. Bañan uste ez badu ere, lengo eunak etzeudek pikopean; emen zeudek, emen *(Poltsa erahutsiaz. Gero, bapatean esku zabaluz bekokia joaz)* Bañan, Petri, zoro aundia! Ia-ia ederra egin génikan! Lengoak pikopean arkitzen ez baditu, ez dizkik beste eunak an jarriko. Tomotzarra ni! Utzi egin bear zizkioat, utzi, nere eunak lengo lekuan... *(Bijoia pikoperim, ta makurtu bedi. Zoro-parra)* Je-je-je-je-je... Eun jarri ta berreun jaso. Laister berreun! Laister berreun!...

IXT. eta IRATZEB.

(Irten bitez irurak ezkututik, eta artu bezate estu-estu lepotik eta besoetatik. Ixteben'ek sarkor) I al-intzan?

PETRI.

Ixteben!! *(Amorruz).*

IXTEB.

Petri!!

PETRI.

(Amorru biziz) Urde billaua! !

IXTEB.

Billaua, i aiz. Osaba itsu zaharrari diruak laputzen dizkio-ken, billaua, i aiz.

PETRI.

Aska nazazute, edo-ta bestela egingo diat nik ez-egitekoren bat gaur emen.

- IRATZ. EZ arronkarik egin, adiskide. Iru gaituk gero... eta bakoitza iretzat naikoa ta sobra.
- PETRI. (Indarka) Uztekoi! ! Billauak!
- IRATZ. Tira : berriketa gutxi emen, eta aiek onak.

IX AGERRALDIA

Lengoak, Ramus eta Austin

- RAMUSÍ (Atea zabaltzean, entzun bitza Pétri'rén azkeneko itzak) Bañan zer da nik entzuten dedana? Petri!... (Oyu garratz) I al-aiz, Petri?... Ez didak erantzuten...? Esaidazute ezetz, zallantzetan itotzea nai ez badezute. (Ixil-aldi) I aiz beaz?... Petri, nere illobetan maiteena... Ik ostu dizkidak, beraz, eun dukatak. Ez nikan usteko, ez nikan sinistuko. Non duk lotsa, Petri? Ta non duk biotza? Ori al-duk nere onginayari opa diokau, ordaña?... Petri : labain zorrotza sartu didak gaur biotzean. Ez, ez adilla agertu geyago nere aurrean. (Xasmur) Ba'niak; bordara niak nere lotsa ta negarra ezkutatzera. Utzi nazazute bakarrik, antxe, nere txokoan. (Bij&ix bordara. Irrintziak urrutira. Petri iratz-ebaileen eskuetan).

- AUSTIN. EZ adilla orrela estetu, Ramus.
- IXTEB. Bañan nora zoaz, osaba? (Ramús'en aurream jarrita. Irrintziak meídi-aldetik).
- ^AUSTIN. Adoretu adi, Ramus, ez duk-eta irea gaiztakeri orren errua.
- RAMUS. (Adoretsu, etxera abiary) Ez; nik etzioat orrelako txarkeririk erakutsi. Nik etzioat on besterik egin. Bera joan ukana nere albotik erri-aldera, ni zahar eta erdi itsu au mendian bakarrik utzita. An galdu dik biotza. Barkatzen zioat; bañan joan dedilla betiko ara. Ez dedilla agertu geyago onera, mendiko pakea asaldatzera. (Sar bedi bordan. Irrintziak gero ta alderago).

X ETA AZKENEKO AGERRALDIA

Lengoak eta Joxe ta Aztia ta iratzeballeak

JOXE. (*Sar bedi pozik*) Jaungoikoak gabon; Arrapatu degu aztia. Or dakarte iratzeballeak, estu aski lotuta. (*Azkenitzok esatean, asi bezate iratzeballeak "Jeupa, jeupa" abestia, eta sartu bitez abesten, Aztia lotuta dakartela. Abesten diardutela, erákutsi bezaiote aztia Ixteben'i, eta onek ongi-etorria eman bezaye danoi*).

IRATZ. Jeupa, jeupa! irrintzika,
iratzeballeak menditikan.
Jeupa, jeupa! irrintzika,
xatotik naikoa egiñikan.

BATEK. Illunabarrez aizkaturikan,
atso ta agureak leyotikan
galdezka daude, arriturikan,
zein ote datorren menditikan.

DANOK. Jeupa, jeupa!...

AUSTIN. (*Austin'en seme batek iratzeballeai Petri'ren lapurreta ke-ñuz adierazten dienean, Austin'ek abestu bezai:*

Utzi nai ez donak bakoitzari bere,
pagatu bearko dik "larrutikan ede"...

Eun esguan- da geyago nai, ala fede!

BERREUN DIRALAKOAN UA BERRIZ ERE.

DANOK. Utzi nai ez dionak...

(Eta gero):

Jeupa, jeupa! irrintzika
irratzebailleak menditikan;
Jeupa, jeupa! irrintzika
zatotik naikoa egiñikan (*Jrrintziah*).

BATEK. Illunabarrez, aizkaturikan
atso ta agureak leiotikan
galdezka daude,,arriturikan,,
zein ote-datorren menditikan.

DANOK. Jeupa, jeupa! irrintzika...

OYALA BEHERA

ERESIAK

I EKITAtDIA

I Agerraldia

Jeu-pai Jeu-pai-i-printzi-ka i-ratz-e- bai-leak kak-la-ti - kan Jeu-pai
 Jeupai i-printzi - ka za-to-tik thanhabat e-gi-ni - kan Goi- zi- an
 Goiz aiz-katu-ri - kan a-tso tae-gu-re- sk le-yo- ti- kan gal-dek-ka deu-
 de a-rrri-tu»fi- kaa xeln o-t» da-to-nea kale-ti» kan ta-le-tl- fcaa.

Sa-goi o-na- ren Ja- be - aic ria-par bel-tia-ren za - le- ak
 naif i- gi- ta - yan nai.i be-la-ga-yan i-ñuk berdi-nik ga-be - ak,

vl»-M -ti rau- tsl bxis - W-W ematat ga s^iai-ie-tie-os-Ho- «k.

II Ageffaldia

zy-ra-ga-rrí, e-de-rra' zl-tzaidanlen men-<*di-tik éígaz-ki- a-ren sô-rre-ra
e-gun-sen-ti- an. E-gunsén-ti - ek, e-gu-er-di - ek de-nak di- ra ne-
CJ • i jr.j* > j- * IUT-> r if ' i :J-I J..
re-tsat gau 1- llun <-ta beltzak... ar-gi-a zer dan aztu dute nere be-gl-ak.

IV Agerraldia

" J. hi J ryy-J...J i , t r ; fr "vm
Txo - ri-thu- a n<- rat i <a bi e- ga- le» ai - fi - «ní
J J t T 'I F ^ ^ F =f=I=F f f ; i - l - • r * J 3
• oa' - sra - lafc jo - ai - ta - ko e - lu - rra auk bor - ti- en.

Su - oen gu- - thulc el • ka - rre- kl ini - ra el- to de - ni - an.

X Agerraldia

Alai
Jé - ron-txi-o Ar- txintxar áz- ti fa- mi- tu - e mun- du guz- tiin- de
AJKra M, 1 A • J - J -
da-ga o - 30 so - ha- tu - e. Jl-u - fi fi - u - fet gel-
di-tu e- re ga- bs da- bil jai ta aa - te e - rri - e goi- tt
be-ra da - na naa- tu ar - te, ae-nar ta e-maz-te, mu-tilzarta gaz-tejiná-
te... xl-aktzir-te mu-txur-di-nak nes ~ ts... Pi-u ~ fi fi - u - fe...
danate Itransola-tzen, bi-o- tzak u-kitzen, lege-nak garbitzen, ka- re-txak zi-ñatzen,
-4-r < L 1
trop»l-)jllat;zen,sargiiIali o-xa-tzea.bfltxikotxo «Mtxanpon» oado bete arte.Aaen..

II EKITALDIA

VI Ageráldia

I f i , l y l i T T ^ U U .) fi - . li J r r l i r r r l

Ba-ae-rri - ak bi-zia - e- man--da -mendi-ak nin-du-an a — zi: bor-da xar
 on - tan, or- di-ar -te - an nai nu-an mun-du - a u - txi. *Ad* zo - xi -
 txa-rralgaur ber-tan be - er be-ar-txu-, te-gl-ra ija-txi Bor-da xar txi.

VIII Agerraldia

Eun du-kat e-der.dauz-kat pi- ko- pe ba-te - an; bes~teun;jartze-ra noa len-go-
 en ga- -ñe- an. A -nai in-di- a - no bat ba'det A - me-ri-kan; eun dukat ark bi-
 dal-dudiz- kit gaur .an-di- kan; eun du-kat *oxk* bi-dal-du diz-kit gauran-di-kan.

X Agerraldia

uV tzi nai ez dí-o-nak ba-koi-tza-rí be-ré, pa - ga-tu be-ar .ko dik
 la- rru-ti-kan e 7 de. Eun es- ku-an, ta ge- ya-go nai, a - la
 fe* &\$I... ^{be.} * Vmusi djj-re- Xe-ko- fin u - a be-rris o - ' ».

ZIGOR

EUSKAL OPERA - OPERA VASCA

GAYA-TEMA

Campion'en SANCHO GARCES'etik

ITZAR-LETRA

Lekuona'tar Manuel'k

LABURPENA

Naparroak Errege bat bear du. Etsayak nunaitik soitzen zaizkio. Ego-aldetik batzuek —aspaldikoak, mairuak, musulmanak—; eta iparraldetik bestek, orain-oraingoak —wikingoak, normandarrak—; Bayona'ko itxasaldean an bait-dabiltza egun otan, gora ta bera, gelditu gabe.

Orain arte ondo zaitu du egoaldea, Tudela-ingurua, Aibar'ko Nagusi, Gartzea Buruzagiak. Bañan gaur ez dira naikoa *Buruzagiak*. Buruzagia, nekazari bat izan oi da; gudatea bukatzen danean, bere soroak golbatzera biurtzen dan nekazaria. Gaur Errege bat bear du Naparroak. Naparroa'ko mugak ondo zaitzeko guda prestatzen biziko dan Errege bat. Beste egitekorik gabe.

* * *

Aibar'ko Gartzea da Naparroa'ko Errege-gai jatorra. Berak zuzendu ditu orain arte Tudela-aldeko guda-burruka garaitzadunak. Eta berak zuzendu ditzazke ederkitxo, emendik aurrera Bayona-aldetik sortu ditezkeanak ere. Bañan Gartzea il egin da, ain zuzen Naparroa'k bearrik-bearrrena zukean garayan. Seme bat uzten du, bai, egunen batean aitaren urratsak jarraitu ditzakeana; ume da, ordea, oraindik, illabete gutxiko ume txikia, Santxol Gartzeiz.

Bañan bitartean, Gartzea'k ba'zuan anai bat ere, Zunbeltz. Gartzea il danean, Zunbeltz'i Naparroa'ko Errege izan-nai zoro bat sortu zayo barruan. Eta, gaur edo bigar Santxol txiki arek Erregetza kendu dezayo-kean bildurrez, or sortzen zayo baita bere illoba txiki ura iltzeko asmo makurra. Errez egin dezake bere egitekoa. Gaua dala naiz egun, ba'du sarrera bere anai zanaren etxeian, Aibar'ko Jauregian; eta etxeko guztiak lo daudela, iñork igarri gabe, errez egin dezake bere egiteko izugarria.

Bañan Aibar'en, nagusi zanaren ordez ba'da morroi jator ta leyal bat, Urdaspal. Gartzea'k iltzerakoan Urdaspal'i eman dio, bere etxea ta bere semea zaitzeko agindua.

ARGUMENTO

Navarra se encuentra en trance de "alzar Rey". Se le hace necesario por el acoso del enemigo en sus fronteras. El enemigo tradicional —el moro— que le acosa por el frente de Tudela, al Sur; y el enemigo de última hora —el normando— que merodea al Norte, por el Golfo de Vizcaya.

Hasta el momento, el frente tudelano ha sido defendido victoriamente por las mesnadas navarras capitaneadas por el *buruzagui* de Aibar. Pero ya no son bastante los *buruzagui* locales para defenderse del acoso del doble frente. El *buruzagui* es un labrador, que, terminada la campaña guerrei*a, vuelve al arado de sus campos. Es necesario "alzar Rey", es decir un jefe nacional, dedicado por oficio al arte de la guerra, a la tarea inaplazable de organizar la defensa del País.

\$ \$ \$

Gartzea de Aibar era a la sazón el candidato indiscutible a la Realeza, por la valentía con que ha conducido a la victoria a las mesnadas de la Ribera en las acciones guerreras ocurridas en la frontera del Sur. Pero Gartzea de Aibar muere en el preciso momento en que el País siente la necesidad de un Rey y cuando su heredero Santxol, que podría estar dotado de las cualidades de su padre, todavía es un niño de pocos meses.

Ahora bien, Gartzea tenía un hermano, Zunbeltz, quien a la muerte de aquél entró en deseos de ser él el ansiado Rey de los Navarros. Pero el ambicioso tío ve un posible competidor, andando el tiempo, en su sobrino el pequeño Santxol; y trama su muerte, de noche, secretamente, sobre seguro, impunemente. Mas una previsora maniobra frustra el intento del asesino, el cual equivocadamente asesta el golpe mortal de su puñal, no en la cuna de Santxol, sino en la del hijo de la nodriza, que-

Morroi zintzoak ikusten du umearen aiTaixkoa. Bildur da, Zunbeltz'ek ilko ote-duan. Eta orregatik gauero-gauero, iñori esan gabe, seaska-trukada bat egiten du: bere seme Urko, Santxol'en seaskan, eta Santxol Urko'renean ipintzen ditu, ixil-ixilik.

Alako batean, sartzen da Zunbeltz Aibar'ko Etxean, gau illunean; eta ixil-ixilik seaskaetara joanda, or ematen dio izugarrizko labainkada, ustez bere illoba Santxol txikiari, bañan egiazki Urdaspal'en seme Urko aurrali. Eta beréala, ustez bere bideko beaz-topak baztartu ondoren, asten da, asi, bera ere, bere anai Gartzea zana bezela, etsayen kontrako guda-burrukétan. Bañan beti ta beti, kukuak oker jotzen dio; ez du gafaitza bakar bat ei-e irixten.

Bitartean Urdaspal zintzoa, aurrauen eriotz-ondoren, Aibar-tik ate-rrata, bere éniazte Otxandeta'rekin eta Santxol txikiarekin, Urdaspal ize-neko bere jayot-errira joaten da, an, Pirene-mendi-mendietara. Santxol guztion ustez illa da, eta Urdaspal'en seme Urko'tzat daukate mutilla efriko guztiak. Eta alaxe azitzen dute Urdaspal'ek eta Otxandeta'k ere guztien aurrerako, beren seme Urko balute bezela.

. Urdaspal errian ba'da baita emakumezkoen Monastegi zaar bat ere, eta araxe biltzen da, andik laister, Gartzea'ren alargun Andre Urrea, eta urte gutxi barru baita Monastegiko Abadesa izatera iritxi ere. Alaxe, bere semeak jakin gaberik, ama bera da Santxol'en urratsak zuzentzen dituana, gaur edo bigar Naparroa'ko Errege izatera eldu dedin. Urdaspal du. Andre Urreak laguntzalle, lan berezi artan.

Urteak joan. eta urteak etorri, aunditu alean, asten, asi, "Urko"ere, berebiziko guda-burrukak egiten, Pirenez beste aldean, Bayona'ren jabe egin diran wikingoen aurka.

* * *

Zunbeltz'ek ez ditu begi onez ikusten "Urko"ren garaitza oyek. Areago oraindik, Jakiten duan.ean, bere alaba Lore ta "Urko" elkarrekin "da-biltzala". Eta, ezin-eramanaren ezin-eramanez, or asten da artu-emane-tan wikingoakin berakin, mutil uraxe al dan bezela erriaren aurrean zikindu ta ondatzeko asmoz. Ba'da ortarako ingura ayetan ala-olako gizon misteriózko bat, Burni, zintzarri-egillea, wikingoa, normandarra, zintza-ffi-saltzen euskal-baserrietan ere sarrera duana. Burni'k esaten dio Zunbeltz'i, nola zikindú dezákean "Urko" ura. Befé alaba Sorgin'ek artu

dando con vida el sobrino a quien pretendía itiatar, y a quien, en efecto, él le cree muerto. Y, libre ya de competidpres, iniciauna serie de campañas guerreras, de las que fatalmente sale siempre désgraciado.

* ff *

La casa de Aibar tiene —a falta del amo— un fidelísimo criado, llamado Urdaspal, del nombre de su pueblo de origén, un pequeñó pueblo allá en el Pirineo roncalés, donde por añadidura hay desde fiempo inmemorial un gfan Monasterio de Monjas. Urdaspal es márido de Otxandeta, nodrina del hijo de la Casa de Aibar. Y es precisamente él quien, por servir mejor a la casa de sus Amos, suplantó aquella noche en la cuna al niño Santxol por su propio hijo Urko, muriendo como sabemos^ éste, y quedando con vida el hijo de sus Amos.

Después de los hechos, Urdaspal se retira al pueblo de su nombre, llevándose consigo a su esposa Otxandeta y al niño Santxol, que ya en adelante se llamará Urko, considerándosele por todos como hijo del criado y la nodrina. Al poco tiempo se retira también de Aibar e iingresa secretamente en el Monasterio urdaspalense la viuda de Gartzea, Dña Urrea. Doña Urrea, que bien pronto llegará a ser Abadesa del Gran Monasterio.

Al correr de los años va creciendo el presunto niño Urko bajo la mirada atenta y discreta de su miádre, y sobre todo bajo la experimentada conducta y disciplina de Urdaspal, el cual lo educa en efecto para Rey, si bien lo trata siempre como hijo propio sin revelarle su verdadera filiación. El chico, obedeciendo inconsciehte a los impulsos de su sangre, va resultando un precoz conductor dé bandas de muchachos de su edad, que se atreven a luchar contra los propios hormandos invasores del País, en frecuentes escaramuzas más allá del Pirineo, en la región de Lapurdun (Bayona).

Esto disgusta terriblemente a Zunbeltz; disgusto que sube de tono cuando llega a saber que Urko quiere a su hija Lore, la cual a su vez corresponde al interés y cariño del muchacho.

Los celos que le acosan por esté doble motivo, le inducen incluso a entrar en tratos cón los propíos' nórmados de Bayona, concretamente con un mistefioso personaje, espía hórmando, Burni por nombre,. q.uen

dezala mutilla bere gain, eta ikusiko duala, neskaren maitatzalle eta normandarren adiskide nola egingo duan azkar asko... Bañan dana alperrik; mutillak leyal jarraitzen du bere Lore'ren eta bere Euskalerriaren maitasunean.

Sfc *fc <£

Bitartean, normandarrak, wikingoak, Bayona'ren jabe diranez, or prestatzen dute guda-eraso bat Iruña'ren jabe egiteko. Eta ba'dijoaz sail izugarrietan erririk-erri, Burni gidari dutela, gora ta gora, Belate-aldera. Burni'k, guztion aurretik Bayona'ko Gotzai Leon Donearen burua daranaki azta-makil luze baten muturrean. —Bidean datoza, erri txiki batetan topatu dute ta il—. Leon. Donearen buruaz gañera, euskaldun gizaseme-sail aundiak dakarzkite, lotuak, eta ayekin batean baita emakume-sail batzuek ere. Bañan Belate'ko leporaño eldu diraneko, an dago "Urko" bere mutil batzuekin. Antxe itxedoten die, beetik gora datozenei. Ez dijoa, orratik, burrukan astera. Azarikeri bat prestatu nai die baizik... Ogei bat zaragi-ardo napar, bide baztarrean utziak... Normandarrak, edale onak bezela, or moskortzen dira ondoraño; eta euskaldunak, "Urko" buruzagi dutela, ebaki gaizto egiten dituzte eta zearo txikitzen ezpata-dantza bikain batean. «Urko»ren izena dabil bitartean guztion aotan azarikeri polit onen asmatzalle bezela.

* * *

Normandarren sarrera onen ondoren, Naparroa'n gero ta geyago nabaritzen da Errege baten bearra; eta Belate'ko garaitzaren ondoren, gero ta geyago zabaltzen da "Urko"ren izen aundia Erregetzarako.

Gauzak ontan daudela, Naparroa'ko Batzar Nagusirako deya banatzen da,-Efrége aukeratzeko Batzarra egin, bear da Leire'ko Monastegi aundian. An batzen dira Menditar eta Erriberatarak. Eta guztion artean an dator baita Urdaspal'ko Abadesa ere, eskubide duan bezela, berak ere bere itza esatera Batzar Nagusi artan. Ustezko Urko ta benetako Santxol dakarki —morrontxo bezela— bere aldamenean. Urdaspal ere an datór, ezkutari bezela, biokin batean...

Leire'ko Abataren ondoren, Zunbeltz'ek itz egiten du Batzarrean, eta bere burua eskeintzen eta aurkezten Naparroa'ko Erregetzarako, Gar-

por medio de su hija Sorguín, se compromete a seducir al muchacho, para luego acusarlo de traición ante los vascos. Intentos que salen completamente fallidos.

* * *

Entre tanto los normandos —dueños de Bayona y sus alrededores— guiados por el espía Burni, preparan una victoriosa expedición, sobre Iruña a través del Puerto de Belate. Los normandos invasores son numerosísimos. Y, además de muchísimos prisioneros vascos que han, cogido en la expedición, llevan consigo, como gran trofeo, la cabeza del Obispo de Lapurdun —San León— asesinado por ellos al iniciar la expedición. La Santa Cabeza es portada en la punta de rnia larga pica por el propio Burni, el espía —ahora guía de tropas— de los invasores normandos.

En el alto de Belate los espera Urko. Pero no precisamente con un ejército, sino con una emboscada. Una emboscada a base de un buen número de pellejos de vino navarro, con los que los normandos organizan una bacanal, emborrachándose a conciencia, dando esta estratagema ocasión a una resonante victoria vasca, que todo el País sabe que se debe a la ingeniosa táctica del presunto Urko.

!e s^ *S

Con este intento de invasión normanda crece en Navarra el deseo de un Rey, y con la victoria de Belate crece el prestigio del joven Urko como candidato al trono navarro.

Y en tales circunstancias se convoca Asamblea General del País en el Monasterio de Leire para la elección de Monarca. Se reunen en la Sala Capitular del gran Monasterio los representantes de las Cendeas y Merindades de la Montaña y de la Ribera. Entre aquellos representantes asiste también con derecho propio la Abadesa del Monasterio de Urdaspal, Doña Urrea, la cual lleva consigo al presunto Urko como paje y a Urdaspal como escudero.

Naturalmente Zunbeltz presenta a la Asamblea su propia candidatura. Pero le sale al paso el fiel Urdaspal. Le increpa Zunbeltz, exigiéndole títulos para oponérsele. Urdaspal le recuerda el crimen de las cunas,

tzea zanaren anái bezela. Urdaspal mintzatzen da urren: Zunbeltz'en aurka gaþbi-garbi. Zunbeltz'ek ixilduerazi nai luke Urdaspal, eta ia bera nor dan galdetzen dio, Zunbeltz baten aurka mintzatzeko. Urdaspal'ek seaskaetako gertaera gogoratzen dio, bañan esanaz, gau artan il zuana, etzala izan, berak uste bezela, beré illoba Santxol, Urdaspal"en seme Urko baizik, eta, orregatik, ildako semetxoaren aita danez salatzen duala orain guztion aurrean iltzalle bezéla, etá aurkezten duala gañera SAN-TXOL GARTZEIZ gaztea —Aibar'ko Gartzea'ren eta Andre Urrea'ren seme ederra—• Naparroa'ko Erregetarako.

Zunbeltz era artan buþrukatua, zearo asarretzen da, eta ateratzen du bere gerriko ezpata, eta ekiten dio Urdaspal'i. Urdaspal'ek ere neurri berean erantzuten dio... Bañan, biok ezpata-jokuan gogor ari dirala, or sartzen da tartean Lore... eta ustekabean aitak ezpataz jotzen du alaba, eta iltzear uzten. Batzar guztiak oyuz ekiten dio Zunbeltz'i, bi aldiz iltzalle danari bezela. Lore iltzen da, il, gertatu dan guzia bere aitaren gaiztakeriaren ZIGORRA izan dala esanaz.

Batzarrak ez du zigortu nai Zunbeltz, merezi duan bezela; bañan basamortura joan dedilla eskatzen dio oyuka. Eta Zunbeltz —^Kain berri— erdi-zoratua, an dijoa ixil eta makur, bere lotsa Urbasa'ko basoetan ezkutatzena, eta antxe bizitzera basa-pizti bezela, gaur oraindik "Zunbeltz" izena duan baztar illun batean.

Monastegiko fraideak eramat.en dute Lore gaxoaren gorputz errugabea lur ematera, Batzarrak Errege berriaren Ereserkia kantatzen duan artean, eta Santxo Gartzeiz'ek bere Lore kutunari illeta garratza abesten dion artean.

Batzarreko morroi gazte batek, buruki biguin gorri baten gañean Naparroa'ko Errege-koroi urrezkoa dakarki geldiro-geldiro.

revelándole además que el niño a quien asesinó, no era Santxol, sino el propio hijo del demandante, Urko, lo cual le daba títulos para acusarle solemnemente ante la Asamblea, al propio tiempo que le daba también pie para presentar como candidato al Trono al joven su pupilo Santxol Gartzeiz, el hijo de Gartzea de Aibar y de Doña Urrea, allí presente. Doña Urrea, que asistía con él velo echado, "sé descubre en este momento y confirma el relato de Urdaspal.

Zunbeltz, ante su fracaso total, tira furioso de espadá contra Urdaspal, el cual se defiende valientemente. Lore la hija de Zunbeltz, novia del presunto Urko, se interpone ciegamente entre las espadas de los contendientes, y su propio padre la hiere de muerte. El Coro increpa al dos veces asesino. Lore muere diciendo que todo ha sido *zigor*, el castigo de la ambición de su padre.

Zunbeltz, acosado por el pueblo —que no le quiere matar como merece— sale enloquecido de la escena, para vivir desterrado de la sociedad humana —nuevo Caín^r— en los bosques de Urbasa, donde habrá de construir su siniestra morada, conocida desde entonces por su nombre propio, Zunbeltz.

La acción termina con breves compases del Himno de la Coronación, en doloroso contraste con la súbita lameritacióri que Santxo Gartzeiz canta a la muerte de la infortunada Lore.

LENENGO EGINTZA

LENENGO GERTALEKUA

[Gertalekuaren sarrera-sarreran, Aibar-jeuregiko gela baten bi aldeak. Alde batean, zizallu batean, zear-etzanean, Urdaspal lo. Barrurago, Urdaspal'ek amets egiten duana : itxas-ertza, eta itxas-ertzean iru "maitagarri" —etorkizuna danten iru hada— dantzari; barrurago, age-ri ez, bañan igarri bai, arkaitz-ostean itxas zabala. Operak ez du ober-tutarik. Asita berealaxe lenengo Agertaldia].

I AGERTALDIA

URDASPAL bakarrik

[Urdaspal ametsetan. Iru "maitagarrien" dantza itxmsertzean (Ballaleta)].

TALDEA barrutik :

I. GO. MAIT.—Aize txarrak

dabiltz aspaldi ontan
aize txarrak!

Zertan dabiltz,

Lapurdun'dik eta Belate'raño
egan dabiltzan beletzarrak?

Euskalerri gaxoak

ez ote-ditu laister
ordu latz, ordu gaitz, gorriak

igaro bearrok?

... Bildurrez bizi naun,

gogoan beti—gaut'egun—
itz bi oyek : Belate, Lapurdun.

ACTO PRIMERO

CUADRO PRIMERO

En la escena (en primer término, a ambos lados) muebles de interior, del Palacio de Aybar. A la mano derecha, sobre un zizallu (rústico sofá antiguo) recostado duerme y sueña Urdaspal. En el fondo se ve lo que sueña: paisaje marino, acantilado; el mar se adivina más al fondo. Delante del acanulado, danzan tres hadas. La ópera no tiene obertura. Por toda obertura, el Ballet de las tres hadas.

I ESCENA

URDASPAL solo.

Urdaspal sueña. Tres Hadas del Destino danzan delante del acantilado. (Ballet).

CORO INTERNO :

HADA 1.^a : Siniestros aires, aires siniestros corren hace algún tiempo. Qué buscan esos cuervos, que van volando desde Lapurdun hasta Belate? No será que, muy luego, la amada Tierra Vasca habrá de pasar horas ásperas, horas difíciles y dolorosas? Vivo temblando, fijos en la mente, noche y día, estos dos nombres : Belate y Lapurdun.

2'GN. MAIT.—Lapurdun,

itxas-bazter ta itxas-erria dun
erri bakun.

Belite, bañan, goyen, laño-arteан baso illun; andik igan
litekean iñor atzerritarrik
sortu ez bait-dun.

3'GN. MAIT.—Euskalerri ederra, illun arkitzen da gaur;
ay! bañan laister du izango egun argi, laister.
Ba'dator Aibar'tik,
eguzki-antzera norbait. ,
alai, gazte, egoki ta eder...

II AGERTALDIA

URDASPAL bakarrik.

[Urdaspal ametsetan, Lapurdun (Bayona) normandarren eskuetan erortzeka arraixkuan. Normandarren itxasontzi-zapiak igarotzen dira batetik besterm itxas zabalean. Mariñelen abestia].

TALDEA :	Ekaitzaren seme gera, Jaungoiko Thor degu aita; gure seaska ibilpera ... itxas zabala izan bait-da. Aizea da gure poza orru-marruz danean; ark pozten digu biotza ontziak astintzean. Ekaitzaren seme gera, Jaungoiko Thor degu aita...
----------	--

III AGERTALDIA

URDASPAL bakarrik

[Jurdaspal ametsetan. Getari'ko itxas-begiraria, bertso-kantari. Bar-koxe'ko Beñaít Mardo'k, itxasora erne egoteko ailbista egin dio. Eta berak, bertso batean ajolakabe erantzun].

HADA 2.^a : Lapurdun es puéblo de la costa, bello pueblo; mas nuestro Belate no en vano lo puso el Señor de lo alto, arriba, como elevado puerto; no hay quien lo domine.

HADA 3." : Sombrío está hoy el bello País Vasco; mas luego tendrá días de luz. Llega ya de Aybar, semejante a un sol, al-guien... alegre, joven, apuesto, hermoso...

II ESCENA

URDASPAL solo.

Urdaspal continúa soñando. Lapurdun está en trance de caer en poder de los Vikingos (Normandos). Detrás del alicantilado de la costa, se ven desfilar velas normandas. Los Marineros normandos cantanu

CORO INTEBNO : Somos hijos de la tormenta; el Dios Thor es nuestro padre; nuestra movediza cuna fue el ancho mar.

Nuestro gozo es el viento que ruge; él alegra nvestro corazón, cuando sacude las naves.

Somos hijos de la tormenta; nuestro padre es el Dios Thor...

III ESCENA

URDASPAL solo.

Sigue soñando Urdaspal. El vigía de mar, de Guetary, canta una estrofa improvisada, en contestación a otra, que le ha transmitido Beñat Mardo de Barkoxe, recomendándole que vigile bien la costa de Bayona.

GETARI : Barkoxe'ko Beñat Mardo'k
gaur albiste bat neri :
begira dezayodala
ondo itxasoari...

Bañan nik erantzun diot
bertso bitan berari,
obe lukela, aurak antzo,
berriketan ez ari;
ura Barkoxe dala-ta
ni naizela Getari...

[Orkestak, normandarren ontzietatik lurreratzea eta euskalduneki-ko burruka latza adierazten du. Urdaspal, ikaratua, oraintxe esnaitzen da].

BIGARREN GERTALEKUA

[Lenengo gertalekuaren barru-aldea estaltzen da. Bigarren bçrrua azaldu arte, sarreran Urdaspal'ek kaintatzen du. Bigarren gertalekua, Aibar jauregiko etxé-barrua izango da. Zizalluak, alki txikiak eta seaska bi: bata bestea bttño apañugoal].

IV AGERTALDIA

[Urdaspal: esna-berri. Kantatri. Bere, Aibár jauregiagantko leyal-tasuna kantatzen du. Nagusi zanak agindu zion bezela, berak zaituko du, eriotzeráño, Gartzea'ren seme Santxol, eta Aibar'ko Etxea].

URDASPAL : Zer zan ori? ametsa al-zan?
buruko ille danak zutik ditut...
Zer zan, baña?
Ezurretarra izua, ikara, sartu didan ori,
zer ote-zan?
Gure Erri maitearen kalteren bat?...
...II zitzaigun Gartzea;
ta aren seme Santxol oraindik ume da;
aren inguruan, berriz, Erio dabil,
beletzar antzera,
sarraski-billa...

VIGIA : Beñat Mardo el de Barkoxe hoy me ha pasado aviso: que vigilé bien el mar. Yo le he contestado en dos versos, que mejor le cuadraría no decir tonterías como los niños; que él es un Barkoxe (de tierra adentro), yo, en cambio soy un Guetary (vía del mar)...

Los vascos prisioneros entonan una triste canción de circunstancias. Entre tanto empieza a iluminarse la cabeza de San León sobre la pica clavada en el suelo. Con el prodigo empiezan a animarse los prisioneros. Las Hadas intervienen con su Ballet, dando nuevos ánimos a los vascos.

CORO DE HOMBRES :

Vamos, vamos siempre para arriba, para arriba. Vamos sin saber a dónde...

Vamos siempre para arriba, para arriba, sin saber a dónde.

CORO MUJ. :

Arriba esos corazones! No debemos acobardarnos así. Arriba está nuestro buen Señor...

CORO GEN. :

Ten piedad de nosotros, Señor, desde el Cielo. Hemos pecado de sobra contra Ti. Perdón, Señor!

CORO HOMB. :

Vamos, vamos, vamos siempre para arriba, para arriba, sin saber a dónde...

CORO MUJ. :

Arriba esos corazones! Arriba está nuestro buen Señor...

GUZTIOK : (*Leon Donearen burua argitzen astean*)

Don Leo...

Lapurdon'go Gotzai Don Leo...

Don Leo'ren burua...

Ara! Itz egin nai digu!

Ene! Don Leo'k itz egin!

Entzun dezayogun adi-adi.

1'GO. MAITAGARKIA :

Gaba, ba'dijoia!...

2'GN. MAITAGARRIA :

Eguna ba'da'tor...

3'GN. MAITAGARRIA :

Zure da geroa... argi ta emankor.

VIII AGERTALDIA

[Normandarrak lo daudela, emakumeak laigundu-ta, gizonak askatzentzituzte beren eskumuturretako lokarriak, eta normandarrai ezpatak kendu-ta, or sortzen dute norma'ndarren bizkarretik triskantzm izugarri bat, Bizkai'ko Ezpata-dantza iduri. D'antza amaitzean, Urko dator bere lagunakin, normandar-taide bat loturik dákartela, eta ayen. artean Burnigidiaria].

BAJOAK : (*Bilduirez*)

Mutillak!

EMAKUMEAK :

Mitillak!

TENORAK:

Azkar! Lo zeudek.

BAJOAK :

Azkar!

TENORAK :

Azkar!

CORO GEN. : (*Ermpieza a iluminarse la cabeza de San León*)

San León... el Obispo de Lapurdun, San León... La cabeza de San León... Oh! nos quiere hablar. Escuchemos con atención.

HADA 1.":

La noche se retira...

HADA 2.":

Llega ya el día...

HADA 3.":

Tuyo es el porvenir, claro y prometedor.

VIII ESCENA

Mientras duermen sus borracheras los mormandos, los prisioneros vascos, ayudados por las mujeres, sueltan las umarras de sus puños, y desarmando a los dormidos, organizan con sus espadas una impresionante nmitanza (Ballet), a modo de Ezpatahdantz Vizcaína. Al final de la escena, llegan Urko y sus compañeros, llevando varios presos normandos y enltre ellos al espia Burni.

BAJOS : (*Con temor*)

Muchachos!

MUJERES :

Muchachos!

TENORES :

Pronto! que duermen!

BAJOS :

Pronto!

TENORES:

Pronto!

EMAKUMEAK :

Azkar! (*Ezpatak kentzen*).

GIZASEMEAK : (*Oyuka*)

Eldu aguro! kendu azkonak...

EMAKUMEAK : (*Oyuka*)

Don Leo gure alde! ! (*Adar-turutak*)

NORMANDARRAK : (*Erdi-lo*)

Oh! oh! Zer da? Ah! Nor da?

GIZASEMEAK :

Jo ditzagun bildur gabe!

NORMANDARRAK :

Etsayak? Euskoak?

GIZASEMEAK : (*Lotzen*)

Lotuta eraman; aurrera!

EMAKUMEAK :

Garaitzalle gera! Aurrera! !

NORMANDARRAK :

Ah! Jainko Thor! ! Orra galduak! Ah!

GUZTIOK : (*Ezpata-dantza*)

Dantza ezpatak, mutillak! dantza ezpatak! iota txiki Ah!
Dei-adarra!

dei-adarra!

dei-adarra! !

Jaurti azkonak!

jaurti azkonak!

Jo azpitik!

jo gogor!

Kanta dezagun etsayaren illeta!

kanta etsayaren gau-illa! kanta!

MUJERES : (*Desarmando a los dormidos*)

Pronto!

HOOMBRES : (*A voces*)

Andad listos! quitadles lás lánzas!...

MUJERES : (*A voces*)

San León por nosotros! (*Tompetas*). -

NORMANDOS : (*Medio despertos*)

Oh! oh! qué es esto? Ah! quién va?

HOMBRES :

Azotémoslos sin temor!

NORMANDOS :

Los enemigos? los vascos?

HOMBRES : (*Maniatándolos*)

Atémoslos, y llevémoslos. Adelante!

MUJERES :

Los hemos vencido! adelante!

NORMANDOS:

Oh! Dios Thor! Estamos perdidos. Ah! !

CORO GEN. : (*Ezpata-dantza*)

Muchachos! danzad las espadas! danzad! dále! hacedlos polvo!
Ah! ! trompetas! trompetas! trompetas! Lanzad las saetas! lanzad
las saetas! Por el vientre! duro ahí! Cantemos la muerte del ene-
migo! cantemos, sí, el duelo de nuestro enemigo! Alérgense los

Poza bezate Pirene-mendiak!
poztu bedi naparra!
Poztu gaitezen euskaldun danok!
mendera degu normandarra.

(*Urko, Urdaspal ta TaMea, mormandar-sail bat eta Burni dahartela*).

GUZTIOK :

Garaitza! Aintza! aintza! !
Garaitza! Aintza! Aintza! !
Jaunak eman digu Garaitza.
Berari AINTZA!

Montes Pirineos! alégrese el navarro! Alegrémonos los vascos todos!
vencido es el normando.

(*Urko, Urdaspal y grupo vasco, trayendo prisioneros a un grupo 'de normandos con el guía Burni*).

(CORO GEN.)

Victoria! Gloria! gloria! Victoria! Gloria! gloria! El Señor nos
ha dado la victoria! A El sea gloria! !

LAUGARREN EGINTZA

BOSKARREN GERTALEKUA

[Leire'ka Monastegi aundia. Monastegiko Batzar-lekua. Klaustroa al-damenean].

I AGERTALDIA

[Naparrom'ko Zendea guzietatik, Errietako Ordezkoak datioz, Errege aukeratzera. Elkarri diosal, abesti eder batean. Ordezkoen artean, Andre Urrea, Urdaspal'ko Monastegiko Abadesa, aurpegia estalirik. Aren ondoan, "Urko" eta Urdaspall.

TALDEA:

Menditarrak, agur!
ta agur, Nafarrak.

URDASPAL :

Azkarrak gera gudatean;
gaitezen gizon pakean.

TALDEA :

Azkarrak gera gudatean;
gaitezen gizon orain, pakean.
Mendiak sortu ginduan bein;
mendiak beti babestu.
Gure jatorri garbi onek
oberikan iñun ez du.
Mendiko ur onak bezela
bizi gaitezen garbi beti, eta indardun,
gaudela orain ta beti
eusklaldun.

ACTO CUARTO

CUADRO QUINTO

El gran Monasterio navarro de Leire. Sala Capitular del Monasterio, sede de las Cortes de Navarra. Lateral, la puerta que da al Claustro.

I ESCENA

De todas las Cendeas y Merindades de Navarra, llegan apoderados a hacer la elección del Rey. Se saludan mutuamente y entonan un Himno. Entre los apoderados, viene también la Abadesa del Monasterio de Urdaspal (cubierta la cara con velo). La acompañan Urko y Urdaspal.

CORO GENERAL:

Montañeses, adios! Adios, ríberos!

URDASPAL:

Somos bravos en la guerra; seamos hombres, en la paz.

CORO :

Somos bravos en la guerra; seamos hombres, ahora, en la paz. La montaña nos dio un día el ser; la montaña nos protegió. Este limpio origen nuestro, no tiene pareja en parte alguna. A modo de las buenas aguas del monte, vivamos siempre puros y esforzados, conservándonos ahora y siempre vascos.

ZUNBELTZ :

Umekeriaak alde batera, ta
Batzar ontan Errege autatu dezagun.

TALDEA :

Menditarrak, agur!
ta agur, Nafarrak.
Mendiak sortu ginduan bein;
mendiak beti babestu.
Gure jatorri garbi onek
óberikan iñun ez du.
Mendiko ur onak bezela,
bizi gaitezen garbi beti, eta indardun,
gaudela orain eta beti
euskaldun;
Garbiak eta indardun,
eta euskaldun.

II AGERTALDIA

\Leire'ko Abatak irakurtzen du Batzarrerako deya. Errege izendatu bear da Naparrua'rentzat. Zunbellz'ek bere izena ematen du. Urdaspal'ek aurkm egiten dio. Gartzea'ren seme, Santxol, bizi da... Andre Urrea'k aurpegia agertzen du. Arriturik danoh].

LEIRE'KO ABATA :

Ara, Jaunak!
Ondo etorri zaitezxtela
Leire'ko Monastegi zaiTera,
oitura dan bezela.
Errian aldaketak ditugu,
eta danoh iritzia
jakin bear degu garbiki.
Menditarrak eta Nafarrak,
erabaki,
nor bearko dezuten Buruzagi.

ZUNBELTZ :

Fuera niñerías, y procedamos en esta Asamblea, a elegir Rey.

CORO :

Montañeses, adiós! Adiós!, ríberos! La montaña nos dió un día el ser; la montaña nos protegió. Este limpio origen nuestro, no tiene pareja en parte alguna. A modo de las buenas aguas del monte, vivamos siempre puros y esforzados, conservándonos siempre vascos... puros, esforzados y vascos.

II ESCENA

El Abad de Leire lee la convocatoria de la Asamblea. Es necesario elegir Rey para Navarra. Zunbeltz presenta su candidatura. Se le opone Urdaspal. «El hijo de Garcea de Aybar, Sanchol vive». Urrea se quita el velo. Admiración general.

ABAD DE LEIRE :

Señores! Seáis bienvenidos al viejo Monasterio de Leire, como habéis de costumbre. Mudanzas tenemos en el Pueblo, y es menester conocer claramente los pareceres de todos. Montañeses y ríberos: decid quién ha de ser vuestro *Buruzagui*, vuestro Jefe.

TALDEA : (*Ten. Sopr.*)

Orra! prra! orra, etorri gera
Euskoen BuruzagÍá aukeratzéra.

URDASPAL:

Ona dedilla aukera.

TALDEA : (*Baj. Contr.*)

, . Galduak bait-gera béstela.

ZÚÍVBÉLTZ :

Ona, Jaunak, ni emen, Buruzagi izateko izenik gorena dedana.

TALDEA :

Zunbeltz Jauna, euskoen Buruzagi...

URDASPAL : Itzalle gaizto bat Buruzagi?

Ba'degu, Jainkoarren, aurreragoko danik.

Loftie: " '

Ene bada! ene bada! Ah!

TALDEA :

Iltzalle? Iltzalle? Iltzalle al-degu Zunbeltz?

ZUNBELTZ :

Htzalle naizela? eta aurreragokorik ba'dala?
Nun dago, bada — ala Jainko! — morroikume bat ez bada?

URDASPAL:

Ixo!
Illunik zegon Aibar'ko jauregia,
Etxeko Nagusia il zalako.
Ainbat ere illunago zitekean, ay!
semea il balitzako.
Alare, norbaiten alegiñak arren,
bizirik — bizirik, bai — gure artean dago...
nere semea bait-litzan,
Gartzea'ren semea bizirik dago...

TENOKEs, SOPRAN.:

Atención! atención! ateneión! Hemos venido a elegir al Jefe de los vascos.

URDASPAL :

Sea buena la elección...

BAJOS, CONTRAL. :

...perdidos somos de lo contrario.

ZUNBELTZ :

Señores : heme aquí yo, que tengo el mejor nombre para ser Jéfe.

CORO GEN.:

El Señor de Zunbeltz, jefe de los vascos...

URDASPAL:

Jefe, un mal asesino...? Vive Dios! que hay alguien con mejor derecho!

LORE : (*Presintiendo*)

Ay! Dios mío! Ah!..

CORO :

Asesino? asesino? es asesino Zunbeltz?

ZUNBELTZ :

Que soy asesino? y que hay alguien con mejor derecho? Dónde está —Vive Dios!— ese tal, como no sea el hijo de un criado?

URDASPAL:

Escuchad: Triste estaba el Palacio de Aybar, porque se había muerto el Señor de él. Más triste estuviera, ay! si también se muriera el hijo. Sin embargo, y a pesar de los empeños de alguien, vivo está el hijo de Garcea de Aybar —vivo, sí— entre nosotros... eual si fuera mi propio hijo.

TALDEA : (*Arriturik*)

Urko, Santxol Gartzeiz? Urko, Santxol Gartzeiz?
nola, bañan? nola liteke?

LORE : (*Arritu-arriturik*)

Nere Urko? nere Urko? nola diteke?

URREA : (*Musu-zapipean*)

Ah!... aditu nai aldezute?

LORE:

Ene!

TALDEA :

Mintza zaite!

URREA:

Adi ezazute.

ZUNBELTZ :

Ixo! ixillik!

Nor aizen ba'zekiñat: Otxandeta.

URREA :

Ez; il zan iñude gurea;

bañan bizi gera semea t'ama, Santxol ta Urrea... (*Musu-zapia ken-iduaz*).

TALDEA : (*Arriturik*)

Urrea! !

III AGERTALDIA

[Andre Urrea'k agertzen du, Gartzea il ezkeroko bere ibillera guztia. "Urko'k" orain jakiten du bere jatorria. Errege izatea geyegi deritzayo beretzat. Bañan erriaren gogoa ikustean, apaltzen dai].

URREA :

Ah! Aibar'ek esan nai du bere itza nere abotik...

Ogei urteren buruan emen naukazute.

COKO : (*Admiración*)

Urko, Sanchol Garceiz? Urko, Sanchol Garceiz? Mas, cómo? cómo puede ser?

LORE :

Mi Urko? mi Urko? cómo puede ser?

URREA : (*Aún bajo el velo*)

Ah!... queréis oirme?

LORE :

Dios mío!

CORO :

Hablad.

URREA :

Escuchadme.

ZUNBELTZ:

Calla! silencio! Sé quién eres : Ochandeta.

URREA :

Ochandeta, no. Murió ya nuestra nodriza. Pero vivimos aún el hijo y la madre : Sanchol y Urrea (*Se quita el velo*).

CORO : (*Admiración*)

Urrea! !

III ESCENA

Urrea cuenta su odisea del retiro de Urdaspal. Urko conoce ya su origen. Le parece demasiado para sí el ser Rey. Pero se allana al conocer el deseo del Pueblo.

URREA :

Ah! Aybar quiere hablar por mi boca... Aquí me tenéis después de veinte años.

URKO :

Ogei urteren buruan ama zaitudala dakit.

URDASPAL :

Seme bat, eder eta galantik, zuala dakizute...

URREA :

Guztio ixillik, Jainkoak jakinik,
Urdaspal'ko Monastegian,
azi al izan det sendorik.

URKO :

Ez bait-nekian, baña, nik
Aibar'ko semea nintzanik.

URDASPAL :

Naparroa'ko Errege egunen batean zitzagun,
nere Urko bait-ziñan azi bait-zaitut nik.

URREA:

Santxo Gartzeiz, Santxo Gartzeiz, nere seme,
eguzkiza bezain ederra zerana...
Naparroa'ko Errege izango dana...

URKO :

Ama, bañan nola diteke?... Aundi-nai txar batek geyegi txoratzen
ez ote-gaitu?

TALDEA, URD. :

Erriak egingo zaitu...

URREA:

Aditu dezu. Erriak maite-maite zaitu.

TALDEA :

Ah!

URKO :

Al cabo de veinte años supe que sois mi madre.

URDASPAL:

Sabéis que mi Señora tenía un hijo hermoso y apuesto...

URREA :

En el Monasterio de Urdaspal —en secreto para todos menos para Dios— lo he podido criar tan fuerte. .

URKO :

Bien que ignoraba yo mismo, que fuese hijo de Aybar...

URDASPAL:

Para que un día fueses el Rey de Navarra, te crié yo como si fueras mi hijo Urko.

URREA:

Sancho Garceiz, Sancho Garceiz; hijo mío; hermoso como un sol... destinado a ser el Rey de los Navarros.

URKO :

Madre mía : cómo ha de ser?? No será, quizás, que mala ambición nos ciega en demasía?

CORO, URDASP. :

El Pueblo es quien te elegirá.

URREA :

Lo has oído? El Pueblo te quiere.

CORO :

Ah!

IV AGERTALDIA

[*Lore, here Urko'ren jatorria jakitean, erdi-poz, erdi-bildur, irauh tzen da bere maitearen besoetara. Zunheltz'ek, erdi-zoratuta, ateratzen du beste bein bere ezpata, eta erasotzen dio Urdaspal'i. Urdaspal'ek ere berdin egiten dio Zunheltz'i. Ori ikustean, berriz ere Lore sartzen da bion tartean, eta aitak jotzen du ezpataz, eta iw illean uzten. Urko ta Lore'ren azken-kanta. Lore'ren eta aitaren alkar-izketa. Lore W\.*

LORE : (*Urko'ren besoetan*)

Urko!!

URKO :

Lore!!

ZUNBELTZ : (*Ezpata eskuan*)

Urdaspal! Nik ilko aut!

URDASPAL : (*Ezpata eskuan*)

Ay! Zunbeltz gaizkille!

TALDEA :

Ah! ekin ortxe!

LORE : (*Bildurrez*)

Jainkoak zaitu gaitzala, zaitu gaitzala...

URKO :

Etzaitela ikara;
nik zaituko zaitut

LORE:

..Alperrik ez bada.
Ay! nere Urko!

URKO :

Ay! nere Lore!

ZUNBELTZ:

Aurki aiz illa!

IV ESCENA

Lore, ail conocer la verdadera personalidad de Urko, entre contenta y temerosa, se abalanza a los brazos de éste. Zunbeltz, enloquecido, tira de espada urva vez más, y ataca a Urdaspal. Urdaspal se defiende.

Lore se interpone una vez más entre los contendientes, y su padre la hiere de muerte. Dúo de moribunda y Urho. Reproches de Lore a su padre. Muere Lore.

LORE : (*A los brazos de Urho*)

Urko!

URKO :

Lore!

ZUNBELTZ : (*Furioso, tira de espada*)

Urdaspal: te he de matar!

URDASPAL : (*Tira de espada*)

Ay! malvado Zunbeltz!

CORO : (*Animando a Urdaspal*)

Ah! fuerte ahí!

LORE : (*Tembladó*)

Que Dios nos proteja; nos proteja Dios!

URKO :

No temas; también yo te protegeré...

LORE :

. quizás en vano. Ay! Urko mío!

URKO :

Ay! Lore mía!

ZUNBELTZ :

Muerto eres luego!

URDASPAL:

Etorri adi!

ZUNBELTZ :

Ez daukak ik odolik!

URDASPAL :

Ik ez dek lotsarik!

TALDEA:

Ia, Urdaspal, ia! zapaltzak!

LORE :

Nere aitak zure aita ...

URKO :

Nere aitak zure aita...

URDASPAL:

Etorri!

ZUNBELTZ :

Ilko aut!!

LORE :

...ilko du! (*Tartean sartzeko keñada*)

URKO :

Ez, Lore! Geldi!

URREA :

Ezpatak geldi! arren, geldi!...

LORE : (*Tartean sartuaz*)

Aita! ! (*Atik ezpataz jo, ta ia-illean utzi*).

TALDEA : (*Jkara-oyu*) Ah! !

ZUNBELTZ : (*Mttkur alabari*)

Gaxoa, illa...

URDASPAL :

Ven, si vales!

ZUNBELTZ :

Tú no tien.es sangre!

URDASPAL:

Tú no tienes honor!

CORO :

Ea! Urdaspal! ! ánimo! aplástalo!

LORE :

Mi padre a tu padre...

URKO :

Mi "padre" a tu padre...

URDASPAL :

Ven!!

ZUNBELTZ :

Te mato!!

LORE :

...lo matará. (*Huce gesto de interponerse*).

URKO :

No, Lore! quita! (*sujetándola*).

URREA :

Quietas las espadas! por Dios, quietos!... (*Pero sigue el duelo*).

LORE : (*Se suelta y se lanza*) Padre! ! (*Su padre la hiere de muerte*).

CORO : (*Grito de horror*)

Ah!!

ZUNBELTZ : (*Inclinándose sobre su hija*)

Pobre! muerta!!

URKEA :

Lorea, illa!

URDASPAL :

Lore gaxoa!...

TALDEA :

...Zunbeltz'ek illa!

URICO : (*Apal-apal*)

Lore!

LORE : (*Begiak zabaldua*)

Urko : atozkit.

URKO :

Emen naiz, nere Lore.

LoRE:

Atoz, ba'nua.

URREA : (*Berekikó*)

Gaxoa, ba'dijua.

URKO :

Nere biotzeko Loretxo laztana...

LORE:

...ametsa zan dana.

TALDEA :

Ay, au lana! au lana!

ZIINBELTZ :

Neronek il det, neronek.

URDASPAL : (*Berekikó*)

Ií alaba...

URKO : (*Biok*)

Txiki-txikitandik...

Z I C O R

URREA :

Lore muerta...

URDASPAL:

Pobre Lore!...

CORO :

...muerta por Zunbeltz!

URKO : (*Dolorido*)

Lore!

LORE : (*Abre los ojos*)

Urko : ven.

URKO :

Contigo estoy, Lore mía.

LORE :

Acércate; que me muero.

URREA :

Pobrecita; se muere.

URKO :

Lorecho querida de mi corazón...

LORE :

...todo fue un sueño.

CORO :

Ay! qué contrariedad!

ZUNBELTZ :

Soy yo quien la maté...

URDASPAL:

...a la propia hija.

URKO :

Desde nuestra niñez...

LORE:

...elkarrentzat...

URKO :

...izanak gera...

LORE :

. . . ni zure ... zu neretzat...

URKO :

...elkarrentzat... bañan zeruan...

LORE:

...zeruan.

TALDEA:

Jaunak nai zuau. (*Urko baztarreratu*).

ZUNBELTZ : (*Izketan Lore'ri*)

Lore...

LORE : (*Izketan*)

Aita, . . . aita... gizon gaiztoa...

ZUNBELTZ : (*Kantuz*)

Zaudé ixillikan...

LORE : (*Kantuz*)

Cizón gaiztoa...

ZUNBELTZ :

...arren, ixillik...

LORE:

Ezpata odolez beterik dezu...

ZUNBELTZ :

Ez aipatu! ez aipatu, ez.

LORE :

Egin dezun gaiztakeri dana
zeruko Jaunak barka bizaizu...

LORE:

...siempre juntos...

URKO :

...hemos vivido...

LORE:

...yo para ti... tú para mí...

URKO :

...siempre así... Pero ya, será en el cielo...

LORE:

...en el cielo.

CORO :

Dios así lo quiso. (*Vrho deja lugar al padre*).

ZUNBELTZ : (*Habkdo*)

Lore...

LORE : (*Hablado*)

Padre... padre... hombre malvado...

ZUNBELTZ : (*Canta*)

Calla!..

LORE : (*Canta*)

Hombre malvado.

ZUNBELTZ :

...calla, por favor...

LORE :

Teñida en sangre tienes tu espada...

ZUNBELTZ :

No me lo recuerdes; no me lo recuerdes, no!

LORE :

Que Dios te perdone todo el mal que hiciste...

ZUNBELTZ:

II zaitut;
nere Lore, nik il zaitut; nik il zaitut!

URREA, URK. URDASP. :

Lore gaxoa! Patu gogorra! gogorra!

TALDEA:

Lore gaxoa! zurea, bai, patu gogorra!

LORE:

Ez; ZIGORRA... zigor... zigorra... Ah! (II)

ZUNBELTZ : (*Oyuka*)

Ez!!

TALDEA : (*Itzez*)

Zigorra!

ZUNBELTZ : (*Oyuka*)

Ez!!

TALDEA : (*Itzez*)

Zigorra! zigorra! zigorra!

ZUNBELTZ : (*Oyuka*)

Ez!!!

TALDEA : (*Itzez*)

Zigorra! zigorra! zigorra! zigorra! zigorra!

URREA, URK., URD. :

Ez-bearra! ez-bearra! ez-bearra... Gaxoa!

V AGERTALDIA

[*Zunbeltz'en illeta bere alabari. Erriak gogor egiten dio Zunbeltz'i. Zunbeltz basora betiko.*]

ZUNBELTZ :

Au zorigaitza! zorigaitza! Au zorigaitza!
Alaba il det, il alaba, neronek...

ZUNBELTZ :

Yo te he muerto, Lore mía! yo te he muerto.

URD. URK. URR. :

Pobre Lore! Dura fatalidad!

CoRO:

Pobre Lore! Sí que dura fatalidad la tuya!

LORE:

No, CASTIGO... castigo... castigo... Ah! (*Muere*).

ZUNBELTZ : (*Enloquecido*) (A gritos)

No!!

CORO : (*Hablado*)

Castigo! !

ZUNBELTZ : (*Grito*)

No.II

CORO : (*Hablado*)

Castigo! castigo! castigo!

ZUNBELTZ : (*Grito*)

No!!!

CORO : (*Hablado*)

Castigo! castigo! castigo! castigo! castigo!

URD. URK. URR. :

Desgracia! desgracia! desgracia! Pobrecita!

V ESCENA

*Llanto de Zunbeltz sobre su hija muerta. El Pueblo increpa a Zun**
beltz. Zunbeltz pide clemencia y se destierra para siempre.

ZUNBELTZ :

Qué desgracia! desgracia! qué desgracia! He dado mierte a mi hija,
 a mi hija, por mi mano...

m

MANUEL DE LEKUONA.—OBRAS COMPLETAS

(ZtTNBELTZ) :

Loretxo! Loretxo gaxo, nere alaba maite bakarra...

TALDEA : (*Itzez*)

Basatitzarra! !

ZUNBELTZ :

Gaur arte beti izan zaitut nere zorion;
gaur, berriz, nere zoritzarra.

Loretxo! Loretxo gaxo!

Aitaren besoan, len seaska goxo;
gaur, berriz, dezu usterik-gabeko eriotza.

Eriotza, nola bañan?

Aitaren eskuan ezpata zorrotza...

EMAKUMEAK :

Ah!

GIZASEMEA :

Iltzalle!

ZUNBELTZ:

Lore laztana! Amarik gabe azi zaitut neuk
nere egunen pozkarri.

Ai! bañan alperrikan;
gaurtandik etzaitut pozkarri;
gaurtandik enere zartzaroan arri...

TALDEA:

Urkatu adi! zertan ago?
Zertarako dek ezpata?
Alaba il dek! zertan ago?
Urkatu, ui'katu adi!

URREA, URK. URD.

URDASPAL :

Seme bat nuan nik eguzkia bezelako;
seaskan gizon ónek il zidan...
bañan barka diot...

(ZUNBELTZ)

...Lorecho, pobre Lorecho, mi querida hija única.

COKO :

Salvaje!!

ZUNBELTZ:

Hasta hoy has sido siempre mi gozo; de hoy más, mi tormento. Lorecho! pobre Lorecho! En los brazos de tu padre tenías antes suave cuna; hoy, en cambio, inesperada muerte. Muerte, y qué muerte? aguda espada en mi propia mano.

CORO : (*Mujeres*)

Ah!...

CORO : (*Hombres*)

Asesino!

ZUNBELTZ:

Huérfana de madre, te crié yo propio para alivio de mis días. Ah! mas en vano; desde hoy no eres mi alivio; eres la pesada losa de mi vejez.

CORO :

Ahórcate! a qué esperas? para qué tienes la espada? Has matado a tu hija! a qué aguardas? Mátate, mátate ya.

URD. URK. URR. :

No! Hagamos las paces.

URDASPAL :

Tenia yo un hijo como un sol; este hombre me lo mató en la cuna; pero se lo perdonó...

TALDEA:

Iltzalle da! zigor!

ZUNBELTZ :

Ez, arren! ez, arren!
Arreii, ez! ez! arren, ez!

TALDEA:

Onek odola zor du;
orain da ordu;
urka dezagun...

ZUNBELTZ :

Jaungoikoarren!
barka, barka, barka, barkatu!
Jaungoikoarren!

TALDEA :

Urkatu! ! urkatu adi or!

ZUNBELTZ :

Orain aitortzen det nere okerra.
ZIGOR, auxe bai zigor; (*Basora dijoá*)
auxe bai zigor!
zigor, zigor, zigor...

VI AGERTALDIA

[*Leire'ko fraideak, Lore'ri lur ematera. Santxo Gartzeiz'ek illeta garratza bere maite kutun Lore'ri. Erriak Errege berriaren ereserkiá*].

URREA, SOPR. CONTR. : (*Lantugíñan*)

Ah!

URKO :

Nere Lore! nere Lore! nere maite doakabea!
Odoletan gorri,

CORO :

Es asesino; castíguesele!

ZUNBELTZ :

INo, por favor!... Por favor, no!...

CORO :

Debe su sangre; ya es hora; colguémoslo!

ZUNBELTZ:

Por Dios! pei-dón... Perdonadme, por Dios!

CORO :

Mátate! mátate ya!

ZUNBELTZ:

Confieso mi maldad. Castigo! éste es mi castigo (*Mutis cabizbajo*)
Mi gran castigo! castigo! castigo! castigo... (*Se aleja*).

VI ESCENA

Los monjes de Leire levantan el cadáver de Lore. Sentido llanto de Sancho Garcés tras de su amada muerta... El Coro inicia el himno de la Coronación, entreverado por el llanto del héroe Rey.

MUJERES : (*Lhtnto*)

Ah!.....

URKO :

Lore mía! Lore mía! mi amada infortunada! Bañada en roja sangre te veo cadáver, cadáver lamentable, la que siempre fuiste mi

gorputzik ikusten zaitut,
 gorputz eta negargarri,
 len beti nere poza ziñan ori.
 Eriotzar batek eraman zaitu gaur nere ondotik,
 ametsik onenak,
 ametsik goxoenak
 nituanean, gau ta egun, zugatik :
 ni zuretzat,
 zu neretzat,
 gaur bertan nintzala ni zure jabe...
 Bañau Erioak eraman zaitu gaur nere ondotik
 —arnas-eziñean dagon txoria bait-nauzu geroztik—
 Orra! ! nere Lore! ez diot len ez dakizunik :
 Eriotzarrak eraman zaituan ezkerro nere ondotik,
 zertarako det Errege izatea? zertarako, zu gabe?

TALDEA : (*Baj.*)

Santxo Gartzeiz, Mendietako eta Naparren Errege!
 Gure Errege! Gure Errege!

TALDEA: (*Tere.*)

Santxo Gartzeiz, Gure Errege!
 Gure Errege! Gure Errege!

UKDASPAL:

Santxo Gartzeiz! Gure Errege!

URKO - SANTXO GARTZEIZ :

Ay Lore! Ay Lore!
 Nere maite! nere maite!

AMA YA

contento. Cruel muerte te ha llevado de junto a mí, cuando precisamente tenía yo mis mejores ilusiones, mis más dulces sueños sobre ti: "Yo tuyo y tú mía"... sueño que hoy precisamente había de ser realidad... Pero la muerte te ha llevado de junto a mí, dejándome cual pájaro que no puede respirar. Escucha. Lore mía! Nada te digo que no lo tengas bien sabido : Desde que cruelmuerte te ha llevado de mi lado, de qué me sirve el ser Rey? de qué, si no te tengo a ti?

CORO : (*Bajos*)

Sancho Garcés, Rey de las Montañas y de la Ribera! Nuestro Rey, nuestro Señor!

CORO : (*Temores*)

Sancho Garcés, nuestro Rey! nuestro Rey! nuestro Rey!

URDASPAL :

Sancho Garcés, nuestro Rey!

SANCHO GARCES :

Ay, Lore! ay, Lore! Amada mía! Mi amada!

FIN DE LA OPERA

XANETE ESNEKETARI

(Umetxoentzako dantzadun Sainetetxoa)

Dalcroce'ren Musika-«Perrette»

LENENGO
ERDIA
I'GO. AGERRÁLDIA
GARBIKETARIEN CHOÝUS

Ur garbi- garbitan
garbi zapiak.
Legortuko ditu
gaur eguzkiak.
Jabora, marruska,
biurri, toles...
Aupa! dagigun lan
geroko pozez!

Eguzki goxoak
esian diz-diz;
aizetxo epelak
ostatan pil-pil...

Gonatxo, atorrak,
azkar saskira...
Aupa! saskitxoak
bizkor esira!

BATEK : Ala ere, bukatu degu! Ordubete ta geiago da lanean ari naize-la. Zu ere bai, Axentxi.

BESTE BATEK: Ni, berriz, eguna argitu baño lenagotik... Brrr... Bai otza ura!

BESTE BATEK : Oraindik bi saski eramateko... Oiek eramatean, gosaltze-ra. (Axentxi'ri) Ia, eldu ortik!

2'GN. AGERRALDI

XANETE'REKIN

Guztiok : — Nun zabiltz, Xanete gaxoa?
nora zoaz oraingoz?

- Xanetek : — Bordara, nere auntzatxoa
yeiztera, goizean goiz.
Ain esne zuri-gozorik
ez du iñork edan iñoi...
- Guzt. — Esne-lanak onak dira,
Xanete maite;
bañan astiro-astiro
ibilli zaite.
- Axentxik : — Mesedes, Xanete bixkorra,
egin zaidazu lagun :
saski au ia bion arte
eguzkiratzen degun...
- Xan. — Ni gobaraketan ari?
Amets egin al-den gaur?
- Axen. — Ez gero, Xanete maite,
muxiñik egin :
bigar zer bearko diñan
iñork etzakin...

Xan. — Nik gobara-jotzalle oiei lagundu? Jajai... Bai ederki eman ere!
Zeñek, eta nik? Esneketari aaaberats onek? laister Aizkorbe'ko Etxekoandre izango naizen onek? Jajai!... Ez dezute gutxi nai...

ZAPI-DANTZA

3'GN. AGERRALDI

- A) — Atorratxoak gera gu.
— Gu, berriz, gona txiki;
lokarrietañ zintzillik f
dantzan gabiltz poliki.
Aizeak jotzen gaitunean
(txistu-soñu ta tuntunean,
jo zan arontz, ta jo zan **onontz**)
emen gabiltz bixi-bixi,
atorra, gona-gorontz...
Jo zan arontz, ta jo zan **onontz**,
jaupa! jaupa! bixi-bixi,
atorra ta gorontz.

- B) — Soñeko ariñak gera.
 — Gu, amantal txikiak,
 — Gu, galtzerdi.
 — Esku-zapi.
 — Burko-azal txuriak.
 Aizeak jotzen gaitunean,
 (txistu-soñu ta tuntunean,
 jo zan arontz, ta jo zan onontz)
 emen gabiltz bixi-bixi,
 atorra, gona-gorontz...
 Jo zan arontz, ta jo zan onontz,
 jaupa! jaupa! bixi-bixi,
 atorra ta gorontz.

- Garbiketariak : — Garbiketari bixkorrak
 gogoz saiatu gera.
 Orain saskiak artu-ta
 guazen arin etxera.

Bañan oraindik dantzatxo bat
 agintzen bait-din aizetxoak...
 jo zan arontz, ta jo zan onontz,
 (mutilentzat prakak, eta
 nexkentzat gona-gorontz)
 jo zan arontz, ta jo zan onontz
 lanak azkar egin-eta,
 dantza, dantza gogoz.

- Axentxik: — Eta orain sagar gorriak artzera...
 Beste batek : — Oii! au bai polita!
 3'gnak. — Begira au zeñen biribilla! Gabiltzan pirrika.
 4'gnak. — Onek, berriz, eguzkia dirudi. Au diztiza!
 5'gnak. — Au bai dala gorri-gorria! Eutsi, or-tzian!
 6'gnak. — Nere onek, berriz, odola zirudin gorrian.
 Danok : — Oii! eta onek? Eta onek?...

SAGAR - DANTZA

(ITZIK GABE)

BIGARREN ERDIA

I'NGO. AGERRALDI

XANETEREN DANTZA

Ba'det nik esne,
bunbullun-bunbullette,

Donostian saltzeko;
 ba'det nik esne,

bunbullun-bunbullette,
 txanpontxoak artzeko,
bunbullun,
 txanpontxoak artzeko.

Txanpon gorri, zillar zuri...
 au poxa biotzean!
 bat, bi, iru, sei urregorri;
 berrogei bigar goizean...

Erosiko det ,
bunbullun-bunbullette,
 ollo bat arrautzakin;
 erosiko det,
bunbullun-bunbullette,
 kolka txito-sallakin,
bunbullun,
 kolka txito-sallakin.

Txito txuri, antzara beltz...
 au poxa biotzean!
 bat, bi, iru, sei txerri aketz;
 idi-pare etzi goizean...

Erosiko det,
bunbullun-bunbullette,
 eun ardidun artalde;
 erosiko det,
bunbullun-bunbullette,

Altzorbe'ko Etxalde,
bunbulun,
 Altzorbe'ko Etxalde.
 Laister naiz Etxekoandre...
 au poxa biotzean!
 Etxekoandre zabala
 ni etzidamu goizean...

Eta orduan danak — «Agur — esango didate—; agur, Altzorbe'ko Etxekoandre zabala!». Eta nik orduan, pozez gañezka, burua makurtuz, «Agur!...». Ai! au lana!! Ederra egin det! Esne-ontzia lurrera... Nere urreak, nere olloak, nere artaldea! orra dana galdu...

2'GN. AGERRALDI

TXANPON—, EGAZTI—, ABERE-DANTZA

01 beltzezko mai-gañean
 ontz-urre gorri,
 illargitxoak endanan
 bait-dute iduri...
 Asten ba-da bata dantzatzen
 dantza arin-arin
 — *triki-triki, triki-triki* —
 asten ba-da bata dantzatzen
 dantza arin-arin
 — *kriskitun, kraskitin,*
txintxin, txintxin —
 ure gorriak dantzan, bai, arin!
 — *txintxin, txintxin* —
 urreak dantza... Xanetetxok min.

Burua xut, emen gatoz
 txito, antzara,
 bildotx, ardi eta antxume,
 danok dantzara...
 Asten ba-da bata dantzatzen

dantza arin-arin
 —• *triki-triki, triki-triki* —
 asten ba-da bata dantzatzen
 dantza arin-arin
 — *kriskitun, kraskitin,*
bee, mtee... —
 auntx, ardi, bildotxak parra egin...
 — *kua-kua, pi-pi* —
 guztiok parra... Xanetek min.

Xanetek : — Nere baseria! nere jauregi ederra! Oraintxe laister etxe-koandrez apain-apain jantzi bear nuana ...ta orain, gobara-jotzaileak baño beartsuago... ta dana zikindua... mantal dana auntz-esnez koipetua (negarrez)...

3'GN. AGERRALDI

ETXE - DANTZA

Begira etxe txuria
 txuri, txuri,
 tellatu zabala, tellatu gbrria
 gorri, gorri;
 neguan atea ondo itxita,
 uda etortzean dana idikita
 — *trala-la, trala-la-la-la* —
 oi! zeñen baserri txukun-polita!

Orra jauregi berria
 berri, berri,
 mendi-bixkarrean eroso jarria
 jarri, jarri;
 tellatuak zillar, atea urrez,
 zuraki guztia zedro-egurrez...
 Bañan, ai! Xanete'rentzat
 esnea ixuri-ta, dana gezurrez...

Axentxik : — Zer dezu negarrez, Xanete?... A! esnea ixuri!... Ori ez da ezer...

- Xan. — Ainbeste amets egin, ta orain ezer-ez. Jauregian bizi-ko nintzala, ta apain-apain jantziko nintzala... ta oram dana utsa, dana galdu. Zer gosaldurik ere ez... ta mantala, dana, esnez zikindua...
- Batek : — Oi? zikindu? ta orrek estutzen zaitu. Ez gaude gu emen garbiketari makalak, garbitzea nai ba-dezu... Ia bo-ta onara mantal ori. Laister asko dezu garbirik. Eztago, gañera, eguzki txarra legortzeko...
- Beste b. — Utzatzu negarrak alde batera, Xaneta, eta atoz gure-kin gosaltzérá. Etzazulá geiago ametsik egin, eta kito. Obe dezu zuk ere lanean jardun ta jardun, amets zoro-rik egin gabe.
- Xan. — Zeñen onak zeraten! Ni baño makiña batez obeak. Oso txoroa izan naiz ni zuen aldean. Txoroa ta gaiztoa... Barkatzen al-didazute dana?
- Axen. — Ixo, ixo! Zer barkatu gero? Guazen danok gosaltzera.
- Xan. — Bai, bañan parra egingo didazute zuek. Nere ametse-tako jauregiak eta...
- Axen. — Ez, Xaneta, ez; ez dizu emen iñork zuri parrik egingo.
- Xan. — Eskerrik asko; eskerrik asko. Adiskide leialak arkitu zaituztet gaur nik. Orain ezagutu zaituztet. Eskerrak ne-re amets txoroai. Bestela etzinduztedan ezagutuko.
- Danok: — Gora gure Xanete! Gora gure Xanete! !

4'GN. AGERRALDI

AZKENA

- Xanetek: Txoro onek ametsetan
baserri ta artalde
nitzualako ustetan
esnea bota det.
Goizean goizik parra;

eguerdin negarra...
orixe zait gertatu.
Maiteok, barkatu!

Danok :

Lanean etsi zagun
Jauna dakigun lagun.
Ez ametsikan geiago...
lan gabe janik ez dago.
Utziz bide zoroa,
gerta zegun «geroa».

Gazteiz - 1933 - I.
Lasarte - 1951 - IV - 9.

ARKIBIDEA

GABON-KANTA BILDUMA (Itzaldi)	7-12
Kopla zaharrak	13-18
Marijesiak	19-28
Azkoitia'ko gabon-sariak	29-48
Artzai-kantak	49-54
Noelak	55-58
 GABON KANTAK DE GUERNIKA	59-74
BELEN	75-98
IESU AURRA	99-120
ARTZAIAK-ETA	121-136
EUSKALERRIKO-TA ANDRA M&RIAREN GORAMENAK	137-146
GEIAGO ELIZAKOAK	147-190
BIZENTE ARAMBURU'REN	191-218
NAASI-ANTZEAN	219-252
EUN DUKAT (Eresidun antezerkia)	253-292
ZIGOR (Euskal Opera - Opera vasca)	293-398
XANETE ESNEKETARI (Umetxoentzako dantzadun Sainetetxoa) ...	399-408

LEKUONA'TAR MANUEL

IDAZ-LAN GUZTIAK

10.

GABON ETA ELIZ-KANTA



KABDABERAZ BILDUMA - 31

Autor: Lekuona'tar Manuel
Edita: Librería Técnica de Difusión - Toldeo
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal: VI 253 • 1985 - Vol. 10
I. S. B. N.: 84-398-4126-4

**GABON - KANTA
BILDUMA**

ITZALDI

Gabon-kantak gure artean, beste gauza guztiak bezela, aldaketa aundiak izan dituzte. Eta oraindik ere aldaketan bizi dira. Eguzkia bezela; ez daude egote batean egon; ibillian dabilta beti. Gure Gabon-kantaen ibilli au —evolucio au— aztertu nai det gaur.

Gure Gabon-kanta batzuek, zahar-zaharrak dira. Beste batzuek berriagoak. Beste batzuek, berriz, oso berriak.

Lau bat mallatara bilduko nituzke nik guztiak: zaharrenak, Gábon-agurruk; berriagoak, Misterio-kantak; urengoak, artzai-kantak, billantzikoak; eta berrien-berrienak, gaurkoak.

UsARIOA, LEGEA

Usarioa eta Legea aipatu oi dute gure kantaen batzuek. Bestelako kantak ez bezela, zaharrenak dira "usarioa eta legea" aipatzen dutenak,

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diyela!
Legiarekin konpli dezagun
Urte-berriren sarrera.

Legearekin konpli. Euskalerrian Lege zan, Gabon-kantariak ibillitzitezela, Erria poztutzen, Gabonetan... eta berdin baita San Juanetan ere, eta Iñauterietan .. Oyartzun'en oitura ta lege zan Iñauterietan (Iyotietan) Elizako ofrenda Mozorroentzat izatea, Mozorroai oso-osorik ematea... "erria pozten ibiltzen ziralako, eta ola, guztiion arteko pake ta armoni onari laguntzen ziotelako", dio orduko paper batek. "Erria poztu", gaur txistulariak bezela.

Usarioa aipatzen du baita, beste kopla zahar batek ere, toberatako kopla batek, eztaietan kantatzen ziran toberatako kopla batek :

...toberak jotzera gatoz
bost edo sei lagun.

Toberak jotzera eta
libertittutzena,
ez uztigatikan
usariyua galtzen...

Usarioa eta Legea: Euskalerrian biok bat bait-diria. Lege zaharrak, usariotik dator; eta usarioa bera ere lege da; usarioa zan Lege, Legea eskribitu baño len.

Kopla Zaharrak deritzate legezko ta usariozko kanta oiei. Eta oietxek dira Gabon-kantarik zaharrenak ere. Gabonetan eta Urteberriaz kantatzen diran Kopla zaharrak. Benetako zaharrak. Orain bosteun urte ta geiagoko usai sendoa darioten kopla zaharrak.

Benetan jakingarri bait-da kopla oien kanta-gaia. "Gabon-kantak" dira; bañan ez dute kantatzen Gabonetako Misterioa. Gabonak diosalitzeko, Gabon-agurrik emateko kantatu oi dira. Etxerik etxe. Bañan Misterioa geienez ere aipatu bakarrik egiten dute. Asieran aipatu. Eta gero, egunari dagokion diosal kristautarra eman etxeko bakoitzari, ondorengo beste kopla guztieta. Diosal, etxeko-jaunari, diosal, etxeko-andreari, diosal, etxeko seme ta alabai... bakoitzari loretxo bat-edo-bestegiokitxo boteaz...

Ori zan kopla zahar oien guna ta mamia.

MISTERIO-KANTARI

Geroztikakoak dira, asi ta buka, Jaiotzako-ta Misterio gozoak kantatzen dituzten koplak. Gernika-ingurukoak ezagunenak, bear bada gure artean. Gernika-inguruko *Marijesiak*. (Politak berak ere. Bañan erri-kutsu gutxiagodunak.) ...Bizkaiko *Marijesiak* gure artean; eta mendiz bestaldean, *Noelak*. Dotrina sainduz ondo anpatutako Noelak. Erri-kutsu gutxitxodun ezik oiek ere...

BIXANTZIKOAK

Ba'liteke, billantzikoak eta Marijesi-noelak, gutxi gora bera elkarrekin sortu izana gure artean. Billantzikoak. Artzai-kantak. Bukolika-zati politak, askotan irri-antzean, irri xamur eragiteko sortuak. Enderaz ere berdin bait-diria. Izkuntza guztiak olerkaririk bikañenak erantsi izan bait-diote eskutadaren bat Artzai-kanta-sail oni.

Marijesi ta billantziko, ba'litezke elkarrekin batean sortu izanak. Bañan mamia oso elkarrengandik bestelakoa dute. Marijesi-noelak elizakoak —kalean kantatzen diran arren, elizakoak benetan—; eta billantzikoak Elizan ere kantatu izan diran arren, kalekoak, oso kalekoak...

PARRAGARRIAK

Billantzikotik zuzen-zuzen sortuak dira, berriz, beste oek. Billantzikoen artzai-kutsua nabarmenki ustelikatuz. Oroi arako donostiarren Erregeen bizkarretikako itsusikeri parreragille ura :

Iru Errege datozi
kale nagusitik,
tripak ardoz beteta
ezin egon zutik...

Oien antzeko bat arkitzen degu Azkue Jauna zanaren "Cancionero"-n, Ermuako Tomas Abadearen aipamena egiten duana —karta-jokatzalle ona bide-zan eta ardo-edale ez txarra, zalako Tomas Abade ori—; aipamen parragarri ori —ez Donostikoa bezain zarpatzu baño— Marijesi baten barruan egiten zan.

Ez oiek bezain parragarri, bañan bai Elizatik oso kanpora kantatzeakoak ziran baita, guk txikitán pozik asko Oyartzun'go korutik entzuten genituan batzuek ere. Ona, adibidez, zatixka bat:

Oyartzun'go maxterrak
nagusiyetai-a; (kapoyak eramatera, alegia)
kontentu obez datozi
gaur Tenplo Santura.

Salto, brinko, konpañerua;
salto, brinko, ene seme :
zankuak arin eta
bera juan firme.

Parragarriak ziranez, Elizan kantatzeko erreberentzi-gabeak ziran. Gañerakoan etzuten beste akiakularik eta aitzakirik. Parragarriak izatea. Aldiz-aldez, gatz-piper-puntta bat ere bai bait-zizuten lerro-artearen.

Aipa ditzagun orain Gabon-kanta-mota guztiak, banan-banan.

Kopla zaharrak

Ezagun-ezagunak diranez, bizpairu besterik ez degu aipatuko Kopla Zaharretatik.

Bedeinkatua, alabatua
Aldareko Sakramentu **Santua**,
pekatuaren mantxarik gab,e
zeña dan kontzebitua.

Kopla oiek, esan degun bezela, zaharrenetakoak diran arren, ba'dute zenbait eraxkun geroztiko. Emen ikusten degun au, adibidez; **XVII** gizaldikoa, zalantzariak gabe. Oargarri da, benetan, nola bigarren erdian nahasten dituan bi Sorkundeak, Jesus'ena eta Aren Amarena. Ez pentsa, ordea, nahaste au ain gauza bakana danik. Edonungo erri xumek ba'daki beste orrenbeste egiten. Jarrai dezagun.

Au aiziaren epela!
airian dabil orbela...
Etxe ontako jende leyalak,
gabon Jainkuak diyela.

....."*imj*

Au bai benetan kopla errikoia! Errikoia, ta literaturaz izan diteken ederrenetakoa. Ezin bait-diteke diosal politagorik izan. "Gabon" **bat** emateko, lenengo, olako pinturaki bixi ta garbia, bi lerrotan:

Au aizearen epela! (arako "sagardoaren gozoa" bezela)
airean dabil orbela...

(Iru itzetan ez bait-diteke evocacio biziagorik eta osoagorik egin).
Jarrai dezagun:

Lezo ta Erreenteriya,
irugarrena Oyartzun...
Nere lagunak, *Diostesalbe*
garbuarekin erantzun.

(Olako kopla bat, erriak bestek ez daki sortzen : "Lezo ta Erren-teriya").

Jarraiz dezagun :

*Diostesalbel Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diyela!
Legiarekin konpli dezagun
Urteberriren bezpera.*

Iñoz "Eguberriren bezpera" esango zuten. Emen egiten da gañera len esan degun arako *Legearen* aipamen ura. Lege zan, Eguerri ta Urteberriren bezpera jendeari olaxe agurtzea. Koplak kantari. Koplari ta koro. Amar-amabi gizaseme...

Ez bait-zan, ordea, —ta ez bait-da gaur ere, Jaunari eskerrak— agurtzea bakarrik; izaten bait-zan eskupeko-jasotze polita ere etxe ba-koitzean, diosal ta agurtze-truka ta sari... Oitura zan olaxe. Mozorroak ere olaxe egiten zuten Oyartzun'en Iñauteritan Elizako Ofrendarekin... Eskupekoa jaso.

Eskupekua jaso degu ta
orain abia gaitian;
"Adios-ikan" ez degu eta
agur, urrengo artian.

(Auskalo zer ezkutapen ezkutatzen dan "Adios" eta "agur" oien arteko nahaskillo-joku orretan...).

Bañan gatozen, berriz ere, arira. Begira, eguneko Misterioaren aipamen xume bat onako beste kopla onetan :

Urteberriren bezpera da, ta
eskian gatoz atera,
Birjin Amaren Seme garbiya
dijualako Pontera.

(Erri xumeak ez daki, Lege Zaharreko Erdaiña zer zan; **Bataioa** zala uste du. Anacronismo txoragarria!)

Eta ondotik etorriko da, etxeko bakoitzak koplatzeko baimen-eskea. Bene-benetako errikoia kopla auxe!

Zapata txuri, paperez;
eudi denian baterez...
Nagusi Jauna, esan bizaigu
asiko geran ala ez.

Eta onen ondotik, bakoitzaren laudorioak. Ez goaz danak aipatze-ra. Naikoa izango da bat edo beste egitea. Adibidez :

Esku txuritan papera,
erreberentzi lurrera...
Lotsa gogorrez etorri gera,
Jauna, berorren atera.

Orroko or goyen izarra;
errekaldian lizarra...
Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorri du bizarra (1).

(Bai, bada. Aldareko Santuak berak bezelaxe, "urregorrizko biza-ari'a»).

Urregorrizko bizarra eta
zillar zurizko sorbalda.
Errealbikoz egiña dauka
Elizarako galtzada.

(Al-da esan-bearrik, olako kopla bat erriak beste iñork ezin asmatu dezakeanik? Eta nolako antziña-kutsua daukatela gero koplatxo oiek! Orain bosteun-seireun urte izaten bait zuten urrezko bizarra Aldaretako Santuak : gotiko-garaian. Eta Elizarako galtzada errealbikoz kaltzatua iza-tea? noiz ta nungo ipuia ote-da? Nork esan?).

Eta olaxe beste koplatxuetan ere. Etxeko-andrearen Pazku-eguneko soñeko zazpi gonak dirala... eta etxeko-seme zaldunak bere kapa motxaren ertzetik zintzilik daramazkian zazpiurre-txintxarriak... eta irriki-tzen begira dagozkion zazpi damaen eguzkiak... eta etxeko alaba ederra-

i(il) Kopla onen erdi-aldefco eten-itxurari buruz, ikus nere "Poesía oral euské-rica". 1935. Donostia, or. 41 et seq.

ren kutxako dote ederra... eta Apaiz Jaunaren esku zurieta kaliza, ta soñeko superpeliza... etab. etab.

Olaxe dana. Erdiaro-erdiaro jator.

Egia, erri-kopla oiek Oyartzun-inguruau egon izan dirala gaur arte sendotxoenik finkaturik; bañan egia, baita, gutxi edo geiago Santa Agedaz Bizkairañoko guztian ere kanta izan dirala beti. Euskalerrri guztian.

Esan bear degu, baita, beti kantuz ematen dirala ere. Eta kantuz dutela •—beren melodi ederrez jantzita, dutela, alegia— duten bezelako izaera ta grazi jatorra.

* * *

Ez goaz orain *Olentzero* bereziki aipatzera. Oitura bezela ba'dan arren, koplaz ta kantuz ez bait-da ain aipagarri, izan ere.

Ala ere, bi koplatxo ipiñiko ditugu emen. Eta biotatik auxe aterako degu: 1) berri-antzekoak dirala, XIX gizaldiko bertsolariren batek ate-reak kopla oiek; eta 2) parragarri bezela pentsatuak daudela —Donostikoa Erregenetako antzera; jan-komentu alegia, etxeetan eman oi dan sari ta eskupeko-zurrian lotsagabe pentsatuak—. Ona :

Olentzero juan zaigu
mendira, lanera,
intentziyuarekin
ikatz-egitera
Adittu duenian
Jesus jayo dela,
korrika etorri da
parte ematera.

Orra! orra!
gure Olentzero!
Pip'ortzian duela,
exerita dago.
Kapoiak ese bai-tu
arrautzatxoakin,
biar berendatzeko
botil-ardoakin.

Olentzero iñondik
 ezin dugu ase;
 osorik jan dizkigu
 amar zerri gazte,
 sayeski ta solomo,
 makiña bat este...
 Jesus jayo da eta
 kontsola zaitezte.

Beste itz bat. Gaur uste degunez, *Olentzaro* au, *Noeltzaro* da —iñoizko *Noeltzaro*'ren metatesis, atzekoz-aurre bat, erderazko *aguinaldo*, *aguilando*'ren metatesis dan bezelaxe—. Eta "Noel'en aroa edo garaia" esan nai du, ots Olere'en aroa.

Beraz, gure Olen au, iparraldeko Noel (papa Noel) bera da. Beste *Zampantzar Jauna*, Saint Panssard dan bezelaxe. Iparraldeko norki batzuek bait-diria biok. Iparraldekoak, gure arteko beste zenbait norki ta zerki bezela. Bañan —goazen gure arira, ta— bi norki oiek, gure artean parragarrituak ikusten ditugu, jateko ta edateko aitzaki biurtuak. Donostiako Erregeak bezela. Berez olakorik merezi etzutenak, eta 06 *initio* ola etziranak. Noel beneragarria, Olen parragarri biurtua. Koplak ere berdin. Ori da esan nai nuana... Izan ote-zuan antziña iñoiz gure **Olen** onek orain baño kopla egokiagorik? *Auskalol*

Marijesiak

Jo dezagun orain, Kopla Zabarrak baño geroxeagoko beste kanta-mota onetara.

Merijesiak Misterioa kantatzen dute. Ez dira, Kopla Zaharrak bezela, Misterio-egunez kanta oi diran agurrak soillik. Misterioa bera dute kanta-gai.

Gizon-egitea, Jaiotza, Erregena...

Eta aundikiró gañera. Bederatzí egun erreskadan, egunero-egunero, mutil-aldra etxerik etxe, erriko ate-ondo guzietan kantari. Lenengo lau egunetan kanta-sail bat bere eresi beréziarekin; eta urrengo lau egunetan beste sala, bere eresiz ura ere; eta azkeneko egunean, Gabon-egunean, irugarren sala, eresirik ariñenean... Eta orduan, sari-jasotzea. Sari ederra. Baita merezi ere. Bederatzíurren ederragorik! Amabi bat mutiko aurpegi-gorri-biribil, kalerik kale, baserririk baserri, bat bakarrik ere utzi gabe, Jaunaren Jaiotzako berri ona kantari... Ohore aunditzat artzen bait-da bixita ori etxe guzietan. Bedeinka-señale. Eskupeko ederra, beraz. Ala dagokion bezela. Eta pozik etxeakoak eta pozik mutiko bipillak.

Agurraren ordez Misterioa kantatzeko oitura au, Elizatik sortu zan nimbait. Komenturen batetik nunbait. Gernika-inguruan an bait-dago aspaldidanik Bermeo'ko Praidetegi Prantziskotarra... Anditxik atera ote-zan iduritzen neri. ICopla Zaharren koka-leku berezia Oyartzun esan degun bezela, Marijesien koka-leku, Gernika-ingurua bait-da iñolaz ere. Antxe bizi izan da Marijesien oitura au bizien eta sendoen... Eta Bermeo'ko Prantziskotegi zaharretik sortua ere ote-dan degu guk susmo.

Ori bai, beste esku asko ere saia izan dirala, zalantza gabe, Praideak egindako lanaren gañean. Zenbait ereji ere arkitu bait-lezake, zenbait koplatan, teologo zorrotzen batek. Bañan, nun ez dago olako zerbaiz?

Dana dala, ona orain iru sail aietako zenbait kopla. Aogozorik geientxuen dutenak:

Abendu Santu onetan
 Kristo'ren Jayotzian,
 kontentuaren andiz
 guztijok poz gaitian.

María y José,
José y María,
María y José.

(Kopla bakoitza, bi puntuko da; eta ondotik, beti ere, estribillo—estribillo arrotz—lenengo bi kantuetan). ("María y José" ortatik bait-dator *Marijesi* izena ere).

Eguzki dibinala
 gabaren gaberdijan
 etorri zan mundura
 gizonaren jantzian.

Maríay...

Trinidad altuko
 bigarren personia
 trasformadurik dago
 Belen'go estalpian.

María y...

Au dala jayo, jayo,
 au dala jayotzia;
 semia jayo ta be
 ama da dontzellia.

María y...

Kristalian argija
 bezela pasatu;
 eginda gero bere
 dontzella gelditu.

María y...

—Josepe, zer ordu da?
 —Maria, gaberdija;
 zeruko izar ederra
 laster dogu parian.

Maria y...

Otzaren ikaraz dabil
 jayo dan infantia;
 bere amak dirautzo:
 —Ixi, ene semia.

Maria y...

Astua ta idija
 daukaz aldamenian,
 arnasaz berotzeko
 otzittuten danian.

Maria y...

Astuak arrantzia,
 idijk arnasia;
 alan berotzen dabe
 jayo dan infantia.

Maria y...

—Ea bada, Josepe,
 arotza zara zu;
 aurtxo txiki onentzak
 seaska egizu.

Maria y...

Iru Errege Maguek
 ain bide luzian
 mirari andi batez
 alkartu zirian.

Maria y...

Iru Errege Maguek
 ain bide luzian
 bakotxak eroyela
 bere presentia.

Maria y...

Iru Errege Maguek
 ain bide luzian
 ostatu artu eben
 ain etxe pobrian.

María y...

Erregaluek bere
 ekarri zittuen.
 urria, intzentsua,
 mirra irugarren.

María y...

Erode'k esan eutsen
 Erregei gabian;
 Emendik etozela
 "Ni be j'uen naitian".

Maria y...

Erodes Erregia,
 faltso, traidoria,
 zeren damu zenduen
 Kristo'ren jayotzia.

María y José,
José y María,
María y José.

Ez goaz ezer esatera kopla oien Eleiz-usaiez. Eleitztarren baten eskuagiri dute (lengo Gabon-oitura ederra oraindik ederragotu bearrez—ederra ederragotu bearrez—ibillitako esku, ez baldarra, bañan ez lengo mallakoa ere). Grazia dарion koplaren bat ba'da tartean : "Au dala jaio, j'aio" dion ura, adibidez. Ez da ain gabea, ezta, arako beste, Erregeai buruzko kopla irukote ura ere : "Iru Errege Maguek ain bide

luzian...". Iru aldiz asiera bera, ta bakoitzak bestelako bukaera. Ez dago gaizki. Ba'du grazi .

Ahaztu ez dakigun, beste gauzatxo bat ere ba'degu emen zorrik eta esan-bearrik. Erderakadai buruzko itz bat. Ez dedilla iñor, oi bezela, eskandaliza.

Nik erriaren aotik jasotzen ditudan olerki ta koplaetan, beti ere etsita eukitzen det erderakadak entzun bear izango ditudana. Ain nago oitua. Bañan oitua ez ba nengo ere, beti uste izan det kopla oietako poesi-pitxiak biotz-barruan eragiten diguten pilpira, erderakadak belarrietan ematen diguten miña baño askotaz ere geiagotzat euki ta intimatu bear degula. Eta berdin, bertso ez danean ere, itz lauaren «argitasuna», beste zenbait "garbitasun" baño geiagotzat euki ta intimatu bear degula. Marijesiak erderakada-artean, oitura eder-eder bat ekarri digute, orain irureun, lareun urtetik asita gaur arteraño. Oitura eder bat, oitura euskaldun-euskaldun bat. Poesi-pitxiak eta guzti bere baitatik aldiz-aldiz dariozkian oitura beneragarri, itzal aundiko bat. Ez degu zergatik muzin egiñik olako oitura jator bati, erderakada batzuek dituala ta beste gabe... Barkakizun dira. Barkatzeko dira olako erderakadak.

u

Txit egun ditzosua
dogu Egubarri;
zegaitikan dan Jesus
gugana etorri.
Jesucristo!
Ay\ qué bonito buen Niño
Jesueristol (1).

(2) Estripillo-erara edo bestela, kantu batean erderazko edo bestelako itzak 8arteko oitura, naiko zabaldua arkitzen degu, naiz euskerazko olerkietan naiz bestela-koetan. Gabon-kantaetan batez ere. Par eragiteko-edo. Oroi, arako Mexikotar olerkari emakume Sor Ines'ek bere erderazko olerki ederretan aldiz euskeraz ipintzen dituan eraxkun aipatu-aipatuak. Euskerazko zenbait beste kantaetan arkitzen ditugu, baita, latinezko zatitzuak ere. Adibidez, Otxagabia'ko arako *Kristo sortzen duzu'xem Verbum caro factum est eta Deus caro natus est ura*. Gernika'ko *Jesucristo, ay qué bonito buen niño, Jesucristol norbaitzuek Jesukristo, adoretan zaituguz Jesukristo\ kanta* oi dute.

Erakutsi biosku
 zer egin biogun.
 Beraren alabantza
 gaur kantatu daigun.

Jesucristo...

Josepe emon deutsoe
 Maria'ri esposo,
 bijok izán daitézan
 Aurraren guraso (?).

Jesucristo...

—Agur, dontzellia,
 graziaz betia;
 zeure izena dozu
 Birjiña Maria.

Jesucristo...

—Arkanjel San Gabriel
 anuntziadoria :
 ez gaizuz espantadu
 áin jenté umildia.

Jesucristo...

Josepe'k dirautso
 Maria Birjiñiari;
 —Noz deklaratuko da
 geure éesperántza Ori?

Jesucristo...

Biok Beleren'era
 daude kaminatu;
 an eldu diranian
 ostattuaren itandu.

Jesucristo...

Seiña billosik dago
lur otzaren ganian;
Amea beleuniko
negarrez an, urrian.

Jesucristo...

—Billoisik bazagoz bere,
etzara zeu pobria:
zeruan josirik dago
zeuretzako erropia.

Jesucristo...

—Nor ete-da? zein ete-da
erropiaren joskiña?

—Amandre Santa Isabela
Birjiñaren lengusiña.

Jesucristo!

Ay! qué bonito buen Niño
Jesucristol

Irakurri utsez igertzen zaio bigarren kantu-sail oni, alakoxe tristeza-antza zenbait. "Belen'go Odisea" dei genezaioke. San Josepe ta bere Emaztearen Belen'go Odisea tristea. Etxerik ez, aurra billoisik... Nazaret'eko espantuaz gañera, orixe da kantaldi onen gaia. Gai tristea. Kantatzen dan eresia, melodía, bera ere alakoxea du, illauna, illa, bere lenengo zatian beintzat. Estribilluan da pixka bat arintzen. Ta, arritzeko gauza, estribillua oso-osorik erderazkóa. Nundik nora sortua ote-da kantaldi au?

Ereji-antza ere ba'lukeala zenbait teólogo inkisidorerentzat kanta onen zenbait kopla, esan det goratxuago. Ikus, arako "Josepe emon deutse" dion ura, bukaeran. Bañan euki bait-lezake, euki, zentzu onik ere; utzagun gauza bere ortan.

Eskepe-etxetxu baten
dagoz atiak joten;
gizonak b entanara
txito nekez urteten.

Jesucristo... ...

Gizonak bentanatik
onelan erantzuten :
—Nor da ordu onetan
geure atiak joten?

Jesucristo...

—Nor ta nortzuk bizi dira
etxetxu zar orretan?
—Nor ta zer gura zenduke
Jaunaren ordu onetan?

Jesucristo...

—Ara or etxetxu zar bat
uriaren kabuán;
ganaduak-eta baño
ez dira sartzen barruan.

Jesucristo...

Arrano galant bat (1)
zerutikan lurrera;
sujetadu izan (da?)
zeruko Erregea.

Jesucristo...

Ameak artu eban
semia besuetan;
Seme ta Jaungoikua
zituzan adoretan.

Jesucristo...

Gaurko umetxuen Zikoniaren ipuia?

III

Eta onenbestez goazen orain, Marijesien irugarrengo sallera. Dana alaia da sail ontan. Bigarrengo salsa "naigabezko Misterioa" litzaken bezela, au, irugarren au, «aintzazkoa» litzake. Aintzazkoa. Gloriazkoa, dana : doñu ta itzak, eresia eta kanta-gaia. Eta beste gauza : Estripilloa euskera garbian. Polita benetan.

Nazaret'eko tenpluan dago
dama eder bat jairririk;
izena bere Maria dau ta,
ondo graziaz beterik.

*Bai, Belen'en, eta bart Belen'en
jayo da Jésus Nazarenl*

—Pastore santu, birtuosuak;
balia zakiguz gaur emen,
bart arratsian. zer pasatu dan
kanta dagigun Belen'en.

Bai, Belen'en...

—Jesus dibiño! gabaren otza!
jausten da iñetasije;
erleju bijen jarraitten badau,
il da ganadu guztije.

Bai, Belen'en...

—Ortixik gora niñoela,
ospiteletxu zar baten
Aita San Jose topadu neban
astotxuaren txalmatzen.

J5ai, Belen'en...

—Beleren'go Urijan
Gabon-gabaren erdijan
Ama Birjiña topadu neban
kontsolaziño andijan.

Bai, Belen'en...

—Korraletako ardijak bere
yantzan ebizen :• orduan,
Jesus deritxon Salbadoria
jayo dalako munduan.

Bai, Belen'en...

Birjin Andriak bere Semia
pozez yantzan erabilen...
"Au da Cabon eta au da Belen!
Jayo da Jesus Nazaren!".

*Bai, Belen'en, éta bart Belen'en
jayo da Jesus Nazaren.*

Ez det uste, gauza biziagorik izan ditekeanik, zazpi kopla oiek bañó ezer biziagorik. Etzan makala oiek sortu zituan Praidea! San Prantzisko'ren semea benetan!

Lenengo strophek, Aldareko zati bat iduri, arako *Maria* izenaren etimologi artan, Eleiz-jakindurizko erakutsi bat dakarkigu xume-xume. Ori bait-diote zenbait etimologi-zalek esan nai duala izen zerutar *Maria* orrek : "graziaz betea", ondo graziaz betea...

Bañan bigarren strophetik aurrera —Eleiz-jakinduriak alde batera utzirik— artzai-usaia artzen digu kanta guztiak bete-betean. Eta zorio-nean. Artzaiaik lau ahapalditan esaten dizkigutenak, benetan dira uki-garri ta bixi ta irudipenti... "Jesus dibiño! gabaren otza!"... "Ortixik gora niñoiola"... "Beleren'go Urijan"... "Korraletako ardijak bere"... eta bukatzezo, "Birjin Andriak bere Semia pozez yantzan"... Guzti au benetako polit arkitzen degu. Benetako polit, eta benetako billantziko, artzai-kanta...

Bañan billantziko ta artzai-kanta txoragarriak, beste sail batean azaldu bearrok bait-ditugu, gauden ixillik orain.

Azkoitia'ko gabon - saiiak

GABON - SARIAK

Opereta pastoril —ots, Artzai-operatxoa— deitzen dio A Arana'k Azkoitiko Gabon-kanta-sorta oni. Ez dago gaizki ipiñia izena : "Artzai-operatxoa".

Iru zati clitu. Ta zati bakoitzak, bi edo iru kanta.

Lana, teatrako egiña dala edota teatro-antzean, ez da esan bearrik. *Aria* ta *Rezitatu* ta *Aria txiki* dionean, ederkitxo ematen du aditzeria. Ala ere, Azkoiti'ko Eliza Nagusian kantatu bide-zan iñoz. Berak dio ori ere. Alako oiturarik izan oi bait-zan XVIIT gizaldian.

Dana dala, Gabon-kanta-sorta ederra da benetan "Gabon-sariak" deritzon au. Eta argitaltza mereziz zuana.

1762'gn. urtean argitaldu zan lenengoz —liburutxo txukunean—, eta Azkoiti bertako Inprimategi batean, dirudiane : Miserikordiako Inprimategian.

1889'gnean. egin zan bigarren argitaltza; "Euskal-erria" zeritzan, Donostia'ko Aldizkarian. Iñolaz ere A. Juan Ignacio Arana Jesulagun zanarena da bigarren argitaltze onek asieran daraman Itz-aurre txukuna.

Zein izan zan, ordea «Gabon-sari» irakurgarri oien egille?

Liburtxuak berak dionez, Azkoiti'ko "Luisa Miserikordiakoa" izan zan ia kanta guztien egille. Jose Manterola'k, orratik, bere Aldizkari "Euskal-errian", Peñaflorida Kondea izan zala uste du. Miserikordiako Luisa ura estalgarri ta pseudonimo bat besterik ez dala; estalgarri aren babesean Jabier Munibe ezkutatzen zaigula.

A. Arana, bere aldetik, liburutxoak dionari datxikio gogor ta itzez itz. Miserikordiako Luisa izan zala egille. Liburuak berak ala diola, ta kito... Loyola'ko ta Azkoiti'ko AA. Josulagunen batzuek laguntzalle edo zirala baño.

A. Onandia ere iritzi ontakoa azaltzen zaigu bere "Milla euskal-olerki eder"-tako itz-aurrean; eta zalako Luisa ura lekaime egiten digu gañera, Karidadeko monjatxoren bat bailitzean. (Al-zan, artean, Karida-

deko monjatxorik emen? Nik ez uste. Gure errietako txiro- ta gaxotegietan, serora edo emakume on batzuek izan oi ziran "etxeko-andre" ta kargudun).

fSj

Nik, egia esan, Loyola'ko eskua ikusten det argi ta garbi kantu polit oietan. Loyola'ko esku jakintsua. Eta esku ezagun-ezagun bat gañera. A. Larramendi'ren esku bipil ta alai, eta maltxur ta desairetsua.

Estilo ezaguna du A. Larramendi'k. Bere *Corografía de Guipúzcoa'n* agiri duan estilo jatorra : jolastun ta, berak liokean bezela, alberdani-zalea. Doaire aundidun estiloa.

Doaire au, gure Liburutxuaren itzaui-rean agiri du batez ere. Benetan irakurgarria Itzaurre auxe. Bere laburrean, "humore oneko zati mai-su" esango genduke. Humorista bortitza genduan gure A. andoaindarra.

Zenbait kantetan zerbait eliz-jakinduri ikusten zualako, zeritzaison A. Arana'ri, Loyola'ko Aitaren batzuek ote-zebiltzan "Gabonsari" aien saltsa goxp artan. Egia da olako jakinduria dariona liburutxuak alde guztietatik. Bañan ba'du beste zenbait usai ere Loyola'ko edo inguruko. Esan dedan Itzaurrearen "doairea" beintzat bat. Eta ibilli ere, ez bait-zan inguru aietatik urrutti ibiltzen gure A. Larramendi bere humore onarekin. Bañan baita A. Meagher bat ere ibilli zitekean antsu bere ardo-kantakin. Eta zer esanik ez A. Mendiburu ta Kardaberatz ta Basterretxea bat, beren eliz-kanta jator-jatorrakin. Jesus'en Eriotza bezelaxe, ederkitxo kanta bait-zezakean olerkari bizkaitar bikain onek batez ere Jesus'en Jaiotza ere... Bañan Itzaurreak ba'dakar gai oni buruz zerbait argitasun geiago. Itzaurre-egilleak berak dionez, bera da kanta guztien egille— *Aria ta Rezitatuia* ez beste guztien egille. Beraz, Itzaurrearen egillea A. Larramendi bada, A. Larramendi'k berak izan bear du liburu guztiaren egille. Ez bait-zan, bestalde, maingu ta beso-bakar, gufe A. euskaltzale-euskaltzalea, Gramatika ta Iztegiez gain, bestelako lan ta arazo pin oietarako ere.

—Zergatik ezartzen ta egozten dion, ba, bere lana, zalako Luisa Miserikordiakoari? —Berak esango liguke ederkitxo ori ere... Alako *inkisizioa* egiten bide-zuten urte aietan, pradeek pradeen kontra idaz-lan kontuan... A. andoaindar berak esaten zuanez, askok eta askok —prade-jendeak, alegia (A. Isla batek, adibidez ,bere *Fray Gerundio'rekiii*)—, beren lanak, bearrik bazuten, ezizenez, pseudonimoz izenpetzeko moda artu zuten. Eta bestalde, Azkoitia'ri dagokipnez, geñera, alako "andra

«famosia» izango zan orduko gure "Miserikordiako Luisa"... aren izena pseudonimo ta babes-izentzat artzeko aukera-aukerakoa izango bait-zan...

Bañan —ori ere bai— Manterola'k susmo zuan bezela, saltza gozo guzti artan Peñaflorida Kondea etzala urrutি ibilliko. Liburuaren argitaltze-kontuan batez ere. Mezenas antzo.

Orra nere iritzia. Bañan nor-berak beza berea. Nik ez diot galaziko.

Eta igaro gaitezen beste gabe Azkoitiko kanta-sorta politera.

AZKOITIA'KO GABON - SARIAK

GABON-SARIAK EDO AURTENGO GABONETAN AZKOYTIKO ELIZA NAGUSSIAN KANTATUKO DIRAN GABON-KANTAK EDO OTSALDIAIC—*Puer natus est nobis, venite adoremus.*—Azkoytyn-Misericordian-MDCCLXIL—AZKOYTIKO MISERIKORDIAKO AMA BIR-JIÑA SOLEDADEKOARI-Andrea : Zure mende gozoan bizitzeko zorio-na degunok, zure mendean eta egapean ipiñi ere bear ditugu gure gauza guztiak. Argatik, gaur argierazotzen degun papeltxo au, zure mendean ipintzen degu, ta ala artu ere bear dezu zuk; bada batetik gurea da, ta bestetik guk gure ongiñai, erak egiten diskuen ongiteakgatik eman nai diegun sari bat da; ta arek zure eskuetatik bialtzen diskuen-azkero be-ren ongiteak ta ondassunak, esku orientatik biurtu ere nai diegu sari au. Artzazu bada, gure Ama gozoa, nai oi dezun ongiroarekin papeltxo au; eman egiozu zure grazia, ta adierazo egiezu gure ongin guziari gure borondate ona, ta ezin beste modus paga gitzakeala, ezpada arekin, ta zuri otoitzzeak (sic) zure Seme Jaunagandik erdietsi dessazula aientzat gu-zientzat ossassuna, bakea, ondassunak mundu onetan, zure umesurtxoetan gasta ditzaten, ta bestean sekulako bizitza; ala eskatzen dizu, Andrea, zure oñetan umilki auspez etziñik — Miserikordiako etxeak.

LUISA MISERIKORDIAKOAK ONGIN GUZIAI GABON, URTE ON TA BERRI ON.—Nere biotzeko ongintxo maiteak : igaroko urtean gabon-saria pranko eman badidazue ere, orra aurten, aurrea artuta, nun neuk ematen dizuedan. Ta nolakoa, ala ere? Zuek geienean Gabon egiteko aza-buru bat edo bakallao-bustan batekin askidatu ta kunplitu dezue nere-kin; baña nik zuentzat berariaz inprimierazo ditudan kantatxo edo ot-saldi eder auekin erregalatzen zaituet.

Orain zuek essango dezue, zer apetek edo eroaldik eman didan one-tarako? Ara bada, adiezazue.

Igazko Gabonetan ekussi nituan gure etxeán makina bat Gabon-kan-ta inprimitu : batzuek Bilbao'koak zirala, besteak Madril'koak, Kariz'-koak ta eztakit nun añurrutietako batzuek; ta, ccadios» nun berealaje gogoak eman zidan: "Zer! Beste iñun diran Eleizeak inprimerazotzen cfitue, ateratzen dituen kantaak (azkenik, Bilbao'ko San Praisku'ko Prai-le gajoetaraño), ta gure Azkoitiko Eliza ederrean kantatzen diranak,

illunpean gelditu bear debe? Nundik nora? Ez debe beste erdera mordolosko abek ainbat merezi? Ez bada; Jaungoikoak nai badeu, ta datorren urtean bizi banaiz, soñean daramadan gona au salduko badet ere, inprimitu bearko debe, demutxoetan. Orra bada, essan da egin, nun inprimierazo ditudan aurten, gure Askoitiko musika aingeruskoak kanta-tuko dituan iru kantaaldia.

Jakin ere naiko dezue, norzaz baliatu naizan koplaak eta beren soñua ateratzeko; ta, jakin-gura geiegitxo bada ere, ez dizuet ezer ijildu nai. Koprarik (sic) geienak nere burukoak dira; ta bost gaubela ta izerdi gozo kosta bazaitzit ere, ondo enpleatutzat ematen ditut diranak. Egia da (ez diot iñori ezer kendu nai) Martin Beltz gissagajoak messederik asko egin (sic) lagun eginda batez ere seguidilla ta arako *aria* edo *kopra* andi aetan, bada sekula alakorik nola ekussi ere ez neban, ezin asmatu neban; ta ark, berriz, nola iñunziak egiten ere dakian, asko daki ta gizon jakintzu bat da. Soñua edo Soplea, ez da nerea; ez dakit orrenbeste; baña Probinzian diran maissurik pamatuuenai eragin diet. Melon, antxiñako organista buapo ark ta Lorentxo dantxariak, biak alkar arturik, atera debe.

Ala ere, ez dide kantatzen bentajarik eramango, ez batak ez bezteak; ta ala, ikassi nai deban guzia (sic) ez dauka nigana etortzea baíío, ta nik berealaje erakussiko diot; bada, eztarri garbi-garbia ez badet ere, belarriak galantak ditut.

Onenbesterekin, agur; bada kanpaek ba'darauntza ya, Gabon egi-teko, gure deiez.

LENENGO OTSALDIA

TONADILLEA

Sekulako ikaraturik
nago ikussi dedanaz;
ez bait-du iñork sinistuko
bakarrik nere essanaz,
bada ni ere
neure ikusirik (1)
egon naiz ezin
sinisturik.

Gure erriko sartzayeran
dagoan abel-etxe ura
ain dago argia ta ederra,
zer dirudi zerua.

Bañan au ez da ezer ere

beste gauzen aldean;
ez da, ez, ainbeste mirari
ekussi iñoz lurrean.
Bada ni ere...

Aditu nai dituztenak
jar bite (sic) nere aklean;
essango ditut diranak
segidíllatxo auetan.

Baña utzi bulla
alde batera;
txit, txit, ya noa
abiatzera.

SEGIDILLAK

Aurtxo zoragarri bat
or, portalean,
otzak kil, kil, kil datza
lasto-gañean...

Ail Aur ederra!
ai! Aur guria!
ai! Aur gozoa!
ai! Aur eztia!
Otzak, kil, kil, kil datza
laslo-gañean.

Belen guztian
eztute iñun aurkitu
ostaturikan...
Ai! Aur ederra!...

Asto, idi batzuek
etziñik auspaz,
zerbait berotzen dute
beren arnassaz...

Ai! Aur ederra!...
Errukiago
dira abereak berak
gizonak baño...
Ai! Aur ederra!...

Txit emakume eder bat
alboan jarrita
zoro biurturik dago
ari begira...
Ai! Aur ederra!...

(4) Ba'dirudi *neure* ori *neurk* dala.

Bai, biek ere
ederrean, alkarren
antza ba debe,
Ai! Aur ederra!...

Andre eder aur, Aur onen
ama andre izanik,
jaio zanean bezela
dago orregatik .
Ai! Aur ederra!...
Zer miraria!
ama izanik, donzella
bait-da garbia.
Ai! Aur ederra!...

Aur eder onen Aita
ez da gizona;
da Espiritu garbi bat,
da Jaungoikoa.
Ai! Aur ederra!...
Argatik bada,
mirari ain andi au
gertatu bait-da.
Ai! Aur ederra!...

Maiz ekussi dezute
kristal garbian
nola sartu ta erten
oi dan argia,
Ai! Aur ederra!...
aussirik gabe
ta loirikan batere
utzirik gabe;
Ai! Aur ederra!...
gissa artan Andre onen
sabel garbian

sartu ta erten izan da
Jainkoaren Itza,
Ai! Aur ederra!...
aren gissara
mantxa gabe ta ossorik
gelditzen dala.
Ai! Aur ederra!...

Aguretxo bat ere
an dago Aurtxoaz;
ezin dauka negarra
pozaren pozaz...
Ai! Aur ederra!...
Iñoz malkoak
oi dira farra baño
gozoagoak.
Ai! Aur ederra!...

Jaunak esleiturik
bere ordekotzat,
Aurrak aita ez badu ere,
dauka artakotzat.
Ai! Aur ederra!...
Zorionekoa
izatea alako Aurraren
Aita Ordekoa!
Ai! Aur ederra!...

Beste gizakumerik
aurkitzen ez da
Aurtxo onen konpañia
eztitsu onetan.
Ai! Aur ederra!...
Mundu zoroa!
Ez du sekula jakin
zer dan gauza ona.
Ai! Aur ederra!..

Bañan ez zaio palta,
ez, konpañia;
bada Berekin dauka
zeru guzia.

Ai! Aur ederra!...
Argatik, naski,
dabil mundua igassi
toki artatik.

Ai! Aur ederra!...

Aingemak kantatzen
diote Aurrari:
"Gloria zeruetan
Jaungoikuari,
Ail Aur ederra!...
eta bakea
gizon on guzientzat,
berriz, lurrean".
Ai! Aur ederra!...

Nai dutenek etorri
betoz lasterka
musika zeruko au
aditutzera
Ai! Aur ederra!...
ta aekin batera
gure borondate ona
erakustera.

Ai! Aur ederra!..

Goazen, ta bere oñetan
umilki etziñik,
alabatuko degu
biotz guzitik.

Ai! Aur ederra!...
Modu onetan
ez digu, ez, ukatuko
deus ere ezertan.
Ai! Aur ederra!...

Eska zaiogun, bada,
lendabizian,
ez gaitzala, arren, utzi
gure bizian.
Ai! Aur ederra!...
Gurekin dela,
ez gera ezeren bildur,
naiz dena dela.
Ai! Aur ederra!...

Orain Aur maite onekin
ongi bagera,
gero eramango gaitu
beraz batera,
Ai! Aur ederra!...
bere Aitagana,
sekulako bizitza
ta gloriara.

Alabiz.

BIGARREN OTSALDIA

ARIA

Karidadéaren edo egiazko amorioaren aoan.

Au egun zoratzeko!
 Zer poz andia!
 zer atsegina! (5)
 Ain da poz nere gogoa,
 zeim da ez dakit zer egin.

ERREZITATUA

Jaungoiko andiaren
 esku indarzuak sortutako guziak :
 eguzki eder, illargi ta izar argiak,
 zerauk, lurra, ta itxasso zabalak :
atozte, atozte nigana zerenak.
Kanta dezagun guzian artean (6)
Jaungoikoaren gloriak (sic) gaurko gabean.

Mendi portizak, aariak bezela, danza;
 munotxoak salto bildotxoen gisará (7)
 ibar'ta madura lau, basso ta txara,
atózta, atozte nigana, zerenak.
Kanta dezagun guzian artean
Jaungoikoaren gloria gaurko gabean.

Arbola orritzu berde, trebola fíñak,
 larrosa, klabeliña ta jazmiñak,
 ibai zabal ossiñez betetakoa,

(5) Ez ote-da "Zer poz andi! zer atsegin!"? Ola egin dezake "puntu", ta ez
 beztela, koplaren bukaerarekin.

(6) Psalm. 18.

(7) Psalm. 1.13.

erreka berritxutxo itz-jarioa,
 itz, batean, zerua bere argiakin,
 lurra itxassoaz ta ur guziakin,
 ibaiak, arbolak, mendiak eta izarrak
atozte, atozte nigana zerenak.
Kanta dezagun guzien artean
Jaungoikoaren gloria gaurko gabeun.

ARIATXOA

Eguzki andia,
 izar argia :
 lastoan dautzan
 Aurtxo orrek
 sortuak zera, (sic)
 ta orren mendera
 bizi artean
 zaude zuek.

Ur asserrea,
 mendi eskerkea :
 lastotan dautzan
 Aurtxo onek,
 ain geldirikan
 zuen tokian
 leku batean
 zauska zuek.

Au alá izanik,
 aur biurturik
 gaurko gabean
 dadukat nik,
 gizon tristéa,
 penaz betéa,
 libratu dezan
 pekatutik.

Nik ekarririk
 gizon egiñik,
 nik gaur bear det
 kantatu
 bere etorrera
 gizon artera;
 eta ála zuek
 lagundu.

IRUGARREN OTSALDIA

ARZAI-KANTA

ADIRAKIA

Guziak dakite nola aingeruak gaztigatu zieten Belen-inguruko arzaiay, munduaren Salbatzaillea jaio zala estrabi batean (8). Ebanjelioko passarte onetatik ta beste toki askotatik, nun J. K. gureak bere burua, arzaizat izendatzen duen, artu izan da otsaldi edo kanta onen irudidea; zeñean asmatzen dan Belen-inguruko arzaiak, jakiñik Arzai berri bat eldu dala abel-etxera, alkar arturik diazen ongi-etorria ematera. One-tarako Tirsch ta Filis, lagun gustietatik gasteenai ta bozik onenak dituztenai enkargatzen diente ongi-etorria guzien izenean ematea, zeintzuek au egiten dutem kanta berri onetan; nun arzayaren egokikilde edo metaphoraren azpian estaltzen diran Jesu-Kristoren bizitza ta gure Fedeko Misteriorik nagussienak.

Artzai-korua :

Ola, goazen, arzaiak,
 abel-etxera,
 lagun berri bat
 essagutzera;
 ta ongi-etorri on bat
 ematekotzat
 guzien partez,
 Tersis, zuk eta Filis'ek
 kanta kanta berri bat.

Tersis ta Filis'ek biak :

Baña kontu zuek ere laguntzeas
 estribillo batez guzien artean.

(8) S. Luc. Cap. 20.

Guziak:

Ordu onean.

Tersis ta Filis'ek:

Arzay zoragarria!
Ona, emen gera,
ongi-etorri bm bat
zuri ematera.

Ez da arzayrik gelditu
inguru guzian;
diranak emen datozi
bada elkarren leyan.

Eranzueras:

Eranzun, bada, lagunak,
essan dezun bezela, (sic)
jakin dezan etortze onez
nola gu poztu geran.

Ea bada, kanta laster :

Guziak:

Bai, bai, bai, bai, bai, bai...

Biak:

Ea bada, kanta laster.

Guziak:

Bai, bai; bai, bai; bai, bai; bai...
Ongi etorri zerala,
Arzay paregabea;
gurekin bearka dezu
beti sekularean.

Tersis ta Filis:

Artaldeak, bakarrik,
txabolak, zai gabe

utzirik gatoz, baña
ardurarik gabe;
pistietatik dala
naiz lapurretatik
zuk gordeko dituzu
or zautzan iekutik.
Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta FiHs:

Etsaya alferrik dabil
leoia bezela
inguruka, ustez zerbait
artuko duela (9).

Juda'ko leoiaren (10)
begiratznn batek
utzierassoko diskा
laster bazter abek.

Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis :

Zu agertuarekin
egingo dute igez
gure etsay guztiak
emendik bildurrez;
euren damu gaistoan
ujatuko dira,
ta infernuetaraño
ondatuko dira.

Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis:

Arzayzat zendozena
ainziña gengian,
lenagoko gizonay

(9) Pedro. Cap. II. Cap. 50.

(10) Apoc. Cap. V.

maiz aditurikan;
ta ain maite artaldea
izango dezula,
mon-ta azkenik bizitza
kastauko zaitzula.
Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis :

Ardiak duten sarna
kentzeko jakiñik
ez dala Arzayaren
odola lakorik,
etorr Rita egun asko
passatu baño len,
assiko zeradela
ugariro issurtzen.

Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis :

Amorio andi onek
parerikam ezi du;
Arzay Ona zerala
erraz desakezu (11);
orreka ardiak zaitzen
ipiñiko zaitu,
ta orrek, aien ondoren
ekaniko zaitu.

Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis:

Bost bider ekustean,
lagunak utzirik
ardiren bat diala
bide okerretik,

galdu dedin bildurrak
osta antxiturik,
biurtuko dezu atzera
lepoan arturik (12).

Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis :

Ogei ta amairu urte,
pena andiz beteak,
emango ditzu, abek
ondo gordetzeak;
ta, aien kabuan gero
esker ematea
izango da gogorki
bizitza kentzea (Passioa).
Eranzun bada, lagunak..

Tersis ta FUis :

Orduan kunpli dedin
ainzinako itza,
"arzaya jo ta ardiak
banatuko dira" (13);
baña, iru egnn barru
zu pistuko zera
ta bilduko dituzu
elkargana ostera.

Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis :

Ala ere Aitagana
biurtu bearko dezu,
ta artalde maite ori
utzi naiko ez dezu ;

(12) S. Luc. Cap. 25.

(13) S. Marc. Cap. 24.

baña zure amoreak
asmatuko bait-du
nola, joanagatik,
aiekin gelditu,
Eranzunbada, lagunak...

Tersis ta Filis:

Mirarietatikan
mirari andiena (14)
izango da, artarako
ikusiko dena :
bada ogiaren antsaz
ostia batean
geldituko zerade
zure artaldean (Eucharistia).
Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis:

Emen zerutik iñoiiz
alde egin bagerik,
egongo zera, ardien
jamari egiñik (15);
orrela izango zera
beti aien aldean
arik-eta munduak
dirauen artean (16).
Eranzun bada, lagunak..

Tersis ta Filis:

Asko ez baliz bezela
mirari ain andia,
ipiñiko ere dezu
ordeazko Artzaya (sic),

(14) S. Tom. Serm.

(15) S. Joan. Cap. 12.

(M) S. Mat. Cap. 28.

zure ardiak ongi
gobernatu ditzan (17)
ta bide ometatik
erabilli ditzan.
Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis:

Arzay onen mendean
arkitze ez diranak
izan bearko dute
galduak diranak;
ta, ala, Arzay maitea,
zurekin nai degu,
ta argan zure Ordea
esagutzen degu.

Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis :

Arzay onen mendean
bizi ta ilko gera
joateko zurekin
Aitaren aldera.

Arren, lagun zakizgu
au ala kunplitzen,
gero goza zaitzagun
zeruetan. Amen.

Eranzun bada, lagunak...

KOPLA JOSTALLUAK

Essagun du munduak
 Jesus jayo dena;
 ain dago mudatua ,
 ez dirudi lena.
 Len guzia zan pena,
 negar naibageak;
 ta orain atzegin, gusto,
 algara, farreak.

Gorroto, errierta,
 auziak ta gerra,
 gaitzak, gosse, gezur ta
 intenzió okerrak
 juanik, ya ez dago
 ezerren bildurrik,
 ta ála dago mundua
 zeru bat egiñik.

Abogadu, eskribau
 eta merioak,
 mediku, barberó ta
 botikarioak
 ez dira bear; ta argatik
 izango da sarri
 Hipokrates gajoa
 saguen janari.

Ezpatak, lanzaak eta
 beste arma guziak
 erossitzen dituste
 errementariak;
 ta alperrikan ez dedin
 galdu burni ura,
 enpleatzera diaz
 gure probetxura.

Atxur, burdiñara ta
 golde biurturik,
 nekazari langiñak
 ongi giaturik,
 emango digu lurruk
 garia ta artoa,
 gastaña, sagardoa
 ta ardoa naikoa.

Garia eta artoa
 merke ta ugariro,
 gastaña ta sagarra,
 berriz, urte-oro;
 ta ardoak, galdurik
 lengo malizia,
 ez gaitu moskortuko;
 edan zia-zia.

Ez da oneskerio essango
 gezurrik batere;
 egia essango dute (sic)
 dendariak ere.
 Juan da emendik trampa
 ta fede gaistoa...
 ya urgabe saltzen da
 tabernan ardoa.

Bassa-arteko pistiak
 malso-malso egiñik,
 ez dute ya alkar jaten,
 ta ain gitxi gizonik;
 bat egiñik guziak
 alkarren artean,
 bizi dira etzai gabe
 kontentuz bakean.

Otsoa eta ardia
zelai zabalean
sarri ekusten dira
biak jolasseen;
alberdanian txita
aizariarekin...
portugesa lastanga
gastelaubarekin.

Aujen bai dala egiaz
denbora urreskoan,
ta ez len koplari zarrak
eraussitakoa;
oraiñ aien amessak
egia sorturik
ekusten adi gera,
pozez zoraturik.

Bañan kanta berri au
geitxo luzatu da;
nere eztarri tristea
iá urratu da.
Naiago det issildu
katarratu baño...
Agur, nere jenteak,
urrengo urteraño.

Orra, bada, Azkoitia'ko "Gabon-sariak". Eta Gabon-sariakín guk
Gabon-kantai buruz gaur esan nai genduana.

Eta onenbestez, guztioi GABON!

1956.

Artzai - kantak

Goazen orain beste batera. Artzai-kantak.

Erderaz *Villancico* deritzate. Eta izen au, *villano'úí* artua da. *Villancico* ta *Villanesca*. "Erri-xume-kanta" alegia. Erri-ezjakin-kanta. Kanta oietan olerkariak —olerkaririk jakintsuenak ere— ezjakin-papera egiten du; eta bere esan-bearrak ezjakin-itxuran ditu esaten. Olerkari ez baño artzai izaki alegia. Éta artzai batek Jesus'en jaiotzaren aurrean jalkiko lituzkean itz eta sentiera ber-berak jalki berak ere... Orixe da *Villaincicoa*. Orixe da Artzai-kanta.

Marijesiakin batetsuan sortuak ote-ditugun : ori genion goratxuago. Nolanai dala, Kopla Zahaffák baño berriago ditugula, ezin ukatu. Eta gero Gabon-kanta (?) parragarriai sórtzea berak eman ziotela ere, ezin uka.

Zorion audi batez ba'degu esku-artean XVIII gizaldi-asierako bat, polit askoa. Orain ogeitamar urtetsu Laurgain'go ganbara betean arki-fua bera. Bere melodi ta guzti —melodia, gizaldi artan sortua bezela, ez ain errikoi polit—. Segura'ko Lardizabal tarren etxe bateko ganbaran zegon, beste musika-paper askoren artean —musikak, asko, geienak, klasikoak, ezagunak; bañan aien artean, antxe gure bitxi au.

Begira :

Estríbillo (1705)

Eder dek olaan gabia;
larre onean ardia...
Nafar (sic) baño obe diagu
Zaragoza'ko zuria.

Brindatzen diat, Zeledon;
onixek egiten dik on;
sekulako onezkero
izango gaituk gu gizon.

Koplak

Belen'eko portalepean
omen-zeagok Jaungoikoa;
ura ekusten an omen-dek
Paskoal gure aldekoa.

Goazen gu ere, Petiri;
Paskoal ez dek agiri;
ardiaz kontu dadukala
esan zeagot Gatxi'ri.

Temporau egon arren oz,
ba'natxeak ni gogoz;
alako Jauna ekustekoz
zer erur da zer izoz?

Portalepean omen-zeagok
aurtxoa narru-gorrian,
dama eder bat dadukala
aldean bere adian.

Gizon bat ere omen-dek
dirudiana santua,
bere izenez derizena
San Joseph justua.

Aur gazte onen oea
gutziz omen-dek pobrea,
lastoz debana koznea,
otez oa betea.

Bere aldean omen-zeatuk
astoarekin idia;
oetxek biok jango zegoe
oeko lasto guztia.

Astoak ón dik oloa;
idiak arto-lastoa...
Festa onetan edan dezagun,
Petiri, ekar ardoa.

Umore oneko gizona zala Artzai-kanta onen egillea, ez da esan bearrak. Umore onekoa alde batetik, eta kantagiñan ez bertsolari motza beste aldetik. Iraizean eta nola-nai eginak diruditelarik, oso ederki an-tolatuak dirudizkigu guri bertso oiek. Errikoi, alde batetik; eta naiko Jetradun, bestetik. Oso 1705'gn. urteko Gerotxuagoko Azkoitiko "zaldun-txoen"- antzekoa agiri zaigu oien egillea. Kantak Segura'ko Lardizabal-taren etxe batean arkitu genituan, Laurgain'en. Lardizabaltarrak beti ere zalduntxo agiri izan baitdira Gipuzkoa'ko edestian. Aien "gaubella-tan" kantatzen ote-ziran olako kanta politak? Ba'liteke. Azkoitiko "zal-duntxoak" etziran, perretxikoak bezela, gabetik goizera sortu izango Gi-puzkoan. Geroxeago eterri zitzaikegungo, gure kanta oiek baño gerotxua-go. Bañan izango zuten aiek ere nun ikasi. Kanta onen antzekoetan ez gutxi.

Dana dala, artzai-kanta onekin zerbait zer-ikusi duan beste kantaren bat ere arkitzen degu Azkue Jauna zanaren Caraciortero'an. *Olaako gabia* aipatzen du Laurgain'goak. *Olagizonak* aipatzen ditu Azkue'ren beste Al-tzola-Elgoibar'ko onek. Biok garaitsu bateko diran señale : XVIII gizal-dikoak alegia.

Ai! au gabaren preziosoa!
Jesus jaio da Balen'en.
Etxe onetan sartu ote-dan,
billa gabiltza beraren.

Erdiok gera olagizonak,
beste erdiok arotzak;
limosnatxo bat egitekotzat
bigundu bitez biotzak.

Belaunbikoka juan giñaden
Nazaretikan Belena,
geuk adoratu bear gendula
Jesus Maixua lenena.

Ama geureak geure beiari
kaikua-esne bildurik,
aurtxo onentzat ekarri degu
artu baleio gusturik.

Or goitik eta berañokoan
 artzain zarraren saltoak!
 bildots andia lepoan eta
 altxa eziñik orpoak...

Puskallo txiki batzuek besterik ez badira ere, ez dira ezestekoak
 beste onako oiek ere.

Ernani'koa au:

Txamarra tzartxo bat, Jauna, zuri,
 gorputz eder orren estalgarri
 emango nizuke gusto aundiz,
 luze laburrean ongi balitz.

Ai, oi! gabaren on!
 Jaio-berri ori non degu, non?

Lagunak ere ba'ditugu, bai:
 lau artzaik eta bost unai :
 Santxo, Peru, eta Martin, Anton,
 Prantzisko, Paulo, Beltxior, Simon.

Ai, oi! gabaren on!
 Jaio-berri ori non degu, non?

Eta Tolosa'koak beste bi oiek :

Txomin ta Patxi, Anton ta Peru
 datozi or goiko menditik,
 aditurikan aurtxo eder bat
 dagola estalpe batean, ai! ori!
 lasto-gañean,
 umildadean,
 Jaun ta Jabea izanik. (Neurri polita benetan!)

Ikullun dago astoa,
 ganbelan dauka lastoa...
 Arkakusoak itoko al-du
 etxe ontako atsoa.

Bañan or azaltzen du muturra beste kanta-mota batek: Gabon-kanta "parragarriak". Ez bait-diogu, ordea, kanta-mota oni lekurik eman nai gure azterketa ontan, bego gauza bere ortan.

Ala ere, ez degu bukatuko sail au, beste bi artzai-kanta aipatu gabe; txikitán ain amesgarri zitzazkigun bi artzai-kanta : "Artzai buru-txuri bi" ta "Aur eder baten billa". Biok doñu berean ematen diranak ain eza-guna dan, ta geiago izatea merezi lukean euskal-kutsu aundi dun zortziko txukun artan... "Artzai buru-txuri bi"-ren doñuan...

Artzai buru-txuri bi
Anton eta Peru (zein ote-ziran artzai buru-txuri
Belen'go portalera [aiek?] etorri zaizkigu.)

Sartu dira barrena,
Manueltxo'gana;
presente egin diyote
arkumetxo bana.

Eta bestea, Erregenari dagokiona, zortziko jatorra —zein artzai-ope-retaren zati ote-genduan, berriz, zortzikotxo au?

Aur eder baten billa
gabiltza zoratzen.
Izarrak esan digu
galdetzeko emen.
Jaungoikuaren erri
maite Jerusalen,
esan zaiguzu laster
Jesus non jayo den.

Orra bete gure kutizia. Eta goazen orain aurrera. Azkoiti'ko "Gabon-sariak" ikustera.

Noelak

Eta aipa ditzagun Noelak, Bidasoáz beste aldeko Noelak —Eleizja-kinduriz anpatu-Noelak.

Eta beste guztien gañetik neretzat "Oi! Betlehen!". Urteak dira le-nengo aldiz entzun nuala. Eta ordurako nefoni ere olako saiotxo batzuek egiten asia nintzan —saio utsak baño—. Eta egia esan bear badet, inbiri audi bat sentitu nuan Gabon-kanta arrigarri aren aurrean : ez nintzala, alegia, ni sekulan ere elduko beste alako bat egitera nere bizi guztian. Alaxe dan bezela. Ez ni, ez besté iñor. Euskerak duan Gabon-kantarik ornituena, "Oi! Betlehen!" da, ta baita izángo ere neretzat. Euskal-melodirik ederrena, "Oñazez". Euskal-Gabon-kantafík ederrena, "Oi! Betlehen!".

Neurri bikaña, ez-oitua..., berria. Melodiak diola ematen? Ala biz. Bañan, dana dala, ederra benetan. Itzak, biotz-aundidunak, xentimentukeri gabe sentituak, giza-sentimendunak. Bizkarrezurrean gorako zirra-ra-egilpeak. Apalak, bañan jasoerazleak. Gizonki sentituak dianak. "Oi! Betlehen! Oi, Betlehen!". Lenengo aldiz sentierazitako zirrara ura, bein ere galtzen ez dezun Gabon-kanta indartsua... Nor izan litekean zure egille, zure aita!...

Begira :

Oi! Betlehen!
Ala egun zure gloriak,
 Oi! Betlehen!
 Ongi bait-du distiratzen
 zugandik eldu den argiak;
 betetzen ttu bazter guztiak,
 oi! Betlehen!
 oi! BetlehenJ

Zer ohore!
 Ala bait-zare goratua!
 Zer ohore!
 Zer grazia! zer fagore!
 Zeruaz zare hautatua,
 Jesus'en zare sor-lekuua...
 Zer ohore! (bis).

Azkeneko
 hor eldu da Jesus justua
 azkeneko.
 Gu dohatsu egiteko
 hertsi nahi du ifernua,
 guretzat zabaldu zerua,
 azkeneko (bis).

Guregatik
 Jainko bat botherez bethea
 guregatik
 jausten da zero-goratik,
 bai, sortzen da Jesus maitea,
 biktima notharik gabea,
 guregatik (bis).

Mañateran
 datza haurrik aberatsena,
 mañateran!
 Nork zuken sekulan erran
 zero-lurren Jabea dana
 ikusiren zela etzana
 mañateran?... (bis).

Artzainekin
 heldu naiz Zugana lehiaz,
 artzainekin.
 Hek egina nai dut egin,
 ta adoratzen zaitut. Mesias,
 eta maite bihotz guztiaz
 artzainekin • (bis).

Ez dut deusik,
oh Jesus, Zuri eskaintzeko
ez dut deusik
bihotz hobendun bat baizik;
eskerren Zuri bihurtzeko,
hanbat emaitzen pagatzeko
ez dut deusik,
ez dut deusik.

Kopla guztiak ederrak benetan; bañan iru azkenak batez ere, ederrak eta bikainki bilduak eta biribilduak... «Mañateran», «Artzainekin» eta "Ez dut deusik".

GERNIKA'KO GABON-KANTAK (1764)

(UN DOCUMENTO DEL EUSKERA VIZCAINO DEL SIGLO XVIII)

TRANSCRIPCION MODERNA, TRADUCCION Y COMENTARIO LITERARIO

El feliz descubrimiento realizado por D. J. Ignacio Tellechea, viene a enriquecer notablemente el exiguo acervo documental histórico de la lengua vasca, con una pieza vizcaina del siglo XVIII, de excepcional importancia, al cual queremos hoy dedicar un pequeño comentario.

La pieza, como se ve, lleva por título *Guernicaco Gabon cante* y como lo indica el mismo nombre, es una pieza navideña. De entretenimiento, a juzgar por el tomo general de la composición. De alegre entretenimiento, alrededor del Misterio de Belén.

Se trata, sin duda, de un ejemplar de las llamadas *Gabon-sariak*, que en el siglo XVIII se estilaban, como aquella conocida que se compuso y se representó en Azcoitia el año 1762, y cuyo autor, por lo que se ve, fue el Conde de Peñaflorida, D. Xavier de Munibe, fundador de la Real Sociedad de los Amigos del País.

Esta clase de composiciones estaban destinadas a ser cantadas en las Iglesias, a modo de un número de teatro religioso —Misterio— de las proporciones de un entremés esta vez.

Esta de Guernica viene a ser fundamentalmente un diálogo en verso vasco vizcaíno, entre dos personas, de no pequeño contraste ambos entre sí, más que por su actitud ante el Misterio, por su distinta psicología y su modo de expresarse.

El uno es un vizcaíno de cepa; el otro, por el contrario, se ve que es un advenedizo, un *euskaldun berri* que diríamos hoy, un *euskalgaitz o euskel-geizto*, como dirían entonces —un a modo del curioso *Anton koko* del canto VIII del poema Euskaldunak de Orixé— nada expedito él en el manejo de la lengua, y nada culto aun por lo demás, si bien muy occurrente, que habla una jerga vasca un tanto especial (una verdadera contrapartida en nuestra Literatura, de los casos en que en la castellana sus escritores hacen intervenir a vascos no bien impuestos en la lengua de Castilla; el típico "vizcaíno" de Cervantes en el

Quijote, encargado de hacer sonreír al lector con su hablar disparatado). A este personaje el autor del *Gabon-cante* llama *Muxhill*, así como a su contrincante llama sencillamente *Vizcaitar*.

Las estrofas a cantar, alternando, entre los dos, son en número de doce; pero antes de ellas, que forman el núcleo central de la pieza, hay un diálogo de introducción (*Sarmen*), que musicalmente sería, como suele, un recitado. A este recitado sigue um coral (*Gustiac* lo Uama el autor) donde se previene precisamente la diferencia de euskeras en que se expresará cada uno de los dialogantes. Así mismo después de la primera estrofa, cantada por *Muxil*, hay un estribillo (*euscarichu* lo llama el autor) al parecer también de carácter coral cantado por todos, y en el que irónicamente se pondera la calidad del canto del *euskalgeizto*. ¡Lástima grande que no se conozca la música de tan interesante pieza!

La pieza, literalmente, es graciosísima, y desde luego más natural y menos culterana que la *Gabon-sariak*. del Conde de Peñaflorida, y comparable a este respecto, con la pieza también navideña mondragonesa, de Barrutia. Nosotros le hallamos también un sabor parecido al ejemplar de Laurgain de Aya, cuyo texto tenemos publicado en nuestra "Literatura oral euskérica", y cuya primera estrofa empieza *Eder dek olaan gabia*. Humorística también ésta, como también la de Barrutia de Mondragón.

La pieza guerniquesa está firmada por un Gándara, quien, conforme a la adjunta carta dirigida al P. Larramendi, es D. Sebastián de la Gándara, y en la carta se califica a sí mismo de *Zeure ikasletxu humil, zindoa*, "leal humilde discipulito" del jesuíta andoaindarra, a quien a su vez trata de *Meixu txito argiti Aitm Manuel Larramendiko*, "Muy ilustre Maestro Manuel de Larramendi".

He aquí ahora el texto completo, con su correspondiente traducción castellana, transcrita en la ortografía de la Academia de la Lengua Vasca, con alguna insignificante enmienda a la transcripción del Sr. Tellechea en alguna palabra.

GERNIKA'KO GABON KANTE-HURTE 1764

MUXIL TA BIZKAITAR BATEN ARTEAN

*Sarmen**[Introducción]*

- | | |
|---|---|
| 1. Auxe ze gabea! | 1. ;Qué noche esta! |
| 2. Zelanbere dan! | 2. ;Ya lo creo que es! |
| 1. Nik yakin-miñaea
asko da esan. | 1. Yo tengo mucha gana de ha-
blar. |
| 2. Ekin, bada, Muxilla!
nai etzaitut ixilla. | 2. Comienza, pues, Muxil; que
no te quiero mudo. |
| 1. Zeu lagun niri abia,
urtengo kantu guztsia. | 1. Si te mueves a ayudarme, lue-
go saldrá todo el cantar. |
| 2. Orrelan biz. | 2. Así sea. |
| 1. Poz dot izan. | 1. Me alegro. |
| 2. Gakiozan. | 2. Comencemos. |
| 1. Ni zeure aldiz. | 1. Yo alternando contigo. |

*Guztiak**Todos*

Galanto, eretxian,
orniduko da kantea;
bakotxaren aldian
izango da euskerea
dagokion zorian.

El cantar, según parece, resultará
elegante; el euskera de cada uno
se ajustará a su correspondiente
condición.

2. Aurra, maite,
asi zaite.

2. Ea, querido, comienza ya.

Mux. Juda'n bat huria
da Belen.
Ona eterria
zan Virgen,
assentetako
zerren zalako
Yose, yatorria
David'en.

Mux. En Judá hay una Ciudad.
Belén. Llegóse **allá** la **Vir-**
gen, para empadronarse,
porque José era del linaje
de David.

Euskaritxua

Iñoh!
Guztiz alai
diño.
Onek nun-nai
ots-egin bear leuke
tantara-rai.

Estríbillo

! Santo Dios! ;Qué alegre que can-
[ta!] !
Donde quiera, cantar debiera éste
Tantara-rai.

II

Bizk. Ostatu-nayaz zen
Maria.
Alperrik zan Belen
andia.
Etzan aurkitu
nok an laketu
hari gela baten grazia.

II

Vizc. Buscaba hospedaje María.
Grande era Belén; mas en
vano. No se halló quien allí
le hiciera el regalo de un
aposento.

III

Mux. Ah! Jente gangarra
Belen'go!
Guztioi zaldarra
urtengo!
Zuek uketu
Birjiñi leku?
Zuentzat su-garra
hurrengo!

III

Mux. ;Ah! ;Gente fatua de Be-
lén! ;Así os brote el loban-
nillo! ^Negarle vosotros un
lugar a la Virgen? ¡Luego
os veréis en llamas!

IV

Bizk. Sartu zan abere
etxeán.
Yose zala bere
aldean.
Bertan semea
—bakar berea—
argira zan gure
onean.

IV

Vizc. Entró en un cortijo de ani-
males, teniendo a su lado a
José. Allí nació el Hijo
—su Unigénito— para nues-
tro bien.

Mux. Nok dau ez orretan
mirari?
Zienbat zor geutsan
Amari!
Antxe nik egon,
mosu da emon
ointxu politean
Berari!

Mux. <Quién no se admira de eso?
¡Cuánto debemos a la Ma-
dre! Si yo me hallara allí,
bien le besara a El en su
bonito pie.

VI

Bizk. Bizi direanak
lurretaii,
baita dagozanak
goietai,
Andra txukuna
biotz-biguna!
zeuri esker manak
milletan.

VI

Vizc. Los que viven en la tierra,
y los que moran, en los al-
tos, hacendosa Señora, blan-
da de corazón, gracias a ti,
por miles.

VII

Mux. Ago, deabrua,
aserre;
oraintxe burua
yak erre.
Agiñak naiko
zerratu? Aiko!
emon zorroztua
nik zerre.

VII

Mux. Airado estás, ;oh diablo!
de esta hecha te arde la ca-
beza. iQuisieras aserrarte
los dientes? jHale! yo te
daré uiia sierra bien afi-
lada.

VIII

Bizk. Birjiña : zeuroren
besoak
dira gozoáren-
gozoak.
euretan sarri
Jaungoikoari
zagoz eragiten
oahoak.

VIII

Vizc. Dulcísimos son tus brazos,
oh Virgen. A Dios, recos-
tado en ellos, de continuo
le cantas canciones de cuna.

IX

Mux. Esan da nik, Virgen,
guztia :
sekula ta amen
eztia
dala ber-bera
burutik-pera;
garbi dinot emen
egia.

IX

Mux. |Oh Virgén! Yo lo diré to-
do: *saecula y amen*, que
desde la cabeza abajo es la
mismísima miel; digo aquí
la verdad pura.

X

Bizk. Jaungoikoa, zeuxek
azia
izango, ez bestek,
Maria.
Azitzallea,
ide-bagea
dauko ugatz orrek
guria.

XI

Mux. Ai! bekatariak
ízán gu
Zeure bitartea
balidu!
GureJabea:
gugatik, ea!
Zuk egin sotillak
erregu!

X

Vizc. A Dios le criareís Vos, que
no otro, María. Alimento
sin, igual es el néctar de
esos pechos.

XI

Mux. \ Ay, que somos pecadores!
/ Válganos fu intercesión!
Séñora nuestra : presentad,
jea! vuestras finas súplicas
por nosotros.

XII

Bizk. Apaintzalleari
osaiak;
enda Baltzola'ri
graziak.
Egin dan bihar
biraldu bear
yakaz Muxilla'ri
sariak.

XII

Vizc. Saludos (?) al aderezado;
y gracias a Balzola.
Conforme (?) a lo hecho,
habrán de enviarse los aguinaldos a Muxil.

La técnica del lenguaje de *euskal-geizto* del Muxil, tiene sus recursos típicos. Nosotros señalafemos aquí unos pocos.

Desde luego, es típica de este lenguaje la supresión o ahorro del auxiliar del verbo, dejando a éste en su forma imprecisa, de nombre verbal, presente, pasado o futuro... *Urtengo* (dau) *kamta guztia...* *zalda-rra urtengo* (ai-leuskio!)... *antxe ni egon* (banintza)... *agiñak naiko* (do-zak) *zerratu?*... *emon* (go deustat) *zorrotzua nik zerre...*

Otras veces no omite dicho auxiliar; pero es, empleando la forma *da*, de la tercera persona, para todo evento, aun para casos de primera y segunda persona. ...*nik yakin-miñeа asko da* por *asko dot*; ...*mosu da emon*, por *mosu neuskion emon*; ...*esan da nik*, por *esan o esango dot nik*...

Otras veces será un orden chocante de construcción, de la frase: ...*Juda'n bat huria da Belen...* *Zerren zalako Yose yatorria David'en...* *Nok dau ez orretan mirari?...* *Zuk egin sotilak erregu...*

Tales recursos dan perfectamente la impresión —buscada por el autor— de un conocimiento imperfecto de la lengua, en el personaje del Muxil. Y creemos nosotros que coni verdadero acierto y mucha gracia en muchos casos.

El lenguaje del Bizkaitar, por contraste, es de una corrección plena. Con frases de certero acierto en casi todas las estrofas.

Entre las estrofas de Muxil, hay alguna de una gracia vizcaína desbordante, como aquella del Ago, *deabrua, aserre*, cuando Muxil insinúa al maligno la idea de aserrarse los dientes, operación para la cual él se compromete a aguzar la sierra... *Aikol emon zorrotzua nik zerre...*

Entre las estrofas del Vizcaíno, son de ternura de buena ley la VIII y la X. Y de una bien lograda sobriedad, lo son todas las de su mano.

Aumenta extraordinariamente el mérito de la pieza, el pie forzado de su rica y difícil métrica.

La métrica de la composición, es comparable con la muy sabia y artificiosa de las obras poéticas de Oihenart. Como ritmo y como rima. La rima es muy rica y selecta, rimando no sólo los versos —brevísimos versos— pares, sino aun los impares: en, verdadera consonancia; y hasta con una novedad —hoy en desuso, pero corriente en la poética del

siglo XVIII— de intercalar en medio de una rima general, un pareado de rima distinta. Procedimiento que conoceemos como usual a través del P. Meagher en sus versos al vino, y del P. Basterrechea en su Poema de la Pasión,, y que fue seguido después por Xenpelar en la canción que dedicó a Iparraguirre y a las muchachas de Oyarzun, y en la que cantó contra la guerra. Esta intercalación pone una nota de sorpresa en el proceso general de la estrofa, con el consiguiente agrado estético del oyente o lector.

Véase como ejemplo, la estrofa III, del Muxil:

Ah! Jente gangarra
Belen'go!
Guztiai zaldarra
urtengo!
Zuek uketu
Virgiñi leku?
Zuentzat su-garra
hurrengo!

Y compárese, v. gr., con una estrofa del Poema del P. Basterrechea :

Jesus onari kendu ezkero,
pekatuakin bizitza,
negar egiten ez baldin badet,
arrizkoa det biotza.

Guztiok lagun,
kanta dezagun
Aren penazko eriotza.

Por lo demás, a una simple audición de las estrofas de Gándara, se nota el ritmo ternario de sus versos impares, (*Ah! jente gangarra*) y, por el contrario, el binario de los brevísimos pares (*Belen'go; urtengó*), y ternario, de nuevo, del pareado intercalar {*zuek uketu - Virgiñi leku*}.

Ahora bien, en el caso de Xenpelar, la rima de la sorpresa puede no ser intercalar, sino de fin de estrofa.

Okasiyua prestatzen,
 lotan daudenak esnatzen...
 Neri etzait gustatzen
 maleziyanjostatzen
 iñorekin ibiltzia :
 ark merezi du íltzia.

He aquí, así mismo, una estrofa del P. Meagher —de una sintaxis, eso sí, un tanto plorentxinesca, con evidentes resonancias latiuo-castellanas—, pero en, la que, desde el punto de vista de la métrica, la intercalaeión del pareado tiene lugar en la misma forma del P. Basterretxea y de nuestro Gándara :

Ni naiz txit gauza gozoa,
 eta pozkida osoa;
 beltza naiz ta *zuria*,
 illuna ta *argia*,
 indarra det eta garboa...
 ta izena det ardoa.

Aliora, para terminar, vámós á señalar un par de particularidades, referentes, no ya a la métrica, sino a la ortografía y a la sufijación.

Desde luego, nosotros, ya lo hemos dicho, hemos cambiado la ortografía original del Gándara, por la hoy universalmente adoptada, de la Academia de la Lengua Vasca. Pero es de notar esta particularidad : que ya Gándara, por su propia cuenta, emplea, igual que nuestra Euskaltzaindi, la letra *x* para la sibilante palatizada (*Muxillat*, *ixilla*), si bien añadiendo a dicha letra una *h* (*Muxhill*, *ixhilla*).

Otra particularidad : la forma del apellido del P. Larramendi, que Gándara formula *Manuel Larramendico*, si bien el propio Larramendi lo emplea en la forma castellana de "Manuel de Larramendi", forma que emplea el mismo Gándara al firmar su carta : "Sebastián Antonio de la Gándara".

Por lo demás, las correcciones que hacemos a la lectura original, se reducen a aquel *gue izan* de la estrofa V, que **por** la rima y el **sento**ido de la frase, nos parece deber leer *geutsán*, si bien cabría también leer, adjudicando el *ge* al *zor* precedente, de tal manera que resultase:

*Zienbat zorge izan
Amaril*

con traducción nada fácil.

GABON - KANTA POLIT BAT

(GOGORATZEN)

Biotza ukitu zidan Gabon-kanta. Oyartzun'en. Legarreko Konbentuan.

Amar bat urte nituan. Baliarrain'en, latin-ikasten nenbergilean.

Gure errian, Legarre'ko Kaputxinoetan Gaberdiko Meza zan. Erriko Elizan etzan Gaberdiko Mezarik ematen; leengo oitura kendu-berria zan. Gazte-jendea, arra-arra, joaten, zan Legarre'ko Gaberdiko Mezeta.

*

Legarreko Aita Kaputxinoak etorri-berriak genituan Oyartzun'en. Gizaldiaren asieran Prantzia'tik Combes batek bota bait zituan, Oyartzun'en Legarre baseria erosi eta antxen egin zuten beren Konbentua. Gabero-gabero, arratseko amabitau, erri guztian entzuten zan A. Kaputxinoen Maitiñetako kanpaina.

Oso ezagunak ziran errian Legarre'ko Konbentuko A. Euxebio bat (xantua, munduan santurik bada), A. Juste (diplomatikoa, diplomati-korik bada), A. Felipe (jatorra, jatorrik bada), eta Anai Bernardo (Konbentuko ate-zaia, Praile zabal, indartsu-indartsua)...

*, *

Gaberdiko Meza daukat nik orain gogoan.

Legarre'ko Eliza, etzan Eliz aundia. Noiznai betetzen genduan. Gaberdiko Meza artan leporaño bete genduan. Mezetara, bideak betean, braya-braya etortzen ziran Iturrioz'ko ta Ugaldetxe'ko gazteak, neskak batez ,ere.

Mezako kantuak A. Euxebio "xantuak" zuzentzen zituan, bere eztarri goxoz. Gau artan, aingeru-aurpegia zuan gure A. Euxebio'k.

Meza bukatu zanean, Aurra adoratzera berak eman zigun. Aurra adoratzekoan, kantuan A. Euxebio'ri beste batek txanda-egin zion; guretzat oso ezaguna zan gizon batek : Pierrex'ek.

Pierrex au, iturrioztarra zan. Joxe Ramon Goienetxe bere izenez, bere aita Pierrex zalako, berari ere "Pierrex" esaten geniona.

Eskola ona zuan Pierrex'ek; errian. maisurik gabe gelditzen giñean, Pierrex'ek ematen zigun eskola. Matematikatan zan batez ere oso pierra.

Bañan Gaberdi artan kantari on ere azaldu zitzagun. Joxekrutx "dانبوررak" bere danborrarekin laguntzen zion Pierrex'i sarrerako Koroaren, kantuan. Estrofak, Pierrex'ek berak bakarrik kantatzen zituan...

Gau artan Legarre'n kantatu ziranak, ez dakit zeñenak ziran. Nik uste Pierr.ex'ek atereak zirala. Nolanai ere, naiz Koro, naiz Estrofa, dana Gabon-kanta ederra zan.

Gau artan neri biotza ukitu zidatenak, bi kopla dauzkat nik go-goa. Orduan gogoan, artuak, eta beti gogoan ditudanak.

Orra orain, diran bezelakoak :

KORO

Zarrak eta gazteak
guztiok batean,
Jesus jaio dalako
dantzatu gaitean.
Elkar maitatuz bizi
(Pierrex'ek "amatuz" esaten zuan)
elkar maitatuz bizi
bagera pakean,
aisa sartuko gera
zeruko atean.

ESTROFA

Josepe ta Maria,
Eguerri-bezperanj
Belengo Portalera
allegatu ziran...

Josepe'k esan zion
Ama Birjiñari:
"Ostaturik eman nai
ez digute guri...
Estalpe bat ba dakit,
eta segi neri;
antxen deskantsatuko zerade
bai, zu triste óri".

"Bai, zu, *triste ori*" orrek duan grazia, eta neri egin zidan biotz-zarradakoa —bai musikagatik, bai itzengatik— ez bait zait berealakoan aaztuko neri.

Koroaren musika, konpas bikotekoa da; bañan Estrofarena, zortzikio jatorra, 5/8 puntilloduna; Pierrex'ek, gáñerá, eníasis puxka batekin kantatzen bait zuan azkeneko *bai zu, triste ori...*

Zer geiago?

Meza bukatuta, etxerakoan,, Ugaldetxe'ko ta Iturrioz'ko neskatzak saltoka ta dantzan jetxi zutela Konbentutik kaleraño Legarraldapa'ko galtzada. Kalera irixtean, IClaudio serenuak ixillerazi bear izan bait zituan.

BELEN

ARIN, ARIN, GUZTIOK
(Pazkuetako «Oh, filii et filiae» bezela)
(1920-XH)

Arin, arin, guztiok guazen;
pozkariz danok bete gaitezen;
gaur jaio da Jesus Belen'en
Zoriona!
Gugatik jaio da Belen.'en
Jesus ona.

Au gabaren zoragarria!
Jaungoikoa zerutik jatxia
askatxoan dago jarria,
Zoriona!
Gugatikan askan jarria
Jesus ona.

Zeruak egin zituana,
Jaungoiko Aitaren Seme dana
askatxoan dago etzana,
Zoriona!
Gugatikan dago etzana
Jesus ona.

Eguzkia eta beroa
bein egin. zituan Jaungoikoa,
otzikaraz dago gaxoa.
Zoriona!
Gugatikan otzez gaxoa
Jesus ona.

Bir jiñagandik jaio dana ;
Igerleak lendikan esana
"Manuel" du bere izena.
Zoriona!
"Manuel" da zure izena,
Jesus ona.

Aurtxo polit, muxu-gorria!
Aurtxo maite maitagarria!
Zuretzat gu geran guztia.
Zoriona!
Zuretzat gu geran guztia,
Jesus ona.

IXO, GAXORI...

(1960)

- | | |
|--|--|
| 1. Ixil, bada, maite,
ixo gaxori!
Negarrez bazaude,
nor kantuz ari? | 3. Mendiko artzaia
Zu ikusi nai;
etorri zaizkigu
kantari alai. |
| Kantuan ari zan
Ama gaxoak
utzi ditu bere
doñu goxoak. | Zu negarrez-eta,
ixildu dira;
ta ixillik doaz
berriz mendira. |
| Nai badezu dagon
kanta-kantari,
maite, ixil zaite,
ixo, gaxori. | Nai badezu dauden
kanta-kantari,
maite, ixil zaite,
ixo-gaxori! |
| 2. Errege zaituzten
aingerutxoak,
negar dute, ikustez
zure malkoak. | 4. Kantari berritxu,
Belen'go txori;
"Lili-lore" kantuz
zegon len Zuri. |
| Len kaituan zeuden
Goiko Jaunari;
negarra diote
orain Aurrari. | Zerua negarrez
ikusi baitu,
lengo bere kantak
ixildu ditu. |
| Berriz nai badezu
dauden kantari,
maite, ixil zaite,
ixo gaxori! | Nai badezu dagon
kanta-kantari,
maite, ixil zaite!
ixo, gaxori! |

BETLEENDIKAN

Dadle

(1949)

Beteendikan!
 Beteendikan!
 Bai argi ederra
 Beteendikan!

Argiaren aundiz
 gaberdia alai;
 Aingerua agertu
 zaie artzaiai.

Erriko sarreran
 ganautegian,
 idia ta astoa
 ta Aur bat erdian.

—Atozte, atozte
 laister Belen'a
 antxen ikustera
 gertatu dana.

Aurraren. txikia
 dutena ikusi!
 Bañan Bera bait di
 danon Nagusi.

"Aintza zeruan ta
 pakea emen"
 Aingeruak kantuz
 daude Belen'n.

BELENGO ARTZAIAK.— I

Oh magnum mysterium...

(1950)

Ikuskarririk, arrigarririk
ikusi nai duena,
etorri bedi, etorri bedi,
etorri, bai, azkar Belena.

—Erriaren, sarreran
zer da ikusten dezutena?

—Estalpetxo bat, estalpe zar bat,
izan, ditekean zarrena.

—Sartu zaitezte estalpe ortan,
sartu zaitezte ortxen barrena,
ta ikusi billoiz
munduan iñoz
jaio dam aurrik ederrena.

—Peru, entzuten al-dek
zeruko kantu gozoa?
pozez jauzika ipintzen bait-dik
ibar, mendi eta basoa.

—*Sartu zaitezte...*

—Artaldeak gau ontan
etzeukak artzai bearrik...
Apain jantzita guazen errira,
guazemak, Anton bai azkarri.

—*Surtu...*

—Antziñako artzaia
ba'dakik, zer esan zian?
gaur bezelako gau "egunduan"
eztala otsorik mendian.

—Sartu...

—Nik ere esango diat
zer amets bart egin detan :
bildots txiki bat eta artz audi bat
biok elkarrekin izketan.

—Sartu...

—Begiraiok, begira;
eldu gaituk estalpera...
bildur nauk, Peru, ez ote-noan
zentzu pizar danak galtzena.

—Sartu...

—Lurrean bai ote-dek,
au bezain, portale zarrik?
eta zeruan Aurtxo au baño
"izarragoa" dan izarrik?

—Sartu...

—Ta Ama izanen al-dik
alboko Andre eder ori?
ama ederra bait-zegokiok
olako mutil ederrari.

—Sartu...

—Anton, ta nor ote-dek,
beste aldeko aitona?
munduan onik iñortxo ba-da,
ori, bai, ori aiton ona!

—Sartu...

BELEN

—Ta ametsetan al-nago,
ala natxiok eroa?
idi-asto bik alajañetan
Aurrari arnasaz beroa!

—*Sartu...*

—Ta arrigarririk ba-da,
auxe bai arrigarria!
Aurtxo polita idi-astoai
par-parrez begira jarria...

—*Sartu...*

—Peru, pozaren pozez,
ikusten al-nauk negarrez?...
Idi-astoak dauden lekuan
ik eta nik egon bear ez!...

—*Sartu...*

Sartu gaitezen estalpe ontan,
sartu gaitezen ortxe barrena,
ta ikusi billoiz
munduan iñoiz
jaio dan Aurrik ederrena.

ORRA MARIDOMINGI

*Orra Mari Domingi : begira orri! (begira orri)
gurekin nai duala Belen'a etorri... (Belem'a etorri).*

—*Gurekin nai badezu Belen'a etorri (Belen'a etorri)
kendu bearko dezu gona zar ori... (gona zar ori).*

Atozl atozl

Zure billa nenbillen ni;

Atoz, atoz!

zure billa nenbillen ni...

Atoz, guazen adora dezagun

Beien'en jaio dan Aur eder ori (Aur eder ori).

Belen'en bidari bi : senar-emazte;
gizon bizar-txuria ta andre eder gazte.

Belen'en bidari bi : semar-eemazte;
gizon bizar-txuria ta andre eder gazte.

—**Jose! Jose!**

Begira Aurraren ederra...

—**Maria! Maria!**

edertasuna ber-bera...

Eta aingeruak aintza-kantari
gure Jainkoari, egan lurrera...

Kanpai-otsa Belen'en : *tin-tan-tan-tin-tan...*
Jesus jaio zaigula bart amabit...

Kanpai-otsa Belem'en : *tin-tan-tan-tin-tan...*
Jesus jaio zaigula bart amabit...

—**Jose! Jose!**

Begira Aurraren ederra!

—**Maria! Maria!**

edertasuna ber-bera...

Eta aingeruak aintza-kantari
gure Jainkoari, egan lurrera...

"GABONETAN"

(«Noche de Dios» bezela)

(Lasarte'n, 1948-XII-25)

Gabonetan (bis)
 Jesus'en Jaiotza;
 mendian bera elur otza ; (bis)
 bañan kristau danak
 bero dauka biotza.

Gabonetan (bis)
 "Gloria Jaunari;
 pakea, berriz, gizonari" (bis)
 Aingeruak egan
 zeru goitik kantari.

Gabonetan (bis)
 gabaren illuna
 egun biurtu zitzaina (bis)
 munduaren gaba,
 zeruaren eguna.

Gabonetan (bis)
 artzaik alkarri :
 "Egin dezaigun opari (bis)
 arkumetxo bana
 Maria'ren Aurrari".

Zeru-lurrak (bis)
 pozez Gabonetan,
 jaio dalako gau onetan (bis)
 zeru-lurren, Jauna
 ordurik onenetan.

AURRIK JATORRENA

(«Noche de Dios» bezela)

II

Or nun degun askatxoan
Aurrik jatorrena
gu salbatzera datorrena. (bis)
Egin dezaiogun, ba,
agurrik beroena.

Aurtxo txiki, Aurtxo maite,
lastotan etzana!
gure Jesus laztan-laztana (bis)
Asto ta idi-askan
zeruko gure Jauna.

Biotzean, dádukagu
Zuretzat ostattu,
gurekin zaitezen goxatu ; (bis)
bestela aska ortan
izotzak ilko zaitu.

Lo nai dezu; bañan lesu,
izotzak uzten ez...
Berotuko zaitut laztanez (bis)
gero maite nazazun
Zuk mait.e oi dezunez.

Zuk maitatuz, guk daukagu
or, zure inguruan
zeru txiki bat munduan; (bis)
gero Zurekin beti
zerua Zeruan.

LUIS IRUARRIZAGA'REN «MINUETO»RENTZAT

(1955)

I

Jo zاغun danbor,
jo zاغun, txirula berria...
Belen'en jaio zaigu lilia.

Jo zاغun txirul,
jo ta jo zاغun danboliňa...
Belen'en jaio da krabeliňa.

*Ttikirrikitton, tirrikittonu;
txiruliru, liru...*

*Ttikirrikitton, tirrikittona;
txiruliru, liru...*

Maria'k besoetan lore;
txuri ta gorri bait dizu kolore.

Jo zاغun danbor,
jo zاغun txirula berria...
Belen'en jaio zaigu lilia.

II

Aingerutxo bat
zeratik zaigula etorri :
"Artzai maiteok,
Belen'a korri!".

"Aurtxo txiki bat
Belen'en zaizute azaldu...
Orren, ederrik
iñork bai al du?".

Tan-parrcepatan, parrapatan-tan...
Txiruliru, liru...
Tan-parrmpatan, parrapatan-tan...
Txiruliru, liru...

—Jo, Exekiel,
soñu arin,
Aurtxoak negarrik
ez dezan, ez, egin.

Aingerutxo bat
zerutik zaigula etorri:
"Artzai maiteok,
Belen'a korri!".

(1946)

BELEN'GO MENDIAN

(Brams'en *Berceusse* bezela)

Belen'go mendian
aingeru eder batek
Belen'go artzaiai
egin diela oyu :
"Jaio da, jaio da
gabaren erdian,
jaio da Belen'en
guztioz poza dan Jesus".

Belen'go artzaiaik
estalpera dijoaz;
aingeru-talde bat
agertu da kantari:
"Gloria zeruan
goiko Jaun onari;
pakea lurrean
biotz oneko danari".

ADESTE, FIDELES

«ATOZTE, KRISTAUAK»

(Euskeraz)

(1956)

Atozte, Kristauak, / pozez ta kantari!
Etorri, etorri, Belen'era!
Jaio da aingeruen Errege dana ..
Guazen guztiok, guazen!
guazen guztiok, guazen!
guazen, belauniko Jesus agurtzera.

Larrean ardiak / bakarrik utzi-ta
or datozi artzaiaik estalpera.
Txalo ta dantza, guazen ba gu ere...
Guazen guztiok, guazen...

Aragiz jantzirik / ikusiko degu
betiko Aitaren Argi ederra.
Zapi txuritan Jaungoiko Aurtxua...
Guazen guztiok, guazen. .

Gugatik beartsu / lastotan etzana
ikusiz, nola errukituko ez gera?
Musu ta laztan, berotu dezagun...
Guazen guztiok, guazen!
guazen guztiok, guazen!
guazen, belauniko Jesus agurtzera.

JESUS TA JOSE ETA MARIA

(A. Donostia'ren «Aur txiki eder» bezela)

Belen'go Erri polita!
 Belen'go Erri txukuna!
 eta an, ikusten deguna
 bai gauzaren aundia!...

JESUS TA JOSE
ETA MARIA.

Gabon-gabak gaberdia du;
 bañan illunak argituz
 begira or estalpean
 eguzki bat berria :

JESUS TA JOSE
ETA MARIA.

Belen'ek bere sarreran
 —beste erri askoren eran-
 ganadu-estalpe bat du,
 ta ganadu-erdian

JESUS TA JOSE
ETA MARIA.

Aingeruen dei ta argira
 artzaia etorri dira,
 ta arriturik dute ikusi
 ango arrigarria :

JESUS TA JOSE
ETA MARIA.

Belen'go Erri polita!
 Belen'go Erri txukuna!
 eta an ikusten deguna
 bai gauzaren aundia!...

JESUS TA JOSE
ETA MARIA.

AGERTU DA

(«Aparuit, quen genuit Maria» taezela)

(1926-XII)

Mizpira, sagar eta intxaur.
 Jauna bera egin zaigu aur;
 Eguerri-jaia da gaur.

*Agertu da Jaungoikoa,
 Maria"gandik sortua.*

Elurra mendian-bera;
 bero-billa gatoz etxera;
 Belen'go artzaiaak gera.
Agertu da...

Zeru goianj illargia;
 Belen'en izar pozkarria,
 estalpe-gañean jarria.

Agertu da...

Arroxa ta krabeliña;
 ikusi degu Erregiña;
 birjiñatxo bat aur-egiña.

Agertu da...

Mizpira, sagar eta intxaur;
 Jauna bera egin zaigu aur;
 Eguerri-jaia da gaur.
*Agertu da Jaungoikoa,
 Maria' gandik sortua.*

Ator, Txeru, bai etorri!
 Begira zaiok Aurto (i)orri
 bekoki txuri, muxu-gorri.
Agertu da...

Jose, gizon onta prestu :
 arotza omen zerade zu :
 Aur oni seaska (e)iozu.
Agertu da...

Mendi goian elur otza ;
 errekaldean izotza;
 Aur onek utan, biotza.
Agertu da...

Elurra mendian bera;
 bero-billa gatoz etxera;
 Belen'go artzaiaak gera.
Agertu da...

BELEN'GO ARTZAIAK.— II

«ARTZAI BURU - TXURI BI»

(Irukote)

1. *Artzai buru-txuri bi,* *Sarturíkan burrena*
Anton eta Peru, *Manueltxo'ganu*
Belen'go estalpera *emian diote biok*
etorri zaizkigu. *arkumetxo bana.*
- Ortxen dago gure Jesus;*
ortxendago, bail
- Anton'ek dio*
kupiturik :
"Ekarrikoizut
scaska nik".
- Bañan Aurtxoak*
parrez-parrez :
"Otzak olaxe
naíago det".
2. Anton eta Peru'ren *Lotsaz bezela dator*
ondotik Joakin; *besteen atzean,*
arkumerik ez du-ta *ta kuxkur gelditzen da*
kaiku-esneakin... *atean sartzean.*
- Ortxen dago gure Jesus;*
ortxen dago, bai!
- "Gutxi da baña,*
nere Jesus,
Joakin'ek ere
maite zaitu".
- Orduan, Aurrak*
begiakin:
"Nik ere maite
det Joakin".

ELURRA MARA - MARA

Elurra mara-mara
mendiaii beera...
Ezkaletxo bat dator
oraixi estalpena.

Bideak galdu eta
argia ikustean,
sartu da artzai-txabola
zalako ustean.

*Ortxen dago gure Jesus ;
ortxen dago, bai!
—Limosnatxo bat
mesedean,
Goiko Aitaren
izenean!".
Aurrak orduan :
—Ama! Ama!
eskaleari
eman dana".*

01 GAU DOATSUA!

Oi! gau doatsuna,
Jainkoak autua!
Oi gau argiduna!
Mesias gurea,
aurtxo Erregea
agertu zaiguna!

Orren aur polita!
Bei askan jarrita!
Oi! zeñentxukuna!
Mesias gurea...

Aitaren Argia,
bere Itz bizia
eta Oiartzuna!
Mesim gurea...

Ba gatoz Zugana,
oi! Jesus laztana!
oi! Jesuskutuna!
Mesias gurea...

Aitaren antzera,
Jaungoiko ber-bera,
gizonen laguna.
Mesias gurea...

Etsaiaren lotsa,
Aingeruen poza,
gure Osasuna.
Mesias gurea,
aurtxo Erregeai
agertu zaiguna!

ERRESIÑULA KANTARI

"BARAZAR" JAUNARI

CVerdaguer'enaren antzera)

(1929-XII)

Belen'en, bai, Belen'en
abere-estalpe txikia.
Ingoruko sasitik
kantuz dago txoria :
"Lili-lore, lili-lore;
lili-lore txuria".

—Zu kantuz, erresiñula,
Aurra negarrez dagola?
—Aurraren penak arintzeko
arinauzuni ola.
—Jakingo dezu zuk orduan
Aurtxoak negarrez zer duan?
—Negarrez zer duan Aurtxoak?
zer izango du gaxoak?
Gizonen billa etorri Bera, eta
gizonak iges, gaiztoak!

Iru Erregeak gorde dira;
artzaiaik ere jun ziran...
Artzaiaik jun-da, ardiak ea
nola geldituko diran? :
Zuek, bederik, txoritxo maiteok
ez joan iñora, ez j'ohan;
gizonik iñor ez dago, eta
zaudete estalpe-ondoan.

BELEN

Belen'en, bai, Belen'en
abere-estalpe zarrean,
Jesus Aurra negarrez dago
eta ala dagon artean,
alkarren leian, kanta-kantari,
tellatu-gañean txoriak :
"Lilian-lore, Maria'n lore,
lilitxo-lore txuria;
lilian-lore, Maria'n lore,
loretxo txuri-gorria'.

IESU AURRA

AURTXOA TXOXATZEN

(Catalunia'ko «El Noi de la Mare» bezela)

Aurtxoa troxatzen	Troxatu du, eta
Ama Maria...	seaskaratzen...
Zer dion kantatzen	Orduko eleta
entzun zagun:	entzun zagun:
"Ez egin negarrik,	"Egizu lotxo orain,
nere maitea;	nere maitea;
ez egin negarrik,	egizu lotxo orain,
nere kuttun".	nere kuttun".

LO EGIZU, MAITE

Lo egizu, maite;
lotan geldi zaite...
Lo-egiten badezu,
Ama poztutzen dezu.

Zaudet lotan, maite;
naiz, esnatu zaite...
Esnarik bazaude zu,
Ama txoratzen dezu.

Belen'go arrosa!
gaur, Amaren poza...
bigar nere samiña...
Ai! beti aur baziña!

LQ LO, NERE POTXOLO

Nere Iesu txikiak lo nai du;
 bañan ezin lorik, otz bait du...
 Aingeruak kanta, artzaitxoak dantza,
 askatxoan laistef, bai, egingo du.

Nere maite txikia, lo ta lo
 egin bear dezu gozoro...
 Angeruak kanta, artzaitxoak dantza...
 Askatxoan lo lo, nere potxolo.

BELEN'EN, BAI, BELEN'EN

«Il est ne le divin Enfaut»

(URTEAGA)

Belen'en, bai, Belen'en
 argi bat sortu da, zer argia!
 Belen'en, oh! bai, Belen'en
 "jaio da Jesus Nazaren".

Oi! argiaren ederra!
 Zeruetako Eguzkia!
 Argitu dezu ederki
 gabean mundu guzia.

Belen'en, oh! bai, Belen'en...

DANIEL'EK ESANA

Bete da, Daniel'ék
esan zuna :
"Zazpi ariáar aste, ta
osasuna".
Jetse'ren landara asi
da loratzen.
Jesus'en etorrera
gogoratzen.

Antxumea jostatzen
artzarekin;
otsoa ta bildotxa
alkarrekin.
Goia betu, ta bea
da goratzen...
Jesus'en etorrera
gogoratzen.

Gaberdia dan arren,
eguzkia;
Birjin dan arren, Ama
daMaria...
Izadi guztia asi
da zoratzen...
Jesus'en Etorrera
gogoratzen.

01! GAU DOATSUA!. II

Ai! gau doatsua,
 Jainkoak autua!
 Oi! gau argiduna! (bis)
 Mesias gurea
 Aurtxo Erregea
 agertu zaiguna!

Orren Aur polita,
 seaskan jarrita!
 Oi! zeñen txukuna! (bis)
 Mesias gurea
 Aurtxo Erregea
 agertu zaiguna!

Aitaren antzera
 Jaungoiko ber-bera
 gizonen laguna! (bis)
 Mesias gurea,
 Aurtxo Erregea
 agertu zaiguna.

Aitaren Argia,
 Aren Itz bizia
 eta Oiartzuna! (bis)
 Mesias gurea
 Aurtxo Erregea
 agertu zaiguna.

Etsaiaren lotsa,
 Aingeruen poza
 gu.re Osasuna! (bis)
 Mesias gúrea,
 Aurtxo Erregea
 agertu zainguna.

Ba gatoz zugana,
 oi! Jesuslaztana,
 Oi! Jesus kuttuna! (bis)
 Mesias gurea,
 Aurtxo Erregea
 agertu zaiguna!

AU GABAREN ALAIA!

(1946)

Au gabaren alaia!
au gabaren poza!
Ondo poztutzen bait du
triste dan biotza.

Nundik-nai argia, ta
nun-nai kantu-otsa :
"Jun zaigu gau illuna,
jun, bai, negu otza".

"Eguzki bat sortu da
Belen'go errian,
ain era ikusgarri,
ain ,era berrian...".

Artzai onak jun dira
izu laborrian,
ta... aur bat arkitu dute
an... larru-gorrian.

AINGERUAK ZERUTIKAN

(«Oh, Taunen Baun» bezela)

(1961)

Aingeruak
 zerutikan
 kantari Belen'era:
 "Goietañ aintza Jaunari;
 bean pake gizonari!
 Estalpean
 jaio dala
 Zeruko Jauna bera".

"Ara nola daukazuten Jaungoiko Bera dana: troxetan bil-bil egiña, lastotan apal etziña; baztarrean belauniko bere Ama laztana".	Artzaitxoak menditikan laisterka estalpera: «Mesias jaio zaigula; adora bear degula; eta poztu gure soñuz aren Ama ederra".
--	--

Erregeak
 zaldietan,
 Aurraldi eskeintzera
 eskeiñi baliotsuak
 urre, mirra, intzentsuak
 Errege ta
 gizon eta
 Jaungoiko dan bezela.

'BERRI POZKARRI BAT'

Berri pozkarri bat dakargu Zerutik;
 Erriak, zutik, entzun, arren!
 Adan'en pekatuz gizaki guztiok
 egun batez galdu ziñaten ;
 bañan Aurtxo txiki-txiki polit batek
 aska zaituzte Belen'en.

Berri pozkarri bat dakargu Zerutik :
 Erriak, zutik, entzun, arren :
 Jesus Jaio da gaur Belen'en!

BELEN'EN SORTU ZAIGU JAINKOA

(GLOSA)

*Belen'en sortu zaigu Jainkoa
 arratseko gaberdian;
 otzak dardaraz dago gaxoa
 lasto pixkareni gañean...
 Bero ahalez bero dezagun
 aparemanez musuan.*

Mendi aundi eta lur zabalak,
 guztiak bere eskuan;
 ta ganbelatxo batean dago
 otzak dar-dara estuan...
*Bero ahalez bero deagun,
 apa emanez musuan.*

Dana bere izenari kantari
 iegorrean ta itxasoan,
 ta Bera, ixillik, apal ta umilki,
 otzak dar-dara estuan...
Bero ahalez bero...

Bera gure Artzai ta Jabea;
 gu bildotx bere ondoan;
 gugatik Bilotx egiñik dago,
 otzak dar-dara estuan...
Bero ahalez bero...

Ixrael zegon ikaraz, Jauna,
 Sinai-mendiko inguruan.
 Belen'en Zerori zaude
 otzak dar-dara estuan...
*Bero-ahalez bero nai zaitut
 apa emanez musuan.*

(ERAXKUN)

Belen'en jaio zaigu Jainkoa
 neguko arrats beltzean;
 otzak dardaraz dago gaxoa
 lasto pixkaren gañean...
 Bero ahalez bero dezagun
 pa bat emanez musuan.

Belen'en jaio da Eguzkia
 gabaren erdi-erdian;
 argi ederra zabaltzen bait du
 Belen'dik mundu guztian...
 Egun batez itzaliko zaigu
 tristerik eguerdian.

Larros-ondo bat sortu zaigula
 Maria'ren baratzean;
 lore gorri bat eman digula
 neguaren biotzean...
 Gorriagorik emango bait du
 egun batez gurutzean.

01! BETHLEHEN!

(GLOSA)

«Impleti sunt dies» (Luc. ii)

Oi! Betlehem!
Etorri da zure garaia,
Oi! Betlehem! !

Claritas Dei...
Ongi bait du distiratzen
zugandik eldu den argiak,
bete ditu bazter guztiak,
Oi! Betlehem!
Oi! Betlehem! !

Et timuerunt...
Au gauzaren izugarria,
gaur zuregan ikusten deguna,
egun biurtua gau illuna,
Oi! Betlehem!
Oi! Betlehem! !

Gaudium magmim...
Berri on bat adierazten
bordaz-borda dabil aingerua :
"Gaur jaio da Aurtxo Jaungoikoa",
Oi! Betlehem!
Oi! Betlehem! !

Hoc vobis signum,..
Orra nola dakuskezuten:
zapi zuritan Amak bildua
ta bei-askan etzaunik gaxua
Oi! Betlehem!
Oi! Betlehem! !

Multitudo militiae caelstis...
 "Goian aintza, pakea emen!"
 kanta-kantari ain geru taldeak
 poztu ditu artzai eta artaldeak,
 Oi! Betlehem!
 Oi! Betlehem! !

Transeamus...
 Guazen Betlen'a, danok guazen
 Jesus, Jose ta Maria'gana
 eskeintzera arkumetxo bana,
 Oi! Betlehem!
 Oi! Betlehem! !

Ressolutio.
 Gu ere, bai, juan gaitezen,
 artzaitxo bixkor oiekin batera,
 geren biotzak pozez eskeintzera
 Oi! Betlehem!
 Oi! Betlehem! !

Et invenerunt...
 Lore-xorta bat bezelaxen,
 txoretan dana bil-bil egiña,
 ai! nolako Aurtxo atsegíña!
 Oi! Betlehem!
 Oi! Betlehem! !
 Oi! Betlehen!
 etorri da zure garaia,
 Oi! Betlehen! !

BELEN'GO ALABATXOAK

(«El serafain vermeill»)

Belen'go alabatxoak
Belen'go Aurtxoari
gaur pozez gatozkio
kantuz eta dantzari.
Zor auxe diogu
zerutar izanik
munduan belendar
azaldu zaniari;
zor paga-eziña
deguna emanik,
zeru eta lurren
jabea danari.

Paga zaiogun, ba,
gure Anaiari,
era berri batean
bigun dantzaturik,
digun biguntasuna
Berari oparik.

Dantza, dantza dezaiogun
Aur maiteari,
poz audi bat emanaz
Aurraren Amari...

Belen'go alabatxoak
Belen'go Aurtxoari
gaur pozez gatozkio
kantuz ta dantzari.

OLENTZERO BEGI-GORRI

Olentzero begi-gorri
fun-fun-fun (bi aldiz)
iñon ikusi al duk
esan zaiguk
esan zaiguk,
seaskatxuan jarrita
Maria'ren Aur polita
funrfun-fun.

Polita krabelin-xorta
fun-fun-fun (bi aldiz)
Oraindik politago
antxen dago
antxen dago,
ez seaska biguñean,
baizik bei-aska batean
funi-fun-fun.

Mutillak, guziyok guazen
fun-fun-fun (bi aldiz)
Ik erakutsi zaiguk,
nai baduk
nai baduk,
Ai! Olentzero guria,
non den Belen'go bidia
funrfun-fun.

BELENGO ESTALPEAN

(Le demoni escuat)

(Popular catalán)

Belen'go estalpean
 jaio zaigu Jesus,
 billuts, billuts...
 Maria'ren Semea
 ikus zagun ikus,
 billuts, billuts,
 ikus zagun ikus.

Larru gorrian Aurra,
 gure Aurtxo ori,
 gorri-gorri...
 Josepe "gizon onak"
 nai luke sokorri,
 gorri, gorri,
 nai luke sokorri.

Aingeruak orduan
 zerutik kantari,
 krikri, krikri,
 "Pakea munduan ta
 gloria Jaunari",
 krikri, krikri.

—Artzaitxoak, atozte,
 artzaia etorri,
 korri, korri;
 ikus zazue Jauna
 aurtxo errukarri,
 korri, korri,
 aurtxo errukarri.

Artzai onen artean
 deabru txiki bat,
 patrip, patrap...
 Artzaitxoak ikusi,
 eta jo-ta zapart,
 patrip, patrap,
 eta jo-ta zapart.

JESUS MAASTIAN

(Verdaguer en antzera)

(1957)

Jesus umetxoa maastira doa... — Zer ote dakar?... — Zertsu zekarkean? mats-mordo gorri dakar magalean. Jesus umetxoa sorora dijoa... Segan ari diran segari-artean zertan zebilkean? — Eskutada Lat galburu- eskean.	Nazaret-ondoan Maria zegoan, eskuan lana, ta Jesus gogoan... — Zer dakartzu, maite, magal ezkutuan? — Deus ederragorik ez bait da munduan, deuz bikañagorik ez bait da zeruan : eskutada-gari eta mats-mordoa : Meza Santurako OGIA TA ARDOA,
--	--

Nork esan, orduan
 Amaren. biotzak
 zer sentitu zuan?

AMABIAK "DIN-DAN"

(Les dotze van tocant)

Amabiak *din-daii...*
 Mariagandikan
 Jesus jaio zaigu.

Izarrak zeruan,
 elurra munduan...
 Au bai dala negu!

AI dun bezain azkar
 lasto ta txotx ta abar
 Jose'k sua piztu.

—Zabiltz azkar, Jose;
 Ama eta Seme
 otzak ilko ditu.

Jose'k sua piztu
 ta ollarrak kantuz,
 "Jaio dala Jesus!".

17-V-1951. Lasarte

NEGUA DEGULA NEGU
 (Catalanen «El neu inquiet»en antzeko)

Negua degula negu;
 negu otz izugarrian
 Aurtxo bat ikusi degu
 kil-kil-kil, larru-gorrian.

Belen'go Aur polita
 bei-askan ikusita,
 kristauok, ez al dezute
 erruki biotzean?

Kanpuan nork duan uzten
 orlako aurtxo ederra...
 Zuek nai ez badezute,
 nik jasoko det etxera.

TXITXI TA PAPA

JOLASEAN

(Katala'en Artzen)

Txitxi ta papa goxo
 mutil txiki batentzat
 Belen'en gaur jaio
 danarentzat.

Aitatzok eman dit
 neretzat;
 bañan nik gorde det
 Zuretzat.

Amatxok eman dit
 neretzat;
 bañan nik gorde det
 Zuretzat.

Txitxi ta papa goxo
 Mutil txiki batentzat,
 Belen'en gaur jaio
 danarentzat.

Ta nola ez gorde
 Zuretzat,
 gaur jaio bazera
 guretzat?

REFICE'REN "NATALE" RENTZAT

Belen'go artzaia :
 Entzun, zerutik datorren itza :
 Etzaiteztel a ikara;
 Aingeruak gara
 berri on batekin :
 "Jaio dala ume baten, itxuran
 Jainkoai-en "Diztitzta".

Ta zertan dezuten ezagutuko
 nai dezute jakin?
 Aurtxo txiki bat,
 oialetan
 bildurik
 eta askan etzunik;
 ez bait zuan
 gaxoak jaiotzeko
 arkitu etxerik».

Ixildu da Aingerua...
 kanpai-soñua
 eta artzai-doñua
 Belen-inguruau...
 Aingeruak berriro
 eta poz-giro:
 "Hosana! Hosana!".
 Eta lurrik :
 "Oh! Jauna! Oh! Jauna!".

IJITOAK

(Catalan baten antzeko)

Bat, bi, iru, lau...
Abenduaren ogeitalau gaur;
Dabid'en Erri Belen politan
Jauna jaio zaigu aur.

Iru, bi, bat...
Nilo ibaian igelak *brak, brak...*
Jaunaren Seme bizi-bizia
aurtxo jaio zaigu bart.

Ejito'tik dantzan gatoz
Aur txiki orren billa;
Erodes'ek il nai badu,
Ejito'ra dedilla.

An izango du ostattu,
an izango du bero...
Kristau danok ostattu bat
zorko digute gero.

O EGUEÍ-GAUA!

O Eguefi-gaua!
 Pozkariozko gaua!
 Oso poztutzen dezu
 biotzean kristaua!

Mundu guzia dezu
 zorionez betetz.en,
 esaten bait-diozu
 Mesias dala sortzen,
 Mesias sortzen eta
 dana pakean jartzen.

O Eguefi-gaua!...

Lege Záfeko Aitak,
 Abran danen nagusi,
 Gau au ikusi nai ta
 begiz ezin ikusi;
 gogoz ikusi utsez
 poztu ziran ta jauzi.

O Eguefi-gaua!...

Bekar z,eruak intza,
 luŕak Salbatzalea,
 atsik gabe oiuka
 zegon Igartzalea :
 betor Sion-mendira
 Bildotx Eŕugabea!

O Eguefi-gaua!...

Gure Ama Eliza,
 zure ezurki maitena:
 emaiozu berari
 luŕ zabal ori dena,
 berak zabaldu dezan
 zabaldu Zure Izena.

O Eguefi-gaua!..

Jetse'ren zuztafetik
 txorten xut-xuta aziak
 gaur erakusten digu
 lore txuri-goŕia :
 Maria'k eskuetan
 Jesus jaio-befia.

O Eguefi-gaua!...

Gaur mendi-bixkar danak,
 arikoak iduri,
 pozez saltoka dabiltz,
 saltoka ta dantzari:
 ibai-efekatxoak
 Jesus, Zuri kantari.

O Eguefi-gaua!...

Oi! ofenugariak
 lur-gaňeko jendetza!
 Ofen neufi-gabeak
 luŕ zabalaren ertzak!
 Aitak eman dizkitzu
 guztiak gaur Zuretzat.

O Eguefi-gaua!...

ARTZAIAK-ETA

ANDOAIN'GO ERI MAITEA

(Música de «Gabon Jainkoak» de XXII canciones del folklore vasco armonizados por Jesús Guiridi para piano)

Andoain'go efi maitea, bai efi polita: Ibai biren urtxuluan ederki jaftita.	bis	Ark argitu du gau iluna egun bat bezela, aingeruak esan digu poztu gaitezela.	bis
Ori-ibai oparotsua du alde batetikan, Leizaran azkafa, beñiz, beste aldetikan.	bis	Andoain'go eliz edefak Belen bat iduri, Jesus aufa, jaio-befi an agertu guri.	bis
Befi on bat dakarkiogu Belen'go artzaiaik, gogoz entzun nai balute Andoain'go anaiak.	bis	Belen'go artzaiaik gerala esan dizutegu, amets zoragafiren bat nunbait egin degu.	bis
Auf edef bat jaio zaigula Belen'go atean; antxen ikusita gatoz, estalpe batean.	bis	Laborde'ren Ola beñiko ikasleak gera, etofiak gera efiari poz an ematera.	bis
Mutiko politagorikan ez du Donostia'k; Donostia'k ezik ezta lurbira guztiak.	bis	Efiari poz nundia eta aintza Jainkoari, Jainkoari aintzarekin pake gizanari.	bis
Aintza ta pakea dedila zeruan ta emen, ala gerta dadila, bai, gora Jesus. Amen.			

OGEITA LAU ABENDUAN

Ogeita lau Abenduan,
Aur bat ikusi genduan;
izar ederragorik
ez bait da zeruan.

Jo zagun *txiru-liru*.
Belen'go artzaiaik, Belen'go inguruan.

Jakin dezaten munduan,
jakin dezaten zeruan,
estalpe pobre artan
zer topa genduan.

Jo zagun *txiru-liru*
Belen'go artzaiaik, Belen'go inguruan.

Negua izan, negua...
Otzak dardaraz zegoan
Jesus jaio-berria
ai! negar estuan...

Jo zagun *txiru-liru*
Belen'go artzaiaik, Belen'go inguruan.

LA CUNA

(Busca Sagastizabal)

Artzaitxo bixkorak,
bizkor Belen'a, (bis)
an agurtutzera
Aurrik onena.

Bañan nik emango dizut
nere magal epela,
ementxen bero zaitezen,
bai, seaskan bezela.

Seaska gabe
Aurtxo polita (bis)
askan jarrita
or zaude Zu.

Aurtxo txikiak
lo egin nai, ta
Amak eta Aitak
lo ar ezin.
Seaskarik ez
portalean, ta
lasto pixkatan
zaituzte etzin.

Beroa bera
egiña zera! (bis)
Bañan Belen'an
otza dezu.

Bañan nik emango dizut
nere magal epela,
ementxen lo ar dezazun,
bai, seaskan bezela.

Lo...

NEGUAN ARDIAK LARRERIK EZ

(Al. Guilmant)

(1947)

Neguan ardiak larrerik ez dute,
neguan ez, ez, ardi gaxoak;
neguan belarrak lurpean daude,
neguan bai, bai, belar goxoak.

Bañan, alare, pozik daude aurten,
 gure ardi gaxoak pozik,
 ardiak bai, bai, gaxoak pozik.
 Negu otza degun arren, aurten
 gaxoak ez daukate otzik,
 gaxoak ez, ez daukate otzik,
 neguan bait da, egundoko lenen
 artzai txiki bat jaioko Belen'en;
 neguan, bai, egundoko lenen
 Artzaitxo bat jaioko Belen'n.

GABON-GABEZ

(«La campanita» bezela)

Gabon-gabez	Luze Sanjuan-
apari bero;	etan eguna;
ipui polit bat	Gabon-gabean
amonak gero :	luze illuna...
"Tximinitikan	Bañan, alare,
jatxiko dala	bai dala poza
itaiarekin	Gabon-gabak
Olentzero".	guri diguna!

Kanpai ariña
 soñujolari,
 kanpai-torretik
 ari eta ari,
 tilin-ti-talan
 jo eta joka
 J aungoikoaren
 Jaiotzari.

ORI-MENDIKO ARTZAIAK

(«Judas Makabeo'ren korurako»)

Soñu arin bat
arin juaz,
artzai bixkorak
bixkor dijuaz.

"Arin (bai) arin
oñak dantzatuaz,
Belen'dik gatoz,
Belen'era guaz".

"Ori-mendiko
artzaiaik gaituzu;
galdez gabiltza
nun dagoan Jesus".

—Zeruko Jaungoikoa
ber-bera izanik,
lasto otzetan dago,
gaxoa, etzanik.

«DANBOLIN» JOLARI

(«La Canción del tamborilero»)

(1980)

Belen'go artzaia : jo danbolin!
Aurtxoak ez dezan negar-egin!
Negrrez asten bada Aur gaxoa,
negrrez asten bada, jo danbolin,
 jo danbolin,
 jo danbolin.
Aurrak ez dezan, ez, negar-egin, jo danbolin!

Askan dago Aurra, ai! negarrez;
erregali artzaiaik, poz bearrez...
Aurrarentzat goxorik nik izan ez!
Bañan, len negar eta orain farrez,
 orain farrez,
 orain farrez;
Dambolin zarrari Aurra farrez,
 Aurra farrez.

KUKU MIKU

(BALLET)

•—Kuku miku... Amona, entzun, entzun
 txori batek
 or nola kantatzen dun.
 —Kuku miku... Illobatxo laztana :
 kukua da
 or kantuz ari flana.
 Kuku, kuku... beti kanta bakarrik,
 ez bait dauka,
 ume azi bearrik.
 — Kuku miku... nola diteken ori?
 —Amonatxok
 laister esango zuri.

Nazaret'en Aurtxo bat
 ba zan Amarekin.
 Txori txikiak zitun
 biziro atsegin;
 txurlio ta txantxan,
 poxpolin, kardellin...
 Bañan sarri Aurra utzita
 txoriak iges-egin...
 Kuku miku bakarrik
 gelditzen Aurrarekin,
 kume ta arrautzak utzirik
 txantxangorriarekin.
 Geroztik kukuak ez du
 kabi zaitu bearrik;
 Nazaret'eko aurraldi
 kantuz ari bakarrik.

BELEN'GO ARTZAIAK

(Arregi'tar Joxeba'rentzat)

Makilla eskuan,
bildotxa lepoan,
artzai-talde polit bat
saltoka zjoan.
Zartxoenak zer zion
entzungo zenduan:

"Aingeru bat izan dek,
aingeru bat, arren;
nik neuk ikusi diat
zerutik etortzen,
baita entzun zioat
zer zigun esaten:

"Berri bat dakartzutet,
oso berri ona:
biar Eguberri, ta
gaur dala Gabona,
munduari Jainkoa
etorri zaiona".

"Ontan ageriko da
zuzen diodana;
ikusiko dezute
Zeru-lurren Jauna
—gaur gaberdian aurtxo
txiki jaio dana—
estalpe zar batean
lastotan etzana".

Eldu ziran artzaik
estalpe zarrera;
eta ikustekoa zan
an aien sarrera:
batek bat eskiñi, ta
besteak besteaa;
onek arkume eder bat,
ark kaiku-esnea.

Guztioi esker ona
agertu bearrez,
Aurtxoak begiratzen
zien farrez-farrez;
Maria ezin egon
pozaren indarrez;
San Jose bazterretik
farrez ta negarrez...
Gaba otza zan, eta
zerua izarrez...

Biurtzean, artzaik
ikusi nituan,
etzeramatelarik
bildotsik lepoan;
bañan zeramatela
—beti oitu bezela—
makilla eskuan...
ta, naiz zan negu otza,
Gabonetako poza
an, biotz-barruan.

AINGERUTXO BAT...

(Ernani'rako)

Aingerutxo bat zerutik dator
Belen'go inguruko artzaiengana:
"Itz bitan esan bear dizutet
Belen'go Estalpean gertatu dana".

*Guazen hixkor-bixkor,
guazen bixi-bixi,
guazen bixkor-bixkor Belen'd;
guazen al dan lenena,
guazen al dan lenena.*

Egun aundia dezutela gaur
Belen'go inguruko artzai maiteak;
pozaren pozaz egun onetan
zoratuko dira zar eta gazteak.

Guazen bixkor...

Munduko Salbatzalle ber-bera
Belen'go Estalpean jaio zaizute :
oial txuritan, askan etzanik,
aur txiki, jaio-berri, antxe dezute.

Guazen bixkor...

Aingeru-talde izugarria,
Belen'go inguruau kanta-kantari :
"Gizonari pakea lurrean,
eta zeruan aintza Goiko Jaunari".

*Guazen bixkor-bixkor,
guazen bixi-bixi,
guazen bixkor-bixkor Belen'a;
guazen al dan lenena,
guazen al dan lenena.*

HERODES'ENGANA

Herodes'engana datoz
iru Errege galdezka:
"Nun da Juduen Errege?
izarra agertu da-eta...".

Herodes'en erantzuna,
biurri eta maltzurra:
"Galde ezazute Belen'en;
ta esan neri len-bait-len".

Belen-inguruan sarri
ba zan lantu kupigarri;
xorrotean aur-odola,
eta amak ezin kontsula.

Martirien len-loreak,
Jesustxo'ren aitorleak;
errugabez ta martiriz
txuri-gorri koloreak. • .

ELURRA TELLATUAN

Mutilla :

Elurra tellatuan;
zakualepuan,
ibilli bearko degu
aurtengo neguan.

Rau!!
rau! rau!
rekataplau!
Au dek adoria!
troxuetara ziak
euskaldun-loria.

II

Ama :

Amaren seme kutuna,
gurasuen osasuna:
gaur nere ordez nork egingo dik
oe biguna?

Nere begiyen argiya,
 ez nik orlaxe aziya :
 gaur nere ordez nork opako dik
 oe garbiya?

Seme Jainkuak emana,
 troxuetara juana:
 amaren ordez nork dik emango
 muxu laztana?

III

Aita :

Jainkuak zetorrek lurrera;
 ator, seme, ator gurera,
 Gabon-arratsak aurki ez azan
 Gaztela'ko lurraldian;
 ama negarrez urtuko zaiguk
 bestela gaur sukaldian...

Mugi adi, Kaxpar,
 begira zak axkar
 danbolin zarra nun degun,
 osaba etorri arte,
 osaba etorri arte,
zirrin-zarran, pun!
 gaztain erreak prestatu ditzagun!

GABON-ESZENA

(Para la Leyenda de Reyes)

Después del canto de *Ator, mutil*, sobre la melodía de *Iruleñ nuzu*, cantan los niños.

Iru Errege datozi
bidez gaur gabean,
tringun ta tringun blaire (bis)
ganbelu-gañean,
tringun ta tringun blaire
ganbelu-gañean.

Tellaturik-tellatu
illargi-argitan,
jostalluak jarriaz (bis)
zapata txikitana...

Gaiztoai ez jarriko,
txintxoai, berriz, bai:
ama, esan zaidazu, (bis)
txintxoia izan al-naiz?...

Sobre la melodía de *Goiz-otoia*, canta el coro :

Aurtzaroko zoriona
aur danarentzat dagona!
Aurtxoentzat bai dala
Gabon, bai, gau ona!
Gau onek biurtuko du
aingeru
zerutar
munduko gizona.

Prosiguen los niños sobre la misma melodía de *Iruten ari nuzu*:

La niña:

Nik eskatu diotet
muñeka (i) andera...

El niño :

El niño:

Nik, berriz, egitazko (bis)
pelota-txistera...

Los dos

Jarriko dizkigute
txintxoak bait-gera.

Anai txikiak nola
idazten eztakin,
arren ordezko karta (bis)
guk diegu egin:
txaketatxo eskatuz
ponpon gorriakin.

Orain pa anaiari ta
lo alik azkarren,
Erregeak esnarik (bis)
topa ez gaitzaten;
esna danak saririk
ez bait-du izaten.

Agur, aiton-ámonak!
Agur, ama ta aita!
Orain muñ eskuetan (bis)
oitura ala bait-da...
Beltxor, Kaxpar, Baldaxarrek
gaitzatela maita.

Canta el abuelo sobre una variante de *Nere maitena aranbeltz*:

Umetxoak ametsetan
kezkarik ez biotzetan...
Gizonak, gau ta egun,
alkar nundik jango degun...
Gabon-jaietan
ume biurtzen,
gizonok, alegin dezagun!

Canta la abuelita sobre la melodía neta de la misma canción:

Amets bat degu aurtzaro...
iraun baleza luzaro...
Ni ere len aur nintzan...
gero, zenbat min bizitzan!
Aurtxo maiteok,
Belengo Aurak
dezaizutela erruki izan.

Responde el coro sobre lá misma melodía de antes, *Goiz-otoia*:

Ondo diozu, Amona,
ondo diozu, Aitona.
Aurak dute, ta ez guk
munduan zoriona.
Borondate ona bait-da
pakeak
bear dun
zain sendo, sakona.

Dezagun borondate on,
dezagun pake ta zorion,
danontzat izan dedin
beti-beti Gabon.
Danontzat izan dedin, bai,
beti E-
rrege ta
beti-beti Gabon.

Retirados todos, canta, la madre sola, sobre la melodía de *Aurtxo txikia negarrez dago*:

Aurtxo txikiak ez du negarrik,
Erregue-gaba dalako,
Erregue-gaba dalako eta
lo egan nai dualako.

Lotan dagola Erregue Jaunak
ixil-ixillik leyora,
ta ixil-ixillik, esnatu gabe,
goxoak zapatatxora.

Zapatatxoak txikiak, eta
goxoak gañez lurrera...
Aingerutxo bat zeruetatik
etorri zaio urrera.

Se duerme la madre sobre la cuna, y llega el Angel y canta sobre la melodía de *Nik baditut mortuetan*:

"Zeruetan gloria, ta
pake ona, berriz, emen",
ia bi milla urte gaur dira
kanta nuela Belenen...

Orduan esana,
etxeko laztanak,
opa dizutet gaur. Amen.

Y entona el coro el *Erregeak datozi* ••, y pasan los Reyes...

**EUSKALERRIKO-TA
ANDRAMARIAREN GORAMENAK**

ITZIARKO AMARI

Zeru-ertz batetik
ta besteraño
ez da izar ederragorik zu baño.
Zeruetatik
zuzen gaitzazu, Ama,
zuregana
topa dezagun or Zure Seme laztana.

Izarvak bere du
gabean argi;
Amaren begiak / lañoak garbi...
Gure pozkarri,
Birjiña Mari,
zerutik lurrera ziñan etorri.

Bizitza ontako
itxas zabala!
Amaren izarrak / argi zaitzala;
ta argi dezala,
---berau bezala—
gure biotzeko itxas zitala.

Ezpañetan dezun
irri goxoa!
Orrek, bai, pozten du / biotz gaxoa !
Ester-antzena
Errege bera
zoratzeraño bein eldu bait-zera.

Erregiña zera,
ta itxaro degu
Erregek entzungo / dizun errege...
Eskatu, ba, Ama,
Ama laztana,
zerura gaitezen noizpait Zugana.

ARRATE'KO AMAREN POZKARIOAK

Sortzez garbia zera-ta
amentxe gatoz kantari
aintzak eta aintzak Zuri,
Arrate'ko Andra Mari.

Eibar sortu baño lena
Arrate-goian ziñan Zu;
sortu zanetik or zaitu
Eibar'ek bere Zaindari
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Euskaldunok oraindikan
artzai-garaia genduan;
artzaitxo bati orduan
or zintzazkion ageri,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Artzaitxo bati ageri
mendiko lora polita,
Erregin bat lez jarrita,
begientzat zoragarri,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Arrate'ko pagadiak
orain eta len garbiak...
or zintzazkigun agertu
biotzentzat maitagarri,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

"Maitagarriak" basoan
artzaien peril osoan...
Zu agertzean, azkarrik
danok emon igesari,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Artzaiak mendi goietan,
nekazariak soloan...
ta Zuk guztiok gogoan,
Zu guztion maitalari,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Burdin-lanaren gordiña
Eibar'ko ola zarretan!
Oletako beargiña
zure aintzaren kantari,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Eibar'ko patu ta lorra,
gerratean su gogorra...
Bañan su ta gar-arteau
Zu zeruan dizdizari,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Antxiñatikan Eibar'ek
 Anaitasun bat ezarri
 inguruetañ lenengo
 Zure Sortze garbiari
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Zure "Sorrera Garbia"
 neguaren biotzean;
 bañan orri-erortzean
 Bulda batek opa guri,
Arrate'lto Andra Mari.

Sortzez garbia...

Ez da Eibar' en umerik,
 txiki-txikia dalarik
 amatxuren besoetan
 eskiñi bagerik Zuri,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Guztiok maite zaituguz,
 gure Amatxu laztana;
 ustea Zugan daukogu,
 beti oyuz gagoz Zuri,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Zuk ondo zaindu gaituzuz
 arraixku andienetan;
 olan gagoz gaur benetan
 aintzak eta aintzak Zuri,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

Zaindu gagizuz, ba, beti,
 orain arte lez aurrera,
 gagozan beti kantari
 aintzaz eta aintzak Zuri,
Arrate'ko Andra Mari.

Sortzez garbia...

GLORIAS A LA VIRGEN DEL CORO

*Ama zeranez-geroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.*

Donostiarak Ama zaitugu
zeruko Ama laztana,
bear aunditan arkitzen gera,
eskean gatoz zugana.

Zeruko Aitak zuretzat ume
egin zaitun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.

Itxas asarre beltzetan, Ama,
estu da gure bizia,
bañan Pozaren Izar ederra
ortxe zaude zu, Maria...

Zeruko Aitak gure Pozkarri
egin zaitun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.

Korutik gero Aldareraño
egatu ziñan gozaro;
ortik Donosti maite guztia
begira naiez maitaro.

Zeruko Aitak gure Zaindari
egin zaitun ezkeroztik
zaitu gaitzatzu zerutik.

Gure biotzak egarri dira,
ta munduak ezin ase,
bañan zurekin, Ama maitea,
iñor ez baitda izan gose...

Zeruko Aitak gu gozatzeko
egin zaitun eskeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.

Itxasoetan ibilli, eta
gure Koruan kokatu...
Eta geroztik gure aitonak
ortxen zinduten maitatu.

Zeruko Aitak gure "Uso Txuri"
egin zaitun ezkeroztik
zaitu gaitzatzu zerutik.

ESTIBALIZ'KO AMA'REN "ANGELUSA"

Chorus : Estibaliz'ko Ama maitea;
 Izar eder, seruko Atea :
 biotzez agurtzen zaitugu (bis)
 Goratua Zu zeru-gaiñean;
 bedeinkatua lur zabalean.
 Agur Zuri! betiko Agur;
 Ama maitea, "betiko Agur"!

ARANTZAZU'KO AMARI

(Eresitxoa)

(1918)

Ama maite, Ama garbi,
 ozeru-goiko izar argi
 Aloña'n ezarria!

Euskalerria	Aloña-mendian
pozez jauzia,	agertu ziñan,
zure oñetan	eskerra darion
daukazu;	iturri;
gipuzkoarrak	or izan zaitugu,
biotz-sukarra	elorri-gañean
oiuz erakus	naigabe-artean
nai dizu.	pozkarri.

Erregin-aulki ermoa!
 Erregin-auki ermoa!
 Itxasoraño emazu
 zure itzal gozoa!
 Arantzazu!
 zure itzal gozoa
 itxasoraño emazu
 Arantzazu!

ARANTZAZUKO AMARI

Salve, Regina Agur, Erregiña (Ant. B. M. V.)

(1918)

*Agur, zeruen edertasuna
arrosa, zuri-gorría,
Jesse Aitaren zuztarretikan
lerden-lerdenik azia,
arrosa-muskil lirain, polita,
arrosa erne-berria,
ar likitxaren kutsurik gabe
sortua zeran Maria.*

*Agur, zeruko izardietan
dan izarrik ederrena,
illumbe otan bizi geranon
pozgarririk gozoena,
Artizarra lez aldatzekea,
goizekoa lez gardena,
gau-abarretik goizalderao
lausorik gabe zerana.*

*Agur, elordi ertsu ontako
lilitxo zoragarria,
usai-gozodun, zaloi, galanta,
ximur-gabe ta garbia,
arantz artean, arantzik gabe,
arantzan gora jaikia.*

*Orla mintzatu zaizu
gaur arte guzian*

Euskal-erri maitea
Euskera garbian,
zure magal gozoan
naigabe-aldian
neke-lagungarria
topatu zegian.

*Orla mintzatu zaizu
gure Euskal-erria
gaur arrosa deituaz,
ta bigar lilia,
gaur izar ditzizari,
urren illargia,
gero zero puskallo
lilluragarria.*

*Orlaxe deitu dizu
Amatxo min-miña,
batean lore-xorta
Jainkoak egiña,
bestean ezti gozal,
oberik-eziña...
atzo, gaur eta beti
eder, zoragiña;
bañan onez aurrera
izen atsegíña!
agur, esangu dizu,
*agur, erregiña!**

LARRAITZ'EKO GURE AMARI

(Lurdes'ko «Agur» bezela)

Larraitz'eko zelaian
txoriak kantari
pekatariok antxe
daukagun Amari:

Ama, zeruetatik
atozkigu lagun,
pékatuen okerra
Jaunak barka deigun.

Agur, agur, agur Maria!
Agur, agur, agur Maria!

Larraitz'en Ermita bat
antziña egiña;
an bizi da Zeru ta
lurren Erregiña.

Jesus'en larratzean
ardi on gaitezen,
ea nola gaitzetik
Zuk gaituzun zaitzen.

Agur, agur...

Aingeruen Erregin
eta gure Ama:
zure seme-alabak
ona gaur Zugana.

Zerurako ez dago
Zu beste aterik;
Zurekin dabillenak
ez dauka galtzerik.

Agur, agur...

Zerurako bidean
izar bat gidari;
Ama, Zu zera gure
Izar eder ori.

Zureak gaitezela
orain lur onetan,
Zurekin izateko
gero zeruetan.

Agur, agur, agur Maria!

Agur, agur, agur Maria!

FATIMA

(28-1-1948)

Mayatzak amairu — udaberria :
txori-kantuz alai — Coca da Iria.

Cova da Iria! — Coba da Iria!
an agertu zaigu — Ama Maria.

Ama Maria — Ama Maria,
iru artzaitxori — an ageria.

—Zeru goietatik — etorri zera
—Bai, nere biotz au — erakustera.

—Zure biotz orrek — Ama, zer dio?
—Pekatuen damu — t'Errosario.

—Errosario! — Errosario!
Nere Biotzari — miña dario.

Gizonak maitatu — dezaten alkar,
'nere Biotz onek — Pakea dakar.

GEIAGO ELIZAKOAK

BERGARA' KO GURUTZE SANTUARI

«Crux fidelis...»

Gurutze Santu,
Gurutze sendo,
Zugatz illezkdí bakarra!
Mundu guztian
zabaldubedi
zure kerizpe goitárra!

Zain, gerri, adar,
ostro ta lore

guretzat zeran gozoa!

Zintzillik dagon
orrentzat, bañan,
oi! zeñen nekez jasoa!

Gozo, neketan,
zure berdiñik
ez du ematen basoak.

Gurutze Santu...

«Egarri nago»
esan eziñik,
zerura begiratzean,
Aitarik gabe
arkitu zera
ito-bear garratzean.
Ona emen gu
Zu poztu naiez
orren naigabe latzean.

Gurutze Santu...

Esku ta oñak
iru iltzetan,
etenik beso zaintzarrak;
ezpañak legor,
zintzurra larri,
eztanda bear bularrak...

Jesus, onela
Zu ikusi-ta
gu ez itotzen negarrak!

Gurutze Santu...

Zeruko Aita,
arren, barkatu
gizonon gaizki egiñak!
Ez begira gu,
begira, baño,
Jesus'en zauri samiñak.
Ámaitu bitez,
Aita, lenbaitlen
Seme maite orren miñak.

Gurutze Santu...

OSTIRAL SANTU ARRATSALDEAN

Ostiral-Santuz
 Golgota-mendin
 Enarak zer zabiltzen?
 Jesusenburu
 edoleztuan
 arantz zorrotzak gutxitzen.
 Ai nere Jesus
 niaite-maitea!
 nor beti ari lediken
 gugatik zauden
 gurutze ortan
 zure nekeak arintzen.

AMABOSTGARREN EGOERA

Kalbario-mendian zauritu zinduten : bost zauri bildurgarri egin zizkitzuten.	Bañan nor da, zauriok egin zizkitzuna? Ez billa errudunik; ni naiz erruduna.
Bi oin eta bi esku; bakoitzean bana; eta sayets maitean antxe bostgarrena.	Nik ezarri nizkitzun gorputz eder ortan; ez bein; millaka bider bizitza txar ontan.

Bañan onez aurrera
 bizi nai nuke nik
 zure Bost Zauri oyek
 laztan-musuz janik,
 orla zerura nadin
 damuz bederenik...
 maitez ez zan ezkerro,
 damuz bederenik.

FERIDAS TENEIS

Gurutze ortan or zaude
zauriturik.
Nikbear nuke...
Zukez... nik.

—Negarrez lertzear nago
bost Zauri oiei, begira...
—Oraindik gutxigi dira
nik nai nituenendako.
Maitalle onik al-dago
iltzear ez izanik? (bis).

—Gure Jaungoiko laztana
orla iltzea bost zaurik!...
—Ba'zuan beste gaxorik
"maite-imiña" deritzana.
Gure maitez jaio zana,
maite-miñez dago illik (bis).

Guratze ortan or zaude
zauriturik...
Nik bear nuke;
Zuk ez... **nik.**

ERBESTETUAK GERA

Coro :

Erbestetuak gera betiko ibillian, agorra oñetatik illuna begian...	itxu eta egarri desertu gorrian... Nor legoken argitan, ai! nor iturrian!
---	--

Jesús :

Ibilliz aspertuta makiltzat Gurutza, egarri det nik ere, egarri biotza.	jakoben potzutikan nai nuke ur otza... Samaritarrik balitz , neretzat, zer poza!
--	---

Solo :

Itzaren, ezti leuna bidean entzun dana!	Iluna degu joana ; orain dator eguna.
--	---

Jesús :

Izarrik gabe bidez zabiltzan gizona : Ni nauzu Goi-argi ta zeruko Ur ona.	Argi-egarri miñez gaxorik dagonak Nigan dauka iturri beti dariona.
--	---

Coro :

Izarrik gabe bidez zabiltzan gizona : Jesus da Goi-argi ta zeruko Ur ona.	Argi-egarri miñez gaxorik dagonak Beragan du iturri beti dariona.
--	--

GABA DA-TA

(ÍQuédate, tauen Jesús, que anochece)

Gaba da-ta, Jesus, geldi zaitez, ementxen, gurekin ; pozik igaroko degu gaba Jesus, Zurekin.	Geldi zaitez, Jesus maite ori; bai, etzuazela; ber-esango degu Emausko biak bezela :
Etzuazela, arren! ; geldi, zaitez Argia zera Zu, ta argi gabe munduko illunbetan galdu gera gu (bis).	Gaba da-ta, Jesus, geldi zaitez, . zaude gaur gurekin; pozik igaroko degu gaba guk alkarrekin (bis).

—Ementxen gelditzen naiz, betiko
zuen artean
Aldarean maitez jan nazazuten
ogi-antzean (bis).

ZURE DEI EDERRA

Zure dei ederra / entzun degu, Jauna :
"Asabak jan zuten / desertuan Mana".
Ta asabak il ziran; / entzun nere esana :
Beti biziko da / Ni jaten nauana,

Guk bizi nai degu / beti bizi, Jauna ;
emaiguzu, eman, bai / Lege Berriko Mana!
Zeruetako Ogi, / gozo guztiak dituana.

PAKEZKO ERREGE JESUS'I

Errege zera Zu;
 Zure Legea / Lege berdiñik gabea
 kristau guztiok maite degu
 maite degu.

Pakezko Errege,
 Errege Ona / gizonaren zoriona
 da zure nai ta zure Lege
 zure Lege.

Aitortzen zaitugu
 gure jabetzat;
 Erregerikan onena / zera guretzat.
 Jesus! gure Jesus!!
 Errege zaitugu.

Betiko Errege
 zeruan ziñan / ta Belen'en jaio ziñan
 beartsu eta indar gabe;
 indar gabe.

Zure Jaiotzean / iru Erregek
 pozik aitortu zinduten
 Errege danon Jaun ta Jabe.
 Jaun ta Jabe.

Erregeakin guk
 Aldare ortan,
 aiek oi-duan bezela / Belen'go Bordan,
 Jesus! gure Jesus! !
 Errege zaitugu.

BASAUNTZAK ITURRI OTZA

(El Sacrificio)

Basauntzak iturri otza,
erleak lora maite;
gogoentzat ezti-iturri
Zu, Jesus, izan zaite.

1. Begiak egarri, bañan
ezin zaitu Zu ikusi;
biotzak mai done ortan
bai laztandu estuki.
2. Zeruko itxaropenez (esperantzetan)
gaude munduan, beti;
ta aldarean zerutxo bat
Zuk garetzat or euki.
3. Noan, ba, Jauna, Zugana;
ortxen dezadan edan;
biotzaren egarri au
Zugan ase dezadan.

ORRA OGI BIZIA

Orra Ogi Bizia,
egiazko "Mana"
desertu ontau guri
Jainkoak emana.
Egarrian Edari,
gosean Zer-jana,
gure Indar, Arnas, Argi
eta gure dana.

Orra Pazko Berria
Zarraren Amaia.
Jaunak bere Aurri
opa dioni Jaia;
Afari gizena ta
opari alaia;
gizonentzat Aldare;
Aingeruen Maia.

Orra Ogi biguna,
Jaki Zerutarra;
odol gorrizko Ardo,
gozo eta azkarra;
indartsuen Kemena,
argalen Indarra;
gaxoen Bizkorgarri,
ta Senda-Belarra.

ORIYA'KO LENENGO JAUNARTZERAKO

Jesus'en, esku ber-berak guri
emandako Janariya;
zeruetatik gure artera
aingeruak ekarriya...
Ogi ontatik jaten duanak
ba'du betiko biziya.

Jesus'en esku ber-berak guri
emandako Edariya;
Beraren odol, gu erosteko
Gurutzean ixuriya,..
Edan dezagun odol ontatik
zeruetako biziya.

Jesus'ek bere eskuz Aitari
egindako Opariya;
gure pekatu danak kentzeko
Bildots gozo, maitatiya...
Zure Aitari ordain eiyozu
guk diyogun zor guztiya.

SAGRARIO-ATEA

Sagrario-atea
 zabaldu eiguren :
 ortxe bizi nai degu,
 gure Jesus!

Betor Elizara
 maitale dana;
 Aldarean dago
 Jesus laztana.

Sagrarioetan
 bakarrik Zu or?
 Maite zaituanik
 ez al da iñor?

Nik maiteko zaitut,
 maiteko beti;
 zure maitasuna
 nigana bedi.
 Maiteko zaitut, bai,
 orain-da beti.

LENENGO JAUNARTZEAREN

Gogoangarri.

Utziozu keari	Begirozu usoari
zerura igotzen;	kotara egatzen;
utzi, bai, elurrari	basauntzari, iturrian
zurutik erortzen;	ur otzik edaten;
untzari utziozu	begira erleari
aritzari lotzen...	lorea xurgatzen...
"Utziaiezute aurrai	Begiraeizu aurrai
Nigana etortzen".	Aldarera juaten.

ALDAREKO JESUS

Aldarean ortxe zaude,
gure maitasunez eri,
kabian tristerik dagon
uso gaxoa iduri...
Iñortxo gabe ikustem zaitut
gau ta egun bakarrik...
Aldareko Jesus,
lagunduko zaitut
ta maiteko biotzetik.

Gure Ogi izan nai dezu,
bañan gizonak jan nai ez;
Aingeruen Ogia baño
naiago bazkatu loiez.
Mundu zoroak etzaitu nai Zu
askorentzat zoritzarrez.
Atoz, Jaun laztana,
etorri nigana;
ník jango zaitut laztanez.

Gure lagun izateko
geldi ziñan Aldarean...
Desertuan dagoanak
on du lagun bat aldean;
lagun gaitzazu, Jaun maite orrek
bizi ta eriotzean
beti zoriontsu
izan gaitezen gu
Zurekin zeruratzean.

ALDARE ORTAN

(Hándel en Largo'rentzako)

Aldare ortan, ixil-ixilik,
gure zai zaude Zu,
biotza taupaka, negar estu.

Gau illun artan Baratza Santuko
irurok bezela, lo, berriz, gu.

Gozo-gozo, maiteki esna gaitzatzu.
Zure Ogia janez, oh Jesus, bai, Zurekin
bizi nai degu;
bai, bizi nai degu.

ZUGAN BIZI

(CercadeTi...)

Zugan bizi gera gure "izanez";
ai! bizi bagiña "Zu laztanet"!
Zu maite izanikan bizitza onetan,
maiteko zaitugu zeruetan.

Erakar gaitzazu Zuregana;
Zurekin bizi nai degu, Jauna.
Zurekin bizirik bizitza onetan,
gero izango gera Zeruetan.

PAZKOETAKO ALELUYA

Alleluya!
 Gure Jaunari kauta, kanta gaur
 Alleluya!
 Gure Erregeri kanta, kantatu alai
 Alleluya! (bis).

Alleluya!
 Piztu da gure Jesus, piztu da ;
 Alleluya!
 gugatik il zan Jauna piztu, bai.
 Alleluya! (bis).

Alleluya!
 Zurekin bizi gaitezen, Jauna,
 Alleluya!
 Zurekin piztu gaitzazu gaur, bai.
 Alleluya! (bis).

Alleluya!
 Ementxe zaude, Aldare ontan
 Alleluya!
 zeruan bezain bizirik emen
 Alleluya! (bis).

Alleluya!
 Or zu arturik biziko gera
 Alleluya!
 gero zeruan gaitézen. Amen.
 Alleluya! (bis).

BARTZELONA'KO EUKARISTI-ERESIA

Belaunak lúrrean, ta bi begiak
zure begien billa ortxpn Aldarean,
lore-xorta bat eskuan gatoz gaur
otoitz bat ixurtzera Aldare-oñean :
"Biótz guztietan Zu; pakea lurrean" (bis).

Strophe:

Zábaldu zazu, Jauna,
mundUaii Pake ederra!
Urruti dedin gerrá
Zuk eiguzu lagun!
Aldarean guztiok bat egiñik
adora zaitzaguni (bis).
Belaunak lurrean...

Ogirik ez du gerrak;
etxeko negargarri
gose (i) eta egarri
bait-du beti lagun...
Pakezko Ogia zera or Zu, Jauna;
gogoz jan zaitzagun (bis).
Belaunak lurrean...

MISA COMUNITARIA

(Miguel Alonso'rentzat)

Sarrera :

Guazen gure Jaunaren Aldarera,
gure gaztetasuna
beragan poztutzera.

1. Betor zure argi, betor zure egia;
izan bitez Zukanako gidariak,
igo gaitezen zure mendi santura.
Guazen...
2. Kantatuko degu Jainkoaren aintza;
zergatikan euki negarrez biotzá,
Bera degularik gure osasuna?
Guazen...

Eskeintza:

Eskeñi dezagun gure Oparia;
Jesus bera degu Opari Berria.

1. Presta dezagun mahats gozo ta gafia,
presta dezagun ardo tá ogia,
laister ditezen Opari Berria,
Opari Berria, Opari Berria.
Eskeñi... Opari Berria, Opari Berria...
2. Eskein ditzagun danok gure biotzak,
gure negarrak eta gure pozak,
gure lanak eta gure otoitzak...
lan eta otoitzak, lan eta otoitzak.
Eskeñi...

Sanctus :

Santu, Santu, Santua!
Gudarien Jaungoikoa zera.
Zeruan aintza!
Zeru-lurrik beterik dituzu.
Zeruan aintza!
Zure izenean datorrenari,
bai, Zeruan aintza!

Jaumvrtzea:

Jesus'ek Aldaretik
dei egiten digu-ta,
aditu dezayogun.

1. "Ogia naiz-ta,
egunoro jaten banauzute,
berriz ez dezute
goserik izango,
eta betiko ilko etzerate".
Jesus'ek...
2. "Nere ardotik
egarriz edaten badezute,
berriz etzerate
izango egarri,
eta betiko biziko zerate".
Jesus'ek...

Azkena:

Gora dedilla zeruan
guztioin Jauna!
Gora dedilla lurrean
guztioin Jauna!

1. Aldaretik gatoz
biotza degula
goi-argiz aserik.

2. Biurtu gaitezen
gurelanetara
adorez beterik.

3. Aitortu dezagun
audni dala Jauna
gogotik.
Aitortu dezagun
ona dala Jauna
gogotik.

BIOK, ERREGE TA ERREGIÑA

Erregé jaio ziñan,
Aitarengandik,
eta Errege zera
Zu betidanik.
Dabid'en seme ziñan
Belen'en sortu,
ta munduak Errege
zaitu aitortu.
gure Jesus! gure Jesus! !

Ama maitea dezu
Ama Birjiña :
Zu Errege bezela
Bera Erregiña.

AÑORGA' KO KARMENGO AMARI

Errukiaren Ama gozoa,
 Karmen'go Ama,
 zeruko Erregiña!
 Jesus'ek berak Gurutzetikan
 ordu on batez
 gure Ama egiña!

Añorga'n Zuk daukazu
 aldare bat Elizan,
 andik gu zaitze
 gure langintzan.

Errukiaren Ama gozoa...
 Aldare bat daukagu
 zure omenetan,
 Elizan bezelaxe,
 gure biotzetan.

Ama bedeinka gaitzazu,
 emen ta gero zeruetan.

KARMELO'RENTZAT

(«Nik ba ditut martuetan» bezela)

Zeru goian izar argi
 zaitugun, Ama laztana,
 biotzaren illunbetan
 guk degun Izar Bakarra.

Mundu ontako itxas gaiztotan
 galdu ez gaitezen, Ama,
 gure bateltxoa
 gidatu ezazu,
 ondo gidatu Zugana.

LARRAITZ'EKO AMARI

(Lurdes'ko «Agur» bezela)

Larraitz'eko zelaian
 txoriak kantari
 pekatariok antxe
 daukagun Amári.

"Agur, agur, agur, Maria!
 Agur, agur, agur, Maria!".

Larraitz'en Ermita bat
 antziña egiña;
 an bizi da Zeru ta
 lurren. Erregiña.
 Agur, agur...

Ama, zeruetatik
 atozkigu lagun,
 pekatuen okerra
 Jaunak barka deigun.
 Agur, agur...

Aingeruen Erregin
 eta gure Ama :
 zure seme-alabak
 ona gaur Zugana.
 Agur, agur...

Jesus'en larratzean
 ardi on gaitezen,
 ea nola gaitzetik
 Zuk gaituzun zaitzen.
 Agur, agur...

Zerurako bidean
 izar bat gidari;
 Ama, Zu zera gure
 Izar eder ori.
 Agur, agur...

Zerurako ez dago
 Zu beste aterik;
 Zurekin dabillenak
 ez dauka galtzerik.
 Agur, agur...

Zureak gaitezela
 orain, lur onetan,
 Zurekin: izateko
 gero zeruetan.
 Agur, agur...

MAIATZEKO ILLAREN

Maiatzeko illaren
azken-egunean,
illeko azken kanta
kanta degunean,
Ama, bai al dakizu
zer nai gendukean?

Loretxo bat geiago
—lore txuri-txuri—
beste lore-ondoan
eskeiñi gaur Zuri
—gu ain maite gaituan
Zeruko Amari—.

—Zerlore dan, ba, lora au?
Au bai dala lotsa!
Ez bait da klabeliña,
ezta'relarrosa...
Zer dan, bada? Ai! Amatxo!
Ba... nerebiotza.

Zimel dago; bañan Zuk
ezatuko dezu,
ta usai-gozotuko da
Zuk muintzen badezu.
...Loratxo oni muxu bat,
Ama, emaiozu...

MAYATZEKO LORAK

I

Lorerik ederrena
Zu zaitugu, Maria :
larros eder gorria
ta lili txuria.

Nik ere lore nai det
zure aldarerako;
artu nazazu, Ama,
artu, bai, Zuretzako.

Agiritzat saskitxoan
loretxoak dakarzkitzut;
maitasunez, Ama maite,
Zuk artu eitzazu.

II

Loreak ekartzen digu
lurrera udaberria;
Jesus da gure Udaberri,
Lorea, Zu, Maria.

Zure eskuetan loretxo,
Ama, nor litekean!
Jesus'en begi ederrak
nork poztu lezazkean!

Zure berdiñik eztegu
arkitu baratzean;
geu artu gaitzazu, Ama,
loretxoen antzean.

III

Mayatzeko Loraen
gaur degu azkena...
Ama, Zuk ba'dakizu
guk daukogun pena,
loraen artean Zu
lorarik onena!...

Ordu gozoak, Ama,
Aldare-aurrean
guk igaro ditugu
Mayatze-illean
kantari, loratxoak
Zuri eskeintzean.

Bañan orduko pozak
Amari begira
eta lora ta kantak
aurtengoz jun dira:
orrek ekartzen digu
negarra begira.

Agur, Ama! agur, bai!
bañan ez betiko;
Ama gabe biotzak
ez bait-luke etsiko...
Zuregandik urrutি
ez gera biziko;
betti-betti gogoan
zaitugu eukiko.

ZUREGANÀ

"Zeruan zaudela esan didate,
zeruan zaudela, gure Ama.
Ai! nor legocean zure ondoan!
ai! nor lijoaken Zuregana!".

Orrela esaten zioaa gaxoak
txikitxoa zala oraindikan
nexka txiki batek; eta irri-parrez
entzuten Maria'k zerutikan.

Eta urteak jun eta etorri,
neskatxa egin zan nexka ura;
eta egun batez aingeruakin
Amak eraman zuan zerura.

Eta geroztikan antxe zeruan
dago nexka ura, bai, betiko...

Amatxo! nik ere zorion ori
auditzean banu, ai! eukiko!

Bitarte ontan nik ona izan nai det,
Zurekin igo nadin zerura,
igo zan bezela, txikitandikan
ain maite zinduan nexka ura.

ANDRE MARIA'REN POZA PAZKU-EGUNLEAN

Zeruko Amak poza du... Alleluia!
piztu zaiolako Jesus... Alleluia!
Guk ere poztuko degu... Alleluia!
piztuta ikusten bagaitu... Alleluia!
Alleluia! Alleluia! Alleluia!

Pekatupean il giñan ... Alleluia!
il zan Jesus gugatikan... Alleluia!
Gaur guztiok piztu gera... Alleluia!
zure Jesus'en antzera... Alleluia!
Alleluia! Alleluia ! Alleluia!

Ama, negarrik ez egin... Alleluia!
poztu zaitez, bai, gurekin... Alleluia!
piztu bait-da, bein il zana... Alleluia!
zure ta gure laztana... Alleluia!
Alleluia! Alleluia! Alleluia!

Piztu zaizu bein betiko... Alleluia!
Jesus ez da berriz ilko... Alleluioa!
Betiko piztu gaitzala... Alleluia!
Bera piztu dan bezala... Alleluia!
Alleluia! Alleluia! Alleluia!

AMA BAT MUNDUAN...

Ama bat munduan, eta
 beste bat an zeruan...
 Nor geiago maite izan
 galdez nintzan lenguan.
 Biok maite izan nintzala
 pozik entzun bait-nuan.

Pozik entzun bait-nuan nik zeruko erantzuna :	Geroztik bi Maitetasun dauzkat nik biotzean : bata ametsetan darabilt; bestea otoi zearen.
"Biok zaitugu guk maite bion ume kutuna. Biontzat izan bear du zure maitetasuna".	Biok argi benazate bizi ta eriotzean.

IZAR BIK ZERU GOIAN

(Para «¡Oh Señora!» de J. S. Bach)

Izar bik zero goietan
 goizero ditziratzen;
 Ama, zure bi begiak
 biotza pozkidatzen.

Zurekin nabillen arte,
 gabak ez nau bildurtzen;
 zure argiak gau beltza
 egun bait-du biurtzen.

AGUR DIZUT, MARIA

(Alvarez'en «Plegaria a la Virgen»'entzat)

Agur dizut, Maria,
gure poza ta
gure gozoa
ta gure bizia!
Negarrez eskean nator Zugana,
Ama laztana! ! (ter)

Zure beginen begira gaude,
Jainkoaren Izar ederra.
Biurtu itzazu begi gozuok;
biurtu, bai, Ama, lurrera.
Erbeste ontan bizi geranok,
Jesus'en senide bait gera;
egunen batez artu gaitzazu,
Ama, zure aldamenera (bis).
or kantatzera
betiraundean,
Ama, zure errugabeko Sorrera.

ZURE EDERTASUNA

Zure edertasuna, Ama, oroitzean, poz gozo bat senti det nere biotzeara.	Gure Ama zerala ondotxo dakit nik, Jaungoikoaren Ama zerala jakiñik.
--	---

Zeruko Ama eder,
amarik onena :
Ama xamur zaitugu
kristau gaxoena...
Auxe, bai, dala, Ama,
gure zoramena!

BETIKO TA DANON ERREGIN

(Asunción)

Agur, gure Ama : agur!
Nor juan leiken zerura,
Ama, Zurekin gaur! !

Zoaz, Jaunarren, lañotan gora
zure Jesus maitearen ondora
Bai, agur! !

Ama garbia ! Jainko-Ama :
biotzak zurekin narama.
Itzul itzazu zure begiak,
Ama, zerutik guregana.

Sarreraren ederra
zeruko atean!
Aingeru eta Done
zeruak-betean...

Gora, gora! Andrerik ederrena.
Gora, gora! Amarik gozoeta!
Alleluya! !

Zeru ta lurrik, alkarr arturik,
poztutzen dira gaur zurekin
oyu batean aitorturik
betiko ta danon Erregin.

IKUSTEN DEZU

(«Estrella del mar y guía del alma» bezela)

Ikusten dezu, Ama, mundu onetan,
zenbat naigabe daukagun.

*Amamaitel gure Ama\
zefutik eiguzu lagun.*

Ama, Zuk ondo dakizu
nolako arantz zorbotzak
zulatzen ditun biotzak
bizitzako bide latz eta aldápa-gora-goran...
Zure esku orren gozoa
noizpait senti dezagun,
*Amá müítel gure Amail
zerutik eiguzu lagun.*

Mundura jaio giñanok
Eba'ren ume erbestetu,
zure bearrik ba'degu
bizitzako ekaitz illun eta bildurgarrian
ziu-e begien argia
noizpait ikus dezagun,
*Ama maitel gure Amail
zerutik eiguzu lagun.*

ZERURA IGOTZEA

Zeruko Ama zerura igo da, eta
Aingeruak zeruan poz dute;
Mumduan, berriz,
aren um,eak,
poza ta negarra, naste :
mundutik juan dalakp naigabe degu;
zerura dalako pozez gaude.

Jesus zerura zan egunetik asita,
zerura-naietan zeunden, Ama.
Iñolaz ere,
beti gogo du
amak semearengana...
Gu ere Jesus'eu Senide gaituzu, ta
jaso gaitzazu, Ama, Zngana.

Jesus'en Legea oinperatu gáberík,
garbi bizi bagera munduan
beti-betiko
poza daukagu
Aingeruekin Zeruan;
Aingeruekin zeruan eta, gozoro
Ama-Seme bioen ondoan.

ZERUETARA JASOTZEA

Pozik ikusten zaitugu
 zerura zoazela.
 Ama zerura joan-da
 Jesus zan bezela,
 nik ere nai nuke
 Zurekim gora
 Eranlan nazazun
 Zure ondora.

Zerutik ekarri
 zenduan bein batean;
 Berak ipintzen zaitu gaur
 zeruko atean...
 Nikerenai...

Gorputz-eta-anima
 Jesus' ek Ama zaitu Zu;
 gorputz-eta- anima
 Zeruan zaitugu.
 Nikere.'..

Jesus Érrege bada, Ama,
 Erregiña zera Zu;
 Bera Zerura igo-eta
 Zu nola geratu?
 Nik ere...

Jesus Zeruan Errege;
 Zu, berriz, Erregiña;
 buru-gañean koroi bat
 izarrez egiña.
 Nik ere...

LAETABUNDUS

(Luis Iruarrizagarentzat)

Laetabundus,
exsultet fidelis chorus
Alleluya!
Regem Regum
intactae profundit thorus,
res miranda!

Angelus Consilii
natus est de Virgine,
sol de stella.
Sol occasum nesciens,
stella semper rutilans
semper clara.

Sicut sidus radium,
prof ert Virgo Filium
pari forma.
Neque Sidus Radio,
neque Mater Filio
fit corrupta.

Cedrus alta Libani,
conformatur hysopo
Valle nostra.
Verbum ens Altissimi,
corporari pasus est,
carne assumpta.

Biotz argiz
guztiok ahestu daigun
Alleluya!
Oorputz garbiz
Amak.nola sortu digun
Osasuna.

Izarrak Eguzkia;
Maria'k sortu guri
Goiko Jauna.
Izar, beti biziak,
gaurik ez.dun Eguzki
argiduna.

Argi-begiak, argi;
Birjiñak eman guri
Seme ederra.
Argi-begia, gozo;
Amak gorputza, oso
Jaioeran.

Libano'ko Zugatza,
isopo txiki latza
egin zaigu.
Jaungoikoaren Itza
ume-mintzo murritza
gurtu daigun.

JASOKUNDE

(Para «Dulce Madre» de Beovida, con destino al Certamen
de Bayona, Mayo de 1951. Schola Cant. Donosti)

Nora zoaz, gure Ama,
aingeruen artean?
Zerura baldin ba-zoaz,
Jesus dezu atean.

Laztan gozo bat emango
dizu an ikustean;
eta biziko zerate
gero biok batean,
beti biok batean.

Gu ere ume maite Zuk gaituzu;
ta zero eder ortan sar gaitzazu,
Ama, zure zorionak
aingeru eta gizonak
beti kanta ditzagun,
beti aintza ditzagun.

STELLA MARIS""KO KOROARENTZAT

Zeruko Uso maitagarri,
arkaitzean kokatu!
Zeruko Lore zoragarri
mendipean loratu!
Zure usai gozo eztitan
nai det zoratu,

eta zure urrunga leunez
ortxen lokartu,
egun batez, zure ondoan
pozik nadin esnatu...
Ama, zero eder ortara
Zuk eraman nazazu.

MURILLO'REN "SORTZEARI" BEGIRA...
 (Apetak)

Ama, zure oñetan
 ói! zenbat Aingeru!
 Ortxen gauden, guk ere
 Aingeru nai degu.

SAN JOSE'RI
 («Del cielo las huestes», bezela)

Birjiñaren Senar
 Jesus'en Aitorde;
 Ama-Seme, biok,
 zuk zenithun gorde.

Bir jiñaren ume
 gaituzu gu ere;
 izan zaitez gure
 Zaitzalle.

Il-bear garratza
 eldu zaitzunean,
 Jesus ta Maria
 dituzu aldean.

Zeruko atean
 zuzen sar gaitean,
 izan zaitzagula
 Zaitzalle.

Naiz Nazaret-Belen,
 naiz Belen-Ejipto...
 bideari azkar
 diozu ekingo.

Zeruko bidean
 arraixku-artean
 izan zaitez gure
 Zaitzalle.

AITA SAN JOSE'R1
(«Ixil-ixilik» bezela)

Jaungoikoaren Seme bakarrak
munduan aita zu zinduan;
aurtxoa zala amaika bider
eskutik ibilli zenduan.
Orregatikan goiengo mallan
ikusten zaitugu zeruan,
Aingeru eta Santu artean
Betiko Aitaren onduan.

Jesus'en amak Senarra zaitu,
ezkontza jatorrez artua,
maitasun garbiz, bein-da-betiko
biotz-biotzean sartua.
Maria eta Jose geroztik
izen dira bedeinkatuak,
Jesus'en izen ederrenakin,
irurok ondo alkartuak.

Jesus, Maria, izen ederrak,
eta Jose irugarrena...
Mundu ontako Irutasuna,
errañu zerukoarena.
Aingeru eta Santu guztien
artean zu zera lenena;
eriotzean zu zitzagula
laguntzallerikan onena.

SAN JUAN'EN GORATZARRE

(«Inter natus mulierum non surrexit maior»)

Jesus'en Amaren
 iUobatxiki;
 Jesus'en beraren
 lengusu...
 Jaio diran eta
 jaiotzekotan
 iñor berdiñikan
 ez dezu...

*Ta San Joan,
 beti etorri eta joan;
 bai San Joan,
 beti zaitut gogoan.*

Jaiotzea baño
 len, Santu ziñan;
 Jesus'ek berak
 santu zindun...
 Ez zero goietan,
 ez lur onetan
 iñor berdiñikan
 ez dezu...

TaSanJoan...

Basamortuetan
 txikitandikan
 basoko eztia
 janari;
 laztasun gogorrak
 gorputzarentzat;
 ordurik onenak
 Jaunari...

Ta San Joan...

Basamortutik
 etorri ziñan
 Jordan-ibaiaren
 ertzera;
 iñork etzuana
 zuk egin zendun:
 bataiatu Jauna
 ber-bera.

*Ta San Joan
 beti etorri eta joan ;
 bai, San Joan
 beti zaitut gogoan.*

II

(«Patrum Vetustas...»)

Suaren ta uraren
 iduripean
 antziñak itxadon
 zuana,
 Jordan'go urez ta
 zeruko argiz
 etorri zan, apal,
 zugana;
...taSan Joan,
beti, etorri eta joan,
bai, San Joan,
beti zaitut gogoan.

Urak ba dizu
 garbitzeko indar, ta
 suak ematen bero;
 bero ta garbi
 degu Jesus'en

Agindu oro;
 Jaunak gero
 argitu ziguna bera
 Antziñateak
 len idoro; •
...taSan Joan,
beti, etorri eta joan,
bai, Sán Joan,
beti zaitut gogoan.

Antziñak, Ekaiñez,
 agur Eguzki Berriari;
 guk orain
 «Eguberri» degunari (dena, bis).
...taSan Joan,
beti, etorri eta joan,
bai, San Joan,
beti zaitut gogoan.

AUNDIAGORIK NOR?

(«Viva María», bezela)

Aundiagorik — nor Jesus baño?
Gora dezagun Jesus — gaur zerurafio!

Atoz Mixiotara—pekataria!
Deiez dago Jesus'en — Ama Maria.

Bildur, pekataria — pekatuari;
eman zure biotza — Jesus Onari.

Utzí pekaturako — bide labana;
pekatuak il zigun — Jesus laztana.

Jaso nai eztuanak — geroko ordaña,
eskuak garbi eta — garbi mingaña.

Nai ba-dezu etxeán — gozorik-eza,
egin lan Igandean — ta utzi Meza.

Pekatuan oiera — etzaitezela,
inpernuan esnatu — nai ezpazera.

PEKATURAKO BIDEA

Pekaturako bidea
bide irristapera!
An bein erori ezkero,
nor andikan atera?

"Pekatura joan etá
pekatutik etorri...
Inpernuráko egurra
biltzen zabiltz zerori".

Pekaturako oiturarik
ai! ez dezazula artu!
etsai gaitztoaren mende
etzaitezen zahartu.

Pekatuan zahartu ta
pekatuan gogortu;
etsaiarentzat poza ta
Jesus'entzat elkortu.

Pekatuan bizitzeñik
zuk ez dezazula nai ;
etsaiaren ediskide
Jesus'entzat etsai...

ALDAREAN ZADUZKAGU

Aldarean zaduzkagu,
zerutik jetxia,
gure Jesus bizi- bizia (bis)
Jaungoiko ta gizon
dan guzti-guztia.

Ortxe dago, ortxe dago,
gau ta egun,
beti guk maitatu dezagun (bis)
aingeruen Jaungoiko,
gizonaren lagun.

Zu maitatuz guk daukagu
or, zure inguruan,
zeru txiki bat gaur munduan; (bis)
gero zurekin beti
zerua zeruan.

Askotan or zaude, Jesus,
bakarrik negarrez,
gu zure ondoan bearrez; (bis)
gaur Zurekin bat gera
maitasun ederrez.

ASTIGARRAGA'KO MIXIO S^NTUAK

Jesus Ona
deika dezu eta,
pekatari,
atoz elizara.

1. Pekatari gaxoa,
lotan arki zera;
aingerutxoak datoz
gaur zu esnatzera.
2. Eraman zinduztenak
zu batayatzera,
an zer agindu zuten
oroitzen al zera?
3. Pontean jantxitako
jantzi txuriari
zuk zer egin diozu,
gaxo pekatari?
4. Grazizko jantzi ura
garbi nai ba-dezu,
grazizko iturrian
Jesus deika dezu.
5. Mixio Santuetan
dago iturri ori...
Antxen daukazu Jesus
nai ba-dezu etorri...

1. Jesus Onaren itzak
gogoz adi itzazu,
eta zeru-bidean
seguru zera zu.
2. Anima bat ba'dezu,
ta ura betikoa;
saia ziñezke egiten
zorionekoa...
3. Anima bat ba'dezu,
ta ura Jesusena;
ta iltzean eman bear
deskargu zuzena...
4. Anima bat ba'dezu,
ta ura bat-bakarra;
bera bein gal ez dedin
pin joka-bearra...
5. Pekatu egin dezu?
Jo konpesatzera;
bestela iltzen ba-zera,
inpernuan zera.
6. Ez utzi gerorako
gaur opa zaitzuna;
miñez danak lenbaitlen
nai du osasuna.
7. Asko, "gero" esan-da,
lotara bait-ziran,
inpernuko garretan
bein esnatu ziran.
8. Orlako izugarririk
gerta ez dakizun,
aditu Gurutzetik
Jesus'ek zer dizun...

1. Egarri nauzu, seme :
ni zure egarri:
egarri orrek nindun
mundura ekarri.
2. Egarri orrek nindun
mundura ekarri,
ta era triste ontan
gurutzean jarri.
3. Atoz, ba, Neregana
barkazio-eske;
aitor zaite, ta pozik
etxera zindezke.
4. Emadazu musu bat
oin odolduetan,
gorri zaitzadan, gorri
nere odoletan.
5. Atoz gero apainki
nere Mai Santura;
sar nazazu ostatuz
zure ostatura.
6. Or egingo ditugu
betiko pakeak,
ta idikiko dizkitzut
zeruko atea.

BIZENTE ARANBURU'REN

"COLECCION DE CANTOS RELIGIOSOS"

BILDUMATIK

AVE, VERUM CORPUS, NATUM

Agur, Jesus'en gorputz eder,
Maria'gandik sortua!
Gurutzean, bein batean,
gugatik iltzatua!
Oadol gorri ta ur gardena
saiets urratutik ixuria:
Izan zaite gure eriotzean
biderako janaria.

O Jesus gozo!
O Jesus poz-emale!
O Jesus, Maria'ren Seme!

OH QUAM AMABILIS ES...

1. Zoragarria zera,
gure Iesus!
bai, gure Iesus!
Maite gaituzula amets egin dezu.
Amets eder ori
egi biur zazu,
o, gure Iesus!
bai, gure Iesus!
2. Maitagarria zera,
gurelesus!
bai, gure Iesus!
Maitetasuna bai, Zuk sortu dezu...
Cuk maite zaitzagun
Zuk maite gaituzu,
o gurelesus!
bai, gure Iesus!

3. Ikusgarria zera,
gure Jesus!
bai, gure Jesus!
Edertasuna bai, Zuk egin dezu...
Beti ikus zaitzagun,
zerua iguzu,
o gure Jesus!
bai, gure Jesus!

4. Guztiz pozkarri zera,
gure Jesus!
bai, gure Jesus!
Biotz illuna bai, Zuk pozten dezu...
Betiko pozera
eraman gaitzazu,
o gure Jesus!
bai, gure Jesus!

AY CUANDO ACABARAS.

—Pekataria naiz:
noiz onduko nauzu?
Pekatu-bideak
noiz utziko ditut?
Beti etsai-bildur,
pakerik ez dizut...
—Zauden Nigan zu.

—Egarri naiz, Jauna;
nun edan ez dakit.
Argal nago, Jauna;
indarra nun arki?
Utsik det biotza;
eta betenai nik...
—Nagon zugan Ni.

DIOS DE LOS CORAZONES

Biotzen Jaun ta Jabe,
Salbatzalle maite:
errien maitagarri
beti Zu izan zaite.

Gau ta egun Bildots bat
aintzatu dedilla
Gurutzan baño len
Aparian illa.
Aren Gorputz eder
ta Odol garbia
bedi animaren
jan ta edaria.

DIOS DE MI VIDA...

Ez dezu bizi nai gu gabe;
izan, ba, Jesus, gure jabe.

1. Eskean zabiltz gure ondoren;
jabe nai gure biotzaren.
2. Ate-ondoan or zaudez zai:
ostatutxo bat Zuk gugan nai.
3. Ez ostaturik, Jesus gurea:
gu ta dana dezu zurea.

EN LAS FUENTES DE LA GRACIA...

Zure Gurutzetikan
edan det iturri;
geroztikan ez bait-det
biotza egarri.

Zure Biotzetikan
edan det maitasun;
geroztik ondo dakit
nola maite nauzun.

Jesus, Errege maite,
gurekin erruki zaite;
maite ta erruki
guretzat Zuk euki.

VIENE YA MI DULCE AMOR

Ba'dator gure Jesus,
gure Jaun, gure Jainko maitea;
ba'dator gure Erregéa
gu doaiez jaztera. (bis)

1. Bañan Jauña, nola zatoz
beartsu baten etxera?
.. Zeruko Errege zera...
Nora zatoz, ba, Jauna? (bis)

2. Ondo dagonak ez dizu
sendakiñaren bearrik;
ikusten zaitut gaxorik;
emen nator zugana. (bis)

NAI AL DEZUTE JAKIN

Hoy declarar ansio
 cuál es mi gran pasión;
 solo Vos, Jesús mío;
 Vos solo, mi Señor.

Dísteme un querer,
 me diste, sí, un amor
 marcando un norte al ansia
 demicorazón:
 solo Vos sois mi norte,
 Vos solo, mi Señor.

2. Dísteme un amor,
 me diste, sí, un querer
 para querer al hombre
 que es tu imagen fiel,
 porque, amando al hombre,
 quiero a mi Dios en él.

NEGARREZ SAGRARIOAN

Llorando está en el Sagrario,
 mi Jesús Uorando está.
 Si, con mis tiernas caricias,
 lo pudiera consolar...
 Sólo en el Sagrario
 Jesús Ilorando está.
 Si, con mis tiernas caricias,
lo pudiera consolar...

1. —¡Por qué lloras, Jesús mío?
 iquién es, quién, el que te hirió?
 —No es herida; que es él frío
 lo que causa mi dolor.
2. No es herida; que es el frío
 lo que causa mi dolor;
 es que el hombre redimido
 no ama ya a su Redentor.

ONA BILDOTS EZTIA

Es Jesús mi dulce bien,
 pan del trigo de Belén,
 rico pan que sabe a miel,
 el que hoy se nos da.

1. Erase la vida
 un desierto sin pan;
 hambreaba el hombre...
 Dios le dio el nianá.
2. Fatígose Elías
 caminando al Oreb;
 pan de rescoldera
 fuéle buen sostén.

OR ZAUDE JESUS

Escondido estás
 en el altar,
 para ser, Jesús,
 mi buen manjar.

Desde los cielos
 donde reinais,
 bajáis al suelo
 y en pan os dáis.

O maravilla
 de puro amor
 que así domina
 a **tan** gran Señor.

Del cielo baja
 y al cielo va;
 mas también queda
 en el altar.

O maravilla
 de puro amor
 que así domina
 a tan gran Señor.

OSTIAN BIZI ZERA

Oculto en el Sagrario
palpitas por mi amor;
i oh, quién pagar pudiera
tan celestial favor!

En Jerusalén
Pedro te negó;
tu pueblo en la Cruz
te insultó.

Y ahora en el altar
lloras eon pesar
el olvido de
quien te amó.

Pero yo, Jesús,
quiero una de dos :
o la muerte ya
o tu amor. (bis)

YO SOY LA VIDA

Bizitza naiz;
etorri Nigana!
Jesus'en deia da;
guazen Beragana.

1. Eguzki zera;
txori bezela
izotzeten iltzear giñan;
bañan berogarri sortu ziñan,
gu bizkortzeko or aldarean.
2. Argia zera;
lorak bezela
illunbetan zimeldu giñan;
bañan diztizari sortu ziñan,
gu bizkortzeko or aldarean.
3. Ogia zera;
aurrak bezela
gose-egarriz argaldu giñan;
bañan janari gelditu ziñan
gu bizkortzeko or aldarean.

YO SOY DE DIOS

1. Jaungoikoa *gurehin* dago eta
gau ta egun ortxe aldarean;
gau ta egun beude gure biotzak
Berarekin, or bere aldean.

Zoriona! Zoriona!
gizonarentzat or dagona!

2. Jaungoikoa *guretzat* degu eta
gau ta egun ortxe aldarean;
izan bitez beti gure biotzak
Berarentzat besarka batean.

Zoriona! Z oriona!
gizonarentzat or dagona!

3. Jaungoikoa *gurea* degu eta
gau ta egun ortxe aldarean;
Jaunarenak izfaa gáit  zen beti
gorputz ta anima bete-betean.

Zoriona! Zoriona!
gizonarentzat pr dagona!

CRISTIANOS, iVENID!

Betlehendikan,
Betlehendikan...
Bai argi ederra
Betlehendikan!

1. Goazen laisterka
oraintxe bertan!
ikusi dezagun
Belen'en zer dan!
2. Erriko sarreran
ábeltegian,
idia ta astoa,
aúr bat érdian.
3. Andre gazte eder bat
alde batetik;
gizontxo pobre bat
beste aldetik.
4. Aurraren polita
aien erdian!...
erriko sarreran,
abertegian...
5. Inguru guztia
illun zegoan;
eguzki ederra
Belen-ondoan.
6. Belen'go Eguzki,
Jesustxo maite!
Biotzaren argi
beti izan zaite!

ÍOH DIVINO CORAZON!

Jesus'en Biotz onak
 zauri bat ba'dizu...
 Esanzaiguzu, Jauna,
 nork zaitun zauritu (ter).

Seme bat izan nizun
 —miñaren zorrotza!—
 artxek zulatu zidan
 bein nere Biotza.

2. —Ni nauzu seme ori,
 nere Jesus ona;
 ni zure Biotz orri
 min eman niona.

Jesus, nere okerrez
 zindudan zauritu;
 semeak gaur okerrak
 ondo damu ditu.

QUISIERA, JESUS

Jesus'en Biotz
 maite-maitea :
 naigabetani poz
 izan zaitea.

Naigabez gaxo
 daude biotzak;
 eskertxar ta otzak
 dauzka mindurik.
 Beroa bear
 gure gogoak,
 ta mundu zoroak
 ez ba berorik.

Ortxen daukagu,
 Jesus maitea,
 biotzen labea
 Biotz orretan.
 Labe goria
 iduri d.ezu,
 irazekia su
 eta garretan.

ADIOS, jOH VIRGEN!

Agur, Jaunaren
Ama ederra:
Zu utzi bearra
guk min degu.
Ezpañak "agur"
dioten arren,
biotzak emen
egoni nai du.

1. Atoz gurekin,
Ama maitea;
izan zaitez Zu
gurelagum;
zaitu gaitzazu
pekatutikan,
pekatutikan
ez dezagun.

2. Ba'guaz; bañan
gure biotzak
beti Zurekin
daduzkatzu;
zureakere
gurekin nai du:
maitasun berak
lotzen gaitu.

MADRE DIVINA

*Ama Maria,
uzten zaitut;
Ama laztana,
agurl agurl*

1. Zure aldetik
urruntzean
biotza uzten det
zure askutan. .
Beti Zurekin.
nai det bizi;
baita zurekin
il maiteki.
2. Beti Zurekin
bizi banaiz,
oker-bidetik
gorderik naiz;
eta Zurekin
ilbanendi,
zoriontsu ni
beti'beti!
3. Pekaturako
dei zitala,
Ama, ez aitu
dezadala!
ta arraixkuetan
arkitzean,
artu ni Zure
babesean.

MADRE DE AMOR Y CONSUELO

Itxasoko izar ederra,
naigabez dauden Ama!
Zuretzat naigabe dana;
poza guretzat dezu.
Jesus zendun zure poza;
—Amaren Seme laztana—
bañan len zure poz zana,
gaur gure poza degu.

Gurutze baten oñean
gure pekatuen sari
ta Aitaren betiko Opari
Zuk bein eman ziñigun.
Geroztik Aldare ortan
erbestetuen pozkarri
ta esker danen iturri
or da Jesus gau ta egun.

QUIERO, MADRE

1. Nork lezakean, Ama maitea,
zure besoan lotxo egin,
aur txikiak oi duan bezela,
bere amets danak dituela
amatxorekin.
2. Orduan, Ama, entzungo nuke
biotzak ondo dakiana:
zein goxokiro maite gaituzun
eta zein maitez ematen diguzun
zure laztana.

Jesus onak anai gaituala
jakin zenduan ezkeroztik
maite-zauria senda eziñez
biotza dezula maite-miñez
zaude gugatik.

TODA HERMOSA ERES, MARIA

Ederra zaitugu, Maria,
kutsu ta lizun-gabe!
Sortzetik zaitugu, Ama,
grazi ororen jabe!

1. Adan'en ume geran danok
sortzez degu pekatu;
bañan pekatu ortatik,
Ama, garbi zera Zu.
2. Zeruko aingeru dana
sortzez dezu garbia;
Zu, Adan'en alaba arren,
sortzetik txur-txuria.
3. Aingerutxo dana, jatorriz
garbi ta txuri dago;
Jesus'en Ama zera-ta
Zu askoz garbiago.
4. Aitak alaba kutun zaitu;
Gogo Deunak Emazte;
Semeak, Belen'dik onuntz,
bere Amatxo maite.

VERDADES ETERNAS

Zerura gaitzazu, Ama,
 zeruratu gaitzazu!
 Gure esperantz (itxaropen) osoa,
 Ama, Zugan dauagu.

1. Bidez nago mundu ontan,
 ez naiz emen betiko;
 emen. beti iltzen, nago ta
 zeruan naiz biziko,
 antxe beti biziko.
2. Jaunak egin ginduan bein
 betiko zerurako;
 bidean galtzen bagera,
 berriz, inpernurako,
- Noiz ez dakigu; bañan bai
 bein geradela ilko;
 orduan galtzen ba-gera
 galduak gu betiko,
 galduak, bai, betiko.
4. Anima bat ba'deguta
 ura berriz bakarra;
 zeruratzen, ezpadegu
 guretzako negarra,
 bai betiko negarra.
5. Inpernurako bidea
 bide irristapera!
 An bein erori ezkero,
 nor andikan atera?
 nor andikan atera?
6. "Pekatura joan eta
 pekatutik etorri»...
 Inpernurako egurra
 biltzen zabiltz zerori,
 biltzen zabiltz zerori.
7. Gaurkoa nere det, bañan
 gerokoa ez jakin;
 gerorako utzi gabe
 gaur on-bidera nadin,
 bai, on-bidera nadin.

ESPOSO DE LA VIRGEN

Jesusen Aita orde,
Máriaren lagun :
Jose, Zure bitartéz
zerua dezagun.

1. Pekatari gera;
ta ausartzen ez Jesus'en aurrera;
bañan or zaude Zu
Jesus'entzat bitarteko altsu.
Sar gaitzazu Maria'rengana,
gure Jose laztana;
ta antxen dago Jesus.

2. Josue'k itz bat esan
ta eguzkia bein gelditu zan :
izar danen Jaunak
beti egin zitun zure esanak.
Neurririk ez bait-du zure eskuak,
gure bear estuak
Zuk bete eizkigutzu.